


Jon Kortazar

MIKEL ZARATEREN PROSA

Jon Kortazar

# MIKEL ZARATEREN PROSA




Euskaltzaindia  
Bizkaiko Aurrezki Kutxa

**KIRIKIÑO**

EUSKAL KUTXA  
GALERIA YASCA

Colón de Larreategui, 11  
(Galerías Bilbao)

Urrut. 424 11 74 Teléf.  
BILBAO-1



Euskal Biblioteka Labayru



1021385

LITERATURA / N. 2669

MIKEL ZARATEREN PROSA

**Jon Kortazar**

**MIKEL ZARATEREN  
PROSA**

**Mikel Zarate Saria. 1981  
Euskaltzaindia  
Bizkaiko Aurrezki Kutxa**

*Mireni*

© JON KORTAZAR  
© BIZKAIKO AURREZKI KUTZA  
España'ko Enparantza, I  
BILBAO-I

ISBN 84-500-8151-3

D. L.: BI-2214-82

Imprimatzaile: Imprenta Boan  
Particular de Costa, 12-14, 7.º  
Bilbao

**0.1. Lana eta Metodologia. 2.0. Mikel Zarate, gizon herri-koia. 0.3. Mikel Zarate pedagogo. 0.4. Mikel Zarate eta didaktismoa.**

Gure lan honi aurkezpen bat ematerakoan, gure helburua agertu nahi dugu. Lanaren azken helburua Mikel Zarateren prosa aztertzea dugu. Lan honek bere bizitzan argitaratutako hitz lauzko liburu biak ditu aztergai. *Hurgintza minetan* eta *Ipuin antzeko alegi mingotsak* (1).

Aukera honek alde batera utzi ditu bere poemak eta bere poemagintzaren azterketa orokorra. Eta arrazoia lan horren kalitatean datza. Mikel Zarateren prosa lana, aldizkarietan behin baino sarriago publikatu denez, poesia lana baino aberatsagoa eta joriagoa dirudi. Afirmazio huts bezala geratu dadila orain baina, lan honetan, konparaziorik egin baga, prosaren ebaluaketa bat egin dugu.

Prosa lana aukeratzeko ere ba dago, bigarren arrazoi bat: Mikel Zarateren hasiera literarioa da hemen aztertze-  
ra goazen liburuak. Eta (oraindik puntu hau ondo aztertirik ez ba dago ere) bere lehen obretan den bezala agertzen du bere burua Mikelek. Freskoa da testua eta esan nahiez beterik idazlea. Bere intuiziorik oinarritzkoena, originaltasunez jantzirik lehenbizikoz irakurtzen dugu. Geroago bere obra, ez dakigu zergatik, intuizio berdinak jarraitzen ditu, gai berdinak ikutzen. Abizen

(1) M. ZARATE: *Hurgintza Minetan*. Etor. Bilbo. 1971.  
M. ZARATE: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*. Leopoldo Zugaza, Durango. 1973.

euskaldun eta hizkera erdaldunen jabezi ziriak, telebisio arrotzari gorrotoa, euskal sena gorde, eta zaindu nahi izatea; Euskal Herriak sufritutako zapalkuntza salatzea; gazteengan esperantza, euskeraren geroaren sinismena gai aldetik eta herri hizkeran oinarritutako barroko joeratarantz bultzatutako estiloa.

Ba dirudi, Mikel Zarateren lan osoa eta publikatu den bezala irakurtzerakoan, denboran bata bestea jarraituz, gai berdinez ohartzea ez dela gauza arraroa eta inspirazio mailan gertatutako nekatze baten inpresioa uzten duela irakurlearengan. Horregatik, bere lehendabiziko lanak "primitiboagoak" bezala konsideratzen ditugu, eta askoz ere pertsonalagoak.

Lan honetan bigarren helburu zehatzago bat lortu nahi genuke: Mikel Zarateren prosa-lanen definizio (deskripzioa, hobeto), eta balorazio bat lortzea. Erabili dugun metodologia ere, helburu horrekin lotuta dago.

Azterketak hiru maila ezberdinetan ikutu nahi izan ditugu: gai maila, teknika maila, estilo maila. Gai mailan Mikel Zarateren pentsamoldeak aurkitu ditugu. Ez dugu puntu honetan metodologia zehatzik erabili. Lanak irakurri ostean, gehien agertutako ideen esposizio bat egin nahi izan dugu. Teknika mailan, narrazioaren joera nagusiak bilatu. Horretarako estrukturalismora hurbiltzen den metodologi bat erabili dugu: estruktura, denbora, tokien azterketek, kontakizunaren definizio baterantza eraman gaitu. Estilo maila definitzeko askoz ere bide tradizionalago bat erabili dugu. Adierazle mailan oinarriturik Mikel Zarateren espresabideen zerrenda bat lortu ahal izan dugu. Eta gero hortik beste ezaugarri nagusi batzuk erakarri ditugu, laburpen gisan.

Azkenez, zenbait puntutan lan bien arteko konparazio bat egin nahi izan dugu. Estrukturaren azterketan izan da batez ere emankorra joera hau.

Metodologia puntu hau bukatzerakoan, zenbait puntu

ere baztertuak izan direla aitortu behar dugu. Ez dakigu oraindik ezer Mikel Zarateren literaturgintzak utzi duen influentziaz; izan dituen frutuak ez ditugu arakatu.

Dena dela, uste dugu beste gai bat ere ikutu beharko dugula sarreratxo honetan; eta argi utzi lehenengotik: zergatik Mikel Zarate? Orain gutxi hil den idazle bat zergatik aukeratu? Perspektiba faltarik ez ote du izango? Arrazoiak, subjektiboak dira, agian, baina baliozkoak gure ustez: Alde batetik pertsonalak dira. Mikel Zarate ezagutu egin genuen Deustuko Unibertsitatean eman zituen klaseetan, eta bere joanak utzi duen hutsunea uka ezinezkoa da. Beste aldetik, ba dira Mikel Zarateren izaeran bere irudia maitagarri egiten dituen hainbat joera bereizgarri. Mikel Zarate gizon herrikoia genuen.

Eta hil ostean, egiten ari zaizkion omenaldiak bere herrikoitasunaren probak dira. Beste Bilboko literatur gizon bati egin zitzaizkion omenaldiak dakartzkidate gogora orain Mikel Zarateri egiten zaizkienak. Ez da normalea izaten Filatelia Erakusketak idazle bati omenaldi direla, eta are eta gutxiago, mataseilu berezi bat bere irudiarekin ataratzea. (Guk uste, euskaraz egiten den bigarren mataseilua izanik gainera.)

Bai herri honetan, sakon geratu da Mikel Zarateren oihartzuna eta oroimena.

Hil ostean, *Deia* egunkariak (2) bere lagun eritziak batzen zituen, denek azpimarkatzen zuten Mikel Zarateren izaera. "Gizon on" bat bezala agertzen zen orduan.

Dena dela, gure ustez, Mikel Zarateren izaera definitzeko ba dago, bere lagun artean esaera bat: "Ume handi bat zen", esaten dute askotan. Eta ume bati bezala, ez zen zaila izaten Mikel Zarate maitasunez beteriko ikuspegi batetik ikustea.

(2) DEIA: 79-4-12.

Hau dugu, behar bada, Mikel Zarateren popularitatea azaltzeko arrazoi bat.

Baina ba dira beste arrazoi batzuk ere, eta ez dugu uste gutxiagotzat hartu ditzakegunik hauek. Pedagogo bat izan genuen Mikel. Eta izenlagun horretan sartu behar ditugu bere testu liburuak (*Euskal Deklinabidea, Euskal Ortografia, Bizkaiko euskal idazleak, Literatura I, Literatura II*) eta bere klaseak.

Batak eta besteek, klase eta liburuak, sistema pedagogiko bat jarraitzen zuten. Pedagogia. Horra hor ere hitz klabe bat Mikel ezagutzeko. Eta bere pedagogia ezagutzeko beharrezkoa dugu Mikel eta Derioko Udako Euskal Ikastaroaren arteko hartu-eman. Eta gure ustez, argi dago gauza bi eman zizkiola Ikastaroak: bere bizitzan ere horrela izango zen bizkaieratik batura joateko prosezua, eta ikasleek dakitenean oinarritzea irakasteko metodoa. Mikelek Ikastaroari emandakoak ez ziran ere urriak izan.

Horregatik dute hainbat garrantzi bere testuetan ariketek. Arituz ikasten dute ikasleek, ez teoriz. Eta hori irakaskintza prosezuan garrantzizkoa iruditzen zaigu.

Baina bigarren ezaugarri bat ere badago, pedagogiarekin zerikusia duena, baina ideologiarekin ere bai: didaktika.

Mikel Zarateren libururik garrantzizkoenak estilistika aldetik gure ustez, eta edizio gehien izan dituen libururik inportanteenak: *Ipunin antzeko alegi mingotsak* (hiru argitaralpen) helburutzat didaktismoa daukan jenero bat aukeratzen du.

Argi dago didaktismoa joera legez arriskugarria dela. Azken batez, mezua ideologikoa delako. Eta ideologia konkretu bat ematen denean liburu batean, arriskua mezua denci ez guztatzean datza.

Momentu honetan ba dirudi Mikel Zarate ez dela arrisku horretan erori, edo behintzat, mezu ideologiko

hori, bere liburuak saltzen diren erritmoa ikusirik, jende askori atsegin zaiola.

Eta bidea edo formula, bere prosa liburuaren, bere literaturgintzaren prozesuan datzala uste dugu.

Alde batetik, euskal senari buruz, giza-senari buruz, maitasunez ta xamurtasunez egindako erreflexio sakon bat egin ostean, hasten da didaktismoa egiten.

Horrela, agian, *Haurgintza Minetan* nobela gure gizartearen analisiaren espresaketa estilistikoa dela uste dugu. Eta analisia egin ostean, *Ipunin antzeko alegi mingotsak* liburuan, mezu ideologikoa bidaltzen du.

Baina, mezu ideologiko hori oso orokorra da. Horrela jente askok onartu lezake. Eta beste aldetik, mezua politikoa denean (eta berriro diogu hau momentu honetako analisia dela) mezuak puntu "abertzaleak" indartu egiten ditu. Euskaldunak batzen gaituen mezuak indartu ez gu elkar sakabanatzeko balio dituenak.



LEHEN ALDEA  
HAURGINTZA MINETAN

**1.1. Iratxo narratzailearen maila. 1.2. Herri normalaren gaia. 1.3. Balorazioa.**

1.0. Nobela honen gaia konplexua agertzen zaigu; gane-ganetik, azaletik, begiratzen ba dugu nobelaren gaia apostu bat dela esan dezakegu:

— “Ordu honetan idazten...?”

— Apostu bat egin diat: Nobela bat hogeitalau ordutan baietz idatzi” (HM, 53).

Iratxo literaturzale batek nobela bat idazteko egiten dituen ahaleginak. Baina pertsonaia honen autu berbera jarraitzen ba dugu, nobelaren gaia zein den autortuko zaigu:

— “Zein duk hire nobela horren gaia?”

— Dana: ikusten eta entzuten eta sentitzen diatena kontatu” (HM, 53).

Eta esaldia, egia esan, nobelaren giltza bihurtzen zaigu, ez bakarrik gaia aitortzen digulako, erabiliko dituen tekniken berri ere hortxe dugulako baino.

Gaia zein den? Mundu baten deskripzioa, baina ez nolana hiko munduarena, *gurea eta gaurkoa* dugun munduarena baizik.

Afirmazio hau probatzeko datu bi emango ditugu:

1. Nobelari hasiera eman baino arinago aurkitzen den S. Pablaren zita argigarria bihurtzen da:

“Haurgintza minetan eta intzirika dagoz izaki guztiak; *gure bai...*” (San Paulok)” (H, M, 5) (1).

2. Nobela non kokatzen den ikusiaz: Ekidazu. Jakina da izen honen azpian, Euzkadi bera dagoela. Letrak lekuz aldatuz sortarazi da eskutuko izen hori: Ekidazu.

Gure ustez, datuok ukaezinezkoa bihurtzen dute goiko afirmazio hura. Baina nobelaren zehar agertzen diren leku (Botxoa), baserri izen (Olabarri, Olazahar), ohitura (ezizen, errefrau, ekaitz aurkako sineskeri) gure gureak ditugu, duda bagoa.

Gaurkoa denik ez du inork dudan jarriko, baina joan dadila probaren bat:

“—Viva 1968— irakurtzen du Klaudiok telebisioan” (HM, 42).

Fetxaren zita nahikoa dugu, baina telebisioaren aipamenak ere ez dauka garrantzi gutxi.

Ikusten dugunez, bada, gaia maila bitan agertzen da:

- iratxo narratzailearen mailan
- herri normalaren mailan.

### 1.1. Iratxo narratzailearen maila

Beraz, maila biak askotan aurkitzen dira aurrez aurre kontraste teknikaren bitartez.

“Telebisioaren aurrean dagoz orain... telebisioa ikusten dagoz orain gehienak. Ni ez.

Nik ez dut nahi holako telebisorik, holako denbora eramangarririk. Ez dut nahi holako droga berririk, holako alie-

(1) Azpimarkatzea geurea da.

naziorik, herria jendetu, masatu egiten duen tramankulu ganorabakook” (HM, 15) (2).

“Juanek berak zer ote dio? Aingeruekin dantzan ibiliko da seguro asko.

Dantzan ibiliko dira zirritokin ere oraindino, dudarik gabe. Dantzan sorginak ere Iguruako errotan...

Dantzan ibiliko dira nonbaiten Koldo, Pedro Mari ta Santi. Dantzan dabil Amaiaren sabeleko umea ere.

Dantzan ari da haizea kanpoan, eta lehoitako kristalak ere dantzan jartzen ditu noizean behin.

Zenbat dantza ezberdin?

Nik ez dut dantzarako gogorik” (HM, 48).

Ikusten dugunez bada, mailak bi dira. Eta beharbada, bateren batek (eta geu ere horretakoak izan gara), herriaren maila bestea baino askoz ere garrantzitsuagoa zela pensatzeko tentaldiak izango zituen. Honetan, gure ustez, maila biek inportantzia dute.

Iratxo maila deitu dugun arloa baliogarri gertatzen zaio idazleari. Pertsonaia narratzailearen balioa geroago aztertuko dugu. Orain ez gabilta pertsonaiei buruz, kontaketa maila honen balioa aztertzen baino.

Kontaketa maila honek (iratxo mailak, hain zuzen) hiru funtzio betetzen ditu:

1. Euskal mitoen mundurako bidea zabaltzen dio idazleari. Iratxoa aitzakitzat hartu du euskal mito nagusiak aipatzeko, nobelan agerarazteko: IV kapituluaren hasieran Kixmi eta jentilen mitoak, eta VIII kapituluaren Mariren zikloko mitoak deskribitzeko.

2. Nobela beraren amaiera ere, sorpresa eta sospexagarria dugu. Nobela iratxoa lotara doanean amaitzen

(2) Beraz telebisorako gorrotoa Mikelen azken lanetaraino hel-tzen zaigu: “Telebista arrotza puskatzen”. *Utopiaren fantasiaz*, 33 or.

da. Ez da amaitzen nobelaren zehar diren espektatibak argitzen direnean, denbora bukatu eta narratzailea kantsatzen denean baino. Harrigarria benetan, baina estruktura mailan gai honen garrantzia probatzeko bidea ere.

3. Idazlearen beraren bizitzako pentsamoldearen, eta izaeraren informazioa bihurtzen da gai maila hau. Hau da, proposatzen duguna iratxo-narratzailearen eta Mikel Zarateren identifikazioa da. Iratxoaren bitartez bere benetako kezkek azaldu: "sentitzen diatena azaldu". Hau, zelan edo halan argitzeko datu bat baino ez dugu emango. Denok dakigunez Mikel abadea zen, eta horrela ez zen ezkondu. Jakina da, izan ere, Derioko Apazgai Ikastetxean sartzera emaztegaia uzteko beharretan izan zela. Agur mingarri horren gogorarena bere bizitza guztian iraun zuela dakigu ezagutzen genuenok. Egoera honen ispilu ez ete da hurrengo testu hau?

"Ezkondu nahi izan nuen baina, ez zidaten utzi nire anaiek.

Iratxozahar izateak ba ditu bere alde onak ere izan, esate baterako: askatasuna. Baina emazte baten adizkidetasuna eta seme-alaben adizkidetasuna ere gauza ederra izango dela uste dut gure maitasun egarria piska bat asetzeko" (HM, 49).

Goiko datu guztiok eritzi sendo baterantza garamatza. Estruktura aldetik, iratxo maila deitu dugun gai hau orain arte uste izan dena baino inportanteagoa delakoaren eritzi hain zuzen.

## 1.2. Herri normalaren gaia

Nobela irakurriaz batera konturatzen gara: nobelaren zehar herri baten deskripzioa egiten da. Mundo oso bat, gure herri osoa adierazi nahi izan du Mikelek.

"Zein duk hire nobela horren gaia? -Dena" (HM, 53).

Baina mundu oso hori, bere ikuspegitik egin du. Mun-

du osoa espresatuz batera bere pentsamentu, arazo eta larritasunak ere adierazi ditu Mikelek.

Mundu oso hori adierazteko hiru jokabide nagusi hartu ditu:

1. Estilizazioa: beraz, espazio eta denbora tratamenduan ikusi dezakegunez, eta aztertuko dugunez.
2. Sinbolizazioa: berak hain maite duen teknika erabiliz.
3. Deskripzioa.

Jokabide tekniko hauek geroxeago aztertuko ditugu. Orain interesatzen zaiguna zera da: mundu oso, gure eta gaurko mundu horren deskripzioa zelangoa den adieraztea.

Haurgintza minetan. Hona hemen nobelaren izena, eta izena izanik batera izana. Herria nahaste-borraste artean bizi da: eta maila askotako nahasteak ditu herri horrek.

1. Ohitura burruka: zaharren izaera eta gazteena ez da berdina, eta ez da bakarrik belaunaldi burruka nobelari agertzen zaiguna. Sakonagoa da. Mundu bi aurrez aurre agertzen zaizkigu. Gazteak telebisio aurrean eta zaharrak lehengoari lotuta.

"— Handia da gero, gaurko gazteen kontua! Hau da egon ezina...! Gure denboran a... —dio amona zaharrak, Eskolastikak, bere iloba gazteena alde egiten ikustean— Gu Gabonzahar arratsaldeetan, herriko plazan ibiltzen ginen, neska ta mutil auresku ta dantzak egiten genituen ...Bai, haiek ziren Gabonzaharrak, haiek!" (HM, 13-14).

Ez da, ez, jenerazio burruka. Bizitza eta mundua ulertzeko era bi agertzen dira Olazarreko familian. Jenerazio burruka baino gehiago, telebisioren influentziak moda berrietara moldatzen den herri batean.

Beste pasarte garrantzitsu bat ere ba dugu. Bigarren

kapitulu osoa burruka horren adierazlea dugu, izaera ezberdinen burrukaren ispilu. Sorginen akelarre zaharrari gaurko gazteen akelarreak darraio. Mundu zaharra eta berria aurrez aurre, berriak ere bere burruka (utopia lortuko delakoaren esperantza ba dagoela eta aurrerantzeko posibilitaterik ez dagoela sinisten duten artekoa) agertzen duelarik.

2. Burruka politikoa: Don Trifonen eta Andoni eta Koldoren artean agertzen den burrukaren atzean gure herriak nobela idazten zen denboran sufritzen ari zen egoeraren ispilua dugu. Sekuestro, detentzio, etxe errekestuen atzean benetako burruka politiko bat ikusten da.

Askoz ere argiago agertzen zaigu *Txifa* txakurren izena, behar dugun moduan irakurtzen, edo ulertzen ba dugu: fatxi txakurrak ditugu, Faszismoaren jarraitzailearen izen italiarra.

3. Burruka kulturala. Mikelen arazo larri bat euskararen egoera zen. Deskribitzen ari garen herrian ere euskarak garrantzia du:

Pasarte bi ditugu klabeak.

— Amaiaren ametsa (HM, 20-21). Beraz, ametsaren inguruan semea euskara dela (“Zazpi anka ditu”) (euskalkiak bezala), ulertu behar dugu. Amets horretan, Arantzazuko (“Aitzarteko fraileen komentuko egongela handi baten”) Batzarrean izan ziren zalapartaren oihartzunak ditugu:

“— Barrura.

— Kanpora.

— Hatxe.

— Atxe” (HM, 21).

— Bigarren pasarte IX. kapitulua dugu, hitz sinonimoen sariketaren inguruan agertzen diren eritziek ere herria zatitzen dute. Hemen diskusio gaia euskararen aberastasunak ekarri lezaken kalteak dira.

“Izan ere, berrehun hitz ditugu gure hizkuntza zaintsu ta beneragarrian “pinpilinpauxa” esateko. Aberastasun itzela... Aberastasun gehiegik ito egiten gaituelako” (HM, 102).

Pasarteak ikusiz, esan beharra dugu idazleak ez duela, gure ustez, parte hartzen diskusioan. Talde biren argumentoen entzule eta traskribitzaile agertzen zaigu idazlea. Parte hartzekotan ere, oso alde afektibotik hartzen du:

“Gizon bizartsu kokkor batek hartzen du bere besartean ta apa goxo bat ematen dio. Haurra bizirik dago, negarrez baitago” (HM, 21).

4. Burruka jenerazionala. Izaerazko burruka batean egon ba dago herria ere, nobelaren zehar hiru jenerazio agertzen dira (3). Mikelen asmo bat, eta obsesio bat hainbaten, jende guztiak ulertzeko idaztiak egitea izan zen. Beraz, ez zaigu harrigarria egiten gaur gure herrian bizi diren hiru jenerazioak aurrean izatea lana pentsatzen eta prestatzen duenean.

4.1. Jenerazio zaharra. Nobelan Juan eta Eskolastika pertsonaiak dira jenerazio honetan errepresentagarrienak. Kantu, eta esaldi zaharrei lotuta, pertsonaiok nobelatik laster desagertzen dira. Juan heriotzak darama. Eta Eskolastika (azpimarkatu dezagun izen horren funtzio sinbolikoa: Eskolastika, filosofia “zaharra”, giro berriez gaindituta dirudien pentsamolde mediebala) laster geratzen da loak hartua. Herri giroa gogortzen eta nahastatzen duenean desagertzen diren pertsonaiak.

4.2. Erdiko jenerazioa. Amaia. Euskara ondo menpe-

(3) Mikel Zarateren literaturgintzan hiru jenerazioak klabeak direla uste dugu. Berari entzun genion, bere euskal munduko esperientzian hiru jenerazio ikusten zituela. Bata bere aitita igarotako gizaldiko gizona, erdiko jenerazioan beraxe zegoan, eta hirugarrenean Ritxar bere anaia. Puntu hau sakontzeko, interesgarriak iduritzen zaizkigu *Deia* egunkarian argitaratutako artikulo biak. Ez bakarrik puntu hau aztertzeko. Bertan, Literatura eta bolo jokoaren arteko konparazioa, inoiz Mikelen Literatura kontzeptioa aztertzeko ere baliogarri izango da.

ratzen dutenek, baina telebistaren bitartez euskal sena galtzen ari direnek, kristauek, edo, mezatara doazenak behinik behin, nahiz eta, mezatan, bakoitza beretara egon.

4.3. Jenerazio gaztea. Andoni eta Koldo (4), baina ez bakarrik heurok. Bigarren jeneraziokoen aurka altzatzen diren gazte aldrak era bai. Jai egun handietan etxetik irten eta dantzatokitara doazenak, "Ukabila jasorik" (HM, 32) mendea erdi minetan jarri nahi duten akelarre-zale berriek, iraultzaz hitz egiten dutenek, euskara folklore bezala tratatzen ez dutenek, guzti hoiek. Mikelentzat indar handia du hirugarren jenerazio honek. Heuregan sinisten zuen (5) eta euskararen etorkizuna heuren eskuetan zegoela uste zuen.

### 1.3. Balorazioa

Ikusi dugunez, gai arloan maila birekin aurkitzen gara. Maila mitikoa eta maila erreala. Horrelako bereizketa batek prolemak planteatzen dizkio idazleari, edo nahi ba da, nobelari.

Eta bat, eta lehena, batasunarena da. Prolema tekniko hau oso garrantzitsua dugu ikuspuntuaren prolemarekin bat eginda aurkitzen delako, alde batetik, eta nobelagatik sentitzen dugun interesa jarraitzeko erabili behar izan dituen teknikekin bestetik. Nobela honetan erabili direnak, geroago ikusiko ditugu zehatzago. Baina prolema planteatuta geratzen da.

(4) Markatu dezagun pertsonaia honen deskripzioak Mikelen anaiarekin, Ritxarrekin, zerikusi handia duela (HM, 13), Berriro ere, errealitateak Mikelen literaturgintzan izan duen aztarna ikertzeko datu bat.

(5) *Bizipenen bultzadaz eta Etorriaren zorabioz* liburuetan joera berdina.

Gai maila biak ikusiz, zerbait esan dezakegu. Bigarren maila arruntak, besteak baino askoz ere gehiago balio duela, interesgarriago ikusten dugula.

Iratxoa narratzaile bezala erabiltzea, hainbaten ez da aukera txarra. Azken baten, leku guztietan egon daiteken testigu objetibo bat lortzea izan delako.

Baina iratxoaren bitartez, sartzen diren mitoei dedikaturiko zatiek ez dute ezer berririk aportatzen nobelaren tramarako, eta azken baten, nobelak zuen erritmoa lotu arazten dute. Zati hil bezala geratzen dira orri tartean, nobelaren akzioarekin lotura lortu ezinik.

Adibide legez, bego Mikelatsen ipuina, Mariren bizilekuen zerrenda eta VIII kapitulu guztia (HM, 97-102). Kapitularik laburrena dugu liburu guztian, laburrena eta ahulena.

Zein funtzio betetzen ote du nobela guztian? Zer informazio berri damosku? Egia esan, ez daukagu erantzunik. Aipatu dugu: iratxoaren bitartez euskal mundu mitologikora bide bat duela idazleak. Baina ez dut uste, bidea kasu honetan ondo aprobetxatu duenik.

Beraz, Mariren bizi lekuen zerrenda (HM, 97-98), J. M. Barandiaranen lanetan hobe dago nobela batean baino. Eta Mikelatsen ipuina (HM, 99-100) banandurik argitaratzen du idazleak, testuan tarteka ondo markaturik, nobelaren tramarekin lotura lortu ezinik, bestearekin zer ikusi faltearen proba balitz legez bereizketa tipografiko hori.

Benetan kasu honetan, iratxoa aitzakitzat hartua dago, eta ez du ondo betetzen nobelaren artikulazioa idazleak. Hainbat eta sinesgarriagoa gertatzen da iratxoa literaturari buruz, bere eginbeharrari buruz, nobelari berari buruz mintzatzen denean, edo idazlearen sentimenduen ispilu denean.

Honela, bada, gai mitiko honen balorazioan ondorio

bi ditugu, gaiak idazlearen barnea adierazten duenean baliotsua dela esan genezake. Baina ez, euskal mitoen munduan sartzen denean, mundu hori ez bait du beste gaiarekin ondo lotu.

Gaiaren bigarren planua: errealitate maila, hain zuzen, askoz ere interesgarriagoa gertatzen da.

Eta hortarako arrazoi bat dago: *narratarioari* (idazten dagoenean idazle guztiek buruan izaten duten irakurle idealari) oso hurbil egiten zaizkio nobelan kontatzen diren ekintzak. Oso hurbil geratzen zaigu nobelaren problematika, eta identifikatu egiten ditugu pertsonai eta burrukak.

Askotan pentsatu izan dugu Mikelen literaturaren herrikoitasunaren giltza bat haxe zela: irakurle ideal hori bizi izan zen giroaren ezaugarri behinenak, sakonenak papeleratzen zekian; nolabait irakurleak, irakurle bakoitzak bere bizitzaren erreflejoa ikusten zuen nobelan; oso hurbil ziren idazlea eta irakurlea, eta behar bada ez dugu momentuko euskal literaturan idazle eta irakurle arteko identifikazio prozesu hain hertsirik, ta hainbat irakurlek asumitzen dutenik.

Baina hurbiltasun eta identifikazio arazo honek galdera bat planteatzen du, berehala errealitatearen deskripzio identifikatzaile hori ba da balorerik garrantzitsuena, giroa aldatuz batera irakurlea aldatzen denean identifikazio prozesu hori etenduaz, zer ote da izango Mikelen Literatura?

Gaur ezin dugu itauna erantzun, ez bait dakigu zein balore ikusiko duten hurrengo irakurleek. Baina, agian, ba da, ba dugu erantzun bat.

Identifikazio prozesu hori ez da baliorik bakarra. Mikelen lanetan askotan agertzen da magnetofioia. Errealitatearen arlo bat (hotsa) den bezala hartzen duen trastoia. Baina Mikel ez da zinta batzen ari izan, literatura egin du, errealitatea literatura bihurtu nahi izan du, gaur-

ko gure egoera unibertsala bihurtu gurariz, gaurkoa betikoa egin nahirik.

Horretarako bide literarioak aukeratu ditu. Eta bere lanetan gaurkoa eta gure egoera identifikatu ba dira, ez da gutxiago bere lanetan unibertsalismorantza duen jorra, gizonaren sustraia ikutu nahiaz. Unibertsalizazio prozesu honetan teknika bat klabea bihurtzen da.

Sinbolizazioa: gizona eta errealitatea moztortzeko teknika, bere moztorroaren bitartez bere konkretotasunaren usaina galtzen du, betirako arpegia hartuaz.

Beste aldetik, ez da ahaztu behar lan literario batean gaia arlo bat baizik ez dela, eta forma ere kontuan hartzea dela, nahiz eta hemen batez ere, gaia baloratzen ibili.

Hurrengo orrietan errealitatea literaturatzeko, gure herria unibertsalarazteko, eta gaurkoa betiratzeko jarraitu dituen teknikak aztertuko ditugu.

## 2. ARAZO BATZUEN IKERKETA AURRETIK

### 2.1. Ikuspegia. 2.2. Denbora 2.3. Espazioa. 2.4. Erlazio teknikak. 2.5. Nobelaren batasunaren arazoa.

Nobelan ba dira ezer tratatu baino lehenago, argitu behar diren hiru lau arazo: ikuspegia, denbora, lekua, erlazio teknikak eta batasuna. Bost elementuokin aztertu-ko dugu nobelak duen arazo garrantzitsu bat: batasunarena, alegia.

#### 2.1. Ikuspegia

Mundu oso bat adierazteko leku guztietan egon ahal duen narratzaile bat behar du idazleak. Leku guztiak eta ekintza guztiak erregistratzeko gai den narratzaile bat. Narrazio mota klasikoan, honelako prolema bati narratzaile orojakilearen teknikarekin erantzuten zitzaion. Narratzaile orojakileak leku guztietan eta ekintza guztietan egoteko, eta kontatzeko ahalmenak ematen dizkio idazleari.

Baina *Haurgintza Minetan* nobelaren kasua ez da nobela klasiko edo tradizional baten kasua. Mikel nobela moderno bat idaztera behartua sentitzen da; bere giroak bultzaturik nobela moderno bat idaztera behartua. Orduan, nobela harrigarrietan, fantastikoetan erabiltzen den elementu bat aukeratu du bere nobelan narratzaile izateko: iratxo bat. Pertsonaia kontalari honek bere izaera bereziagatik leku guztietan eta ekintza guztietan egoteko ahalmena du.

Todorov-en hizkera erabilia, narratzaile hau, kanpoan den orojakile bat dela esan genezake. Kontalaritza

klasikoak, narratzaile orojakilea pertsonaien barnean sartzen da, bere pentsakizunak aztertutik eta ezagututik. Ez da hau kasua, iratxo kontalaria beste pertsonaiak (normalean, salbuespenak egon arren ere) kanpotik ikusten ditu, ez da heuron barnean sartzen, baina orojakilea da, hala ere, leku guztietan egoteko ahalmena duelako, eta egon dagoelako.

Honelako narratzaileak bere bentajak ditu, dudarik gabe. Orojakile bat lortzen da nobela tradizionalaren bideak jarraitu bagarik gaurko tekniken usai bat emanik lanari. Eta beste alde batetik, gorago aipatu dugunez, eskal mitoen kosmogonia ere agertu araziz.

Baina modernotasunez irabazten duena, sineskortasunez galtzen du. Esana dugu, jadanik, iratxoa literatura harrigarriaren munduan jarri behar dugula, haur ipuinen munduan. Idazleek egin duen narratzaile aukera hori oso errespetagarria gertatzen da, benetan. Eta sineskorra egiten da iratxoak testigu legez jarraitzen duenean nobelaren ekintza. Aitzaki hori ez dago txarto kasu horretan eta teknika ontzat eman dezakegu. Sinesgarria dugu ere, iratxoa idazlearen sentimentuen adierazlea denean.

Baina pertsonaia narratzaile horrek nobelako ekintzetan parte hartzen duenean bere ahultasuna agertzen du. Horrela gertatzen da iratxo narratzaile horrek biajearen bat egin behar duenean. Gezalara Urderekin doanean hegazkin bat hartzen dute, abioi majikoa duda bagea,

“Behingo batean helduko gara Gezalara Urde ta ni...  
—Aiantamentu aureko plazan geldituko gaituk, Urde, ez?”  
(HM, 54-55).

Majikoa eta ikusi ezina, dirudienez.

Areago, bere arreba Urraxarekin idatz-makina lapurtzen duenean, Botxoako denda batean:

“Ximist hartu besartean, ta, denda hartatik irten baino lehen azkonarraren erpa bat utzi du, Urraxak, haren orde, hura egon den lekuan” (HM, 121).



Benetan, honelako ekintzak ez diote nobelari mesederik egiten, eta karikaturaren ertzetan jartzen dute.

## 2.2. Denbora

Hona hemen bigarren batasun hari. Nobela oso denbora mugatu baten hertsia dago. Egun oso bat jazoten da nobela hasi eta bukatzen den artean. Ekilibrio bat lortu nahi izan du idazleak idaztankeraren alderdi honetan. Kapitulu bakoitzak gutxi gora behera, ordu biko epea kontatzen du, nahiz eta epe luzeagoak eta laburragoak dutenek egon. Berdina, lortzen da Estrukturalistek *Iraupena* deitzen duten figurarekin, ekilibrio bat lortu nahi izan duela (9). Gehien baten hamar bat orri izan ditu kapitulu bakoitzak. Salbuespenak ere ba dira. Baina esan genezake, ekilibrio baten mogitzen dela nobela.

Ikusten dugunez, bada, teknika aldetik ez du denborak garrantzi handirik. Baina badu garrantzia denboraren esangura sinbolikoak.

1. Hogeita lau ordu aukeratzea, ziklo bat, ziklo oso bat aukeratzea eta betetzea dugu. Hogeita lau orduak ez dira egun bat bezala ulertu behar, ziklo bat bezala baino. Aipagarri direla iruditzen zaizkigu hurrengo zita hauek:

“Halako batean, ustegabeko hodei-garraska durundiotsu bat entzuten da, eta Olazahar ilun ilunetan gelditzen da bat batean” (HM, 25)

“Bart izan ditukan euri ta afruntak, ortzantz eta tximistekin...” (HM, 95).

Eguraldia beti dago lainotsu nobelaren barnean kontatzen den giroa bezala. Neguko zikloaren esangura balitz bezala.

(9) Iraupena, hauxe dugu Frantziako Estrukturalistentzat: nobelako irudizko denbora eta irakurtzen ematen dugun benetako denboraren tarteko erlazioa. Erlazio horren neurria orrialdeak dira.

Baina ba dago beste zita bat. Amaiera. Idazleak eta eguraldiak negu giro baten gaudela azpimarkatzen dizkigute (“Gabonzahar eguna da” (HM, 11)), baina honela amaitzen da nobela:

“Udaberria laister etorriko da, baina ekaitzaren bihotzean nago orain” (HM, 180).

Ziklo baten barruan gaude. Neguko zikloan, ekaitzpean, haurgintza minetan. Horra hor egun oso horren adiera bat.

2. Beste alde batetik, egun hori Gabonzahar eta Urteberri tarteko gau eguna dugu, urte zaharra agurtzen dugun eguna. Berriro ere gai nagusia azpimarkatzen duen ideia bat, denboraren erabilketaz.

Juan, jenerazio zaharra, nobela hasten denean desagertzen da, hil egiten da. Ziklo bat bukatu da, urtea bukatzen den bezalaxe. Denboraren tratamentuan, dena doa leku berdinerantz: ziklo bat bukatu dela, eta ziklo berria hasi artio, haurgintza minetan, tentsioan jarraitu beharko dugula, gure kontradiziopean udaberri argitsu bat erne arte.

“Baina zergaitik ote da hasarre? Ekidazuarrakaitik?...”

—Baina, ama —ihardetsi diot ekidazuarren alde eginez— hik ba dakin zer gertatu den hemen ta zergaitik...

—Bai, ba zekiat dana. Baina akiakula, aitzaki, eztabaida ta negarrez ez duk deus ere lortzen. Egin, egin behar duk hemen egin....

—Baina, ez igorri ekaitzik, ama.

—Eguraldi ona ekaitzean ernartzen duk, eta udaberria neguan.” (HM, 179)

## 2.3. Espazioa

Denboraren murriztasunak espazio alorrean ondorio batera eramandu nobela: espazio zabala izatera. Beraz,

nobelaren espazioa zabala izanik aparte, sinboloen bitartez, ezaguna ere bihurtzen da. Ekidazu (Euzkadi) da nobelarik gehiena desarroilatzen den tokia. Iratxoak hiru bidaia egiten ditu. Bat Gezalara (Neguri, Getxo) (10), eta beste bi Botxoara (Bilbo).

Bilbo Handiaren aldean. Eta argiago Ekidazuren erre-presentazio erreala kontuan hartzen ba dugu eta ez bere esanahi simbolikoa. Ekidazu Gezalatik hamabost kilometrotara dago (HM, 54) eta Botxoatik hamarrera. Gainera Ekidazutik Botxoarako bidea hegaz egin ezkeroz, Boeing 727-ekin txoka egiteko arriskua dago (HM, 120). Behar bada, Sondikarantz doazen Boeing-kin. Bai, ba dirudi lehendabiziko nobela honetan, Ekidazuren erre-presentazioa ez dela orindikan sinbolo mailan gorpuztu. Errealitateari lotuta agertzen zaigu.

Trenak (11) eta Elizak, tontor baten ganean dagoen eliza, Lezamaren itxura ematen diote Ekidazuri.

Normala iruditzen zaigu hau: erralitatetik erre-presentazio unibertsal simbolikora pasatzeko (12), lehen pauso bat eman du idazleak. Izena sinbolizatu egin du: Ekidazu, Euzkadiren letrekin osotu, baina bere inguruan zegoan erre-ualitatearen bitartez gorpuztu.

Honelako jokabide batek G. García Márquez-en jokabidea gogoratzen du. Hego Ameriketako idazlearen nobelagintzan, espazio bakar bat agertzen da: MACONDO, Mikelenean: EKIDAZU.

(10) "Gezala, *neguan* Gezala izaten da" (HM, 56). *Neguan* eta *Negurik* duen erlazioa kontu. Eta *Negurik* Euskadiren *neguan* jokatu duen papera gogoratu.

(11) Nobelan tren hori Gezalatik Botxoara doa, eta ez Ekidazutik Botxoara. Errealitatetik ihes egin du idazleak honetan.

(12) Ekidazu horrela *Ipuin antzeko* liburuan agertuko da.

## 2.4. Erlazio Teknikak

Guzti honek ematen dio batasun hari bat nobelari, baina ez hoiak bakarrik. Batasuna indartzeko, Mikelek kontakizun teknika berezi bat erabiltzen du. Lotura teknika bat: erlazio teknika hain zuzen.

Abadeak D. Trifonen aldeko errezuak "Haserreturik" (HM, 153) egiten dituenean, errezu hitzak beste ekintza bat ekarri du idazlearen burura eta hurrengo pasartea sasi-meza bat izango da (HM, 154), kontraste teknika osoturik.

"Lagun gutxi dabil gaur trenean, baina Don Trifonen serbitzari asko" (HM, 82).

Hemen ere kontrasteak erlazio bat osatu du.

Horrelako erlazio askatu teknikak haririk ez galtzera laguntzen dio idazleari. Baina horregaitik, ez da gure ustez, nobelaren barnean batasun argi bat gorpuztu.

## 2.5. Nobelaren batasunaren arazoa

Mundu oso bat deskribitu; nahia oso zabala izan da, eta ehun eta larogei orrialdek ez dirudite zabaltasunik nahikoa gogoia betetzeko.

Geroago ikusiko dugunez, ba dira kontakizun maila ezberdinak nobelaren barnean. Aberastasun horrek alde batetik nobela aberastu egin du, baina bestetik, nobela hau eszena pilatze bat baino ez dela eman du.

Olazaharrekoen historiarekin egin denak ere (lehendabiziz lehen planuan agertu arazi, gero osoz eskutatze-ko), batasun bat falta delakoaren inpresio bat eman du.

Batasun honi aipamen gehiago egingo diogu orriak jarraituz batera, baina bego hemen nobelaren batasuna arazorik larriena izan delakoaren afirmazioa. Eta gure ustez, ez da ondo salbatua izan.

### 3. EGITURA DISEINUA

3.1. Deskripzioa / Akzioa. 3.2. Kapituluaren egitura. 3.3. Egitura konplexuak. 3.4. Ekintza paraleloa. 3.5. Kontrasteak.

Batasunaren arazoa hobeago azaltzeko, liburu guztia-  
ren eskema bat egin dugu. Eskema hori Barthes-ek  
"noyaux" deitzen dituen ekintzen eskema jarraituz egin  
dugu. Beraz, uste dugu nobelaren ardatz nagusiak bertan  
direla (13).

Irakurleak eskema guztia aztertzen ba du, hobeto  
jarraituko du, orain egitera goazen azterketa.


(13) Eskema irakurtzeko klabeak hauek dira: Ekintza bakoitza  
lauki baten barnean agertzen da. Laukiak kapitulu kapitulu ematen  
dira, eta goitik behera eta ezkerretik eskumara, binaka binaka iraku-  
rri behar ditugu. Hau da:

1	3
2	4


antzeko eskema jarraitzen dute. Lauki bakoitzean akzioa, edo des-  
kripzio (egoera) edo erretraturen bat den agertzen da, eta gainera,  
zein akzio, deskripzio edo erretratu den. Goitik behera doazen fletxek  
ekintza bien arteko erlazioa adierazten dute. Normalean erlazioa  
"kontrastea" izango da.

Lauki askotan "Espektatiba" hitza agertzen da. Idazleak interesa  
ez galtzeko jarririko pasarteci, edo eginiko itaunei dagokio.

### EGITURA DISEINUA




\* \* \*








ESPEKTATIBAK

{ Koldok zer egin du  
Juani zer gertatu zaio

II





III





\* \* \*


IV




V



VI




VII




{ ESPEKTATIBA  
Jopu/Amaia


VIII




IX




X




XI




XII



XIII



XIV



### 3.1. Deskripzioa/Akzioa

Ez dugu ahaztu behar liburua ez dela ekintza baten desarroiloa, liburua gaia herri baten egoeraren deskripzioa dugu. Akzioa/Deskripzioaren tarteko oposizioan deskripzioak irtetzen du garaile. Duda bada, teknikak ederki eta ugari erabiltzen ditu Mikelek (eta, agian, aberastasun hori dugu nobelaren birtute bat), baina deskripzio pilaketa horrek ez dio utzi liburuari estruktura bakar bat ematen.

Ba ditugu mila adibide:

Lehendabizikoa eta ahaztu ezin bakoa: gai mitikoa eta gai errealista ez dira batu, probatu dugunez. Liburua deskriptiboa izateak, batez ere, indarra ematen dio maila errealisteari. Horregatik, esate baterako, 8. kapitulu osoaren funtzioa ez dugu argi ikusten, estruktura mailan.

### 3.2. Kapituluaren egitura

Ba dirudi, eta uste dugu ondorio bezala ezin dugula despreziatu, liburua bera baino askoz ere hobeto estrukturatuta direla kapitulu bakoitza:

1. Ba dira simetria hutsak diren kapituluak: 3, 7, 9.
2. Tesis, Antitesis, Sintesis, egitura oso osoan betetzen dutenak: 10, 11, 12, eta 14-garrenak.

### 3.3. Egitura konplexuak

Ondorio bezala, lehen kapituluaren estrukturak, nahiz eta oso paraleloak izan, azken kapituluak baino askoz ere konplexuagoak dira: leku eta denporaren etenak ugariagoak. Esanahi aldetik lehen kapituluak azkenek baino pertsonai gehiago aurkezten dute, normala denez.

### 3.4. Ekintza paraleloa

Beste aldetik, eta deskripzioaren nagusitasuna apoiaitzeko bego bego hemen nobela osoaren egiturari buruz zerbait.

Horago esan dugunez, akzio/deskripzio oposizioan dago nobela. Mundu oso bat deskribitu. Baina, beste aldetik mundu hori indar biren arteko tentsio baten dago. Eta burrukak sortzen dira.

Hartu dezagun nobelaren zehar agertzen eta berragertzen diren espektatibak (14). Hartu dezagun Koldok eta Andonik On Trifonen aurka duten historia.

Nobelaren hasieran, Koldo atxilotu nahi dutela jakin dugu. Zergatik? Horrela nobela zabaldu egiten da. Andonirekin batera Jopu txakurra lapurtu (agian, hitza sekuestratu da) duelako. Baina, laster lotzen dutenez, Jopuren historia misterioaren bideetatik zehar darama idazleak, interesa sortu dezan. Baina historia hau ezer argitu baga amaitzen da: eta 125. garrenean bukatu ere. Oraindikan nobela amaitzeko 55 orri faltatzen direnean.

Eta horrela hirugarren misterioa, interesa sortzeko hirugarren pausoa ematen da: Amaia eta Andoniren semea. Desagertu egiten dira Eskolastikarekin batera, On Trifonen serbitzariengandik ihes. Nobela bukatzen denean, Olazaharrenekoei buruz montatutako historia luze honetaz ez dugu ezer jakingo:

“Non ote da Amaia? Atxilotu egin dute hura ere? Ala haurgintza minetan egon delako... eraman egin ote dute klinakaren batera edo?” (HM, 160).

“Amaia “zaintzen”. Baina alde egin du handik Amaiak. Bai. Halako batean, nola edo nondik ez dakitela ihes egin diote Amaiak. Eta Eskolastikak ere bai... Koldok ere ihes egin omen du presondegitik” (HM, 162).

(14) Espektatiben ikuspegi teknikoa “Teknikak” atalean egingo dugu.

Argi dago nobelaren gai nagusia herri honen deskripzioa dela, eta Olazarrenen historia irakurlearen adimena tinko egoteko baino ez duela balio, ez bait du, dirudenez, beste funtziorik.

Baina, agian, bigarren mailako gai hau, lehen mailakoa bihurtu zaio idazleari. Idazleak nobelan irikitzen dituen espektatiba guztiak bide berdinetik bait doaz: Olazarrenen historia hortarantz, hain zuzen: zergatik atxilotu ote dute Koldo, non ote daude Andoni eta Jopu, Andoniren semea ote da Amaiak sabelan daraman haurra. Itaunketa larregitxo zabaltzen ditu, azkenean:

“geroko geroaren geroak esango dit” (HM, 180) (15).

erantzuteko. Historia orri orri gorpuztu du, gero sibilino gertatzen den esaera batekin amaitzeko, bat ere argitu baga irekitako espektatibak.

Beste aldetik, egia esan, IV. kapitulutik aurrera ez digu idazleak datu handirik ematen historia horri buruz: IV. kapituluak daturik gehienak gureganatu ditugu jadanik irakurleok, aurreratzean Andoni eta Jopu hilda agertzen direla (eta hau esatea ez da larregirik esatea, agian, amaiera errez eta aitzaki baten antz gehiago du irteera horrek) eta Amaiak alde egin duela jakingo dugu.

Irakurleengan espektatiba larregi erne ditu. Eta egiturari begiratzen ba diogu, ez duela desarroilo armoniko bat lortu esan behar dugu. Olazarrenen familiaren historia nobela guztian zehar mantendu du, baina azkeneko amaiera ez da ekintzak zuen funtzio garrantzitsuen erakusgarri.

### 3.5. Kontrasteak

*Haurgintza Minetan* dugu nobelaren izena. Herri hau dagoan tentsioa adierazteko, kontraste teknikak erabiltzen ditu sarritan Mikelek.

(15) Kontu Axularren aztarna.

Kontraste teknikak era askotakoak dira, baina behintzat hauek zehaztea baliogarria deritzagu.

1. Zahar eta berria aurrez aurre. Gehien erabilitako teknika. Gabonzahararen ospakizunean Akelarrea egiteko eratan, Hitz Sinonimoen Sariketan euskarari buruzko eritziak, eta herri honen eta Ijituen artean egiten diren kontrasteak ditugu lehen adibidea.

Denak dira garrantzizkoak nobelaren barnean, nobelaren mamia ikutzen dute-eta, baina beharbada, azkena: Ekidazu/Ijiterria kontrastea dugu originalena eta sakonena. Ekidazu azkenean herri zahar bat bezala agertzen zaigu:

“Ekidazuarrak diruzale, alper ta ezjakin batzuk direla esan dit (Marik)... eta errua ez dutela besteak bakarrik, baizik eta ekidazuarrak berak ere ba dutela (egoeraren errua)” (HM, 179).

Herri zahar eta ahul baten antzera. Baina herri honi beste bat jartzen zaio aurrean:

“Hala ere ijitoek ba dituzte eta dakitzite mundu honetakoek ez dituzten eta zer diren ez dakitziten ondasun batzuk: Askatasuna (zorioneko askatasuna), buruko garbitasuna... elkar maitasuna... mozorrorik gabe bizitzeko aukera eta abar...”

Txarto, gaizki bizi dira ijitoak. Baina ekidazuarren (eta nire) munduan baino libreago eta pozago bizi dira. Ekidazuarren munduko beste mundu batean bizi dira ijitoak, “ijito zikinak”. Eta ijitoen munduko beste mundu batean bizi dira ekidazuarrak” (HM, 174-175).

Mundu zintzo eta askea jartzen du Mikelek, eta hemen berriro ere ideia bat agertzen da: Mundu berri hori ijituek egiten badute, ijituek Mikelengan utzi zuten lilurgatik da.

2. Kanpoa/barnea kontrasteak. Adibide gutxi aurkitzen dut. Gabonzahar egunean kanpoko giroa alaitsu dago, baina Olazarren poliziak (On Trifonen serbitzairak) errelistu bat egiten ari dira. Bigarrenez, iratxoa



egunsentiaren deskripzioa egiten duenean, egunsenti inpresionistaren kontraste bezala Olazarrekoek bere aita gorpu dute.

3. Gizonen giroa/Iratxoa. Beraz, kontraste teknika honek gizonen eta iratxoaren artean den berezitasuna markatzen du. Izan denez, iratxo izaki legez agertzen da, baina berezitasun gehiago du iratxo honek literaturara dedikatzen delako, izan denagatik baino.

4. Akzioa/Deskripzioa. Tentsioaren kontraste bat dugu, eta V. kapituluan dugu adibiderik hoberena. Kotxe karrera ostean Bilbo zehar paseo baten garama. Eszena trepidante baten ostean, barea hurrengoa.

5. Maila kontrasteak. XI. kapituluan era bitako bazarrak aurkitzen ditugu. Intelektualena bere sasi-jakinduriaz herritik urrundurik, eta herri arruntarena telebistaren aurrean masifikaturik. Kontrastearen adar biak bata bestearen gainean doaz; mezu printzipala indarturik: herri sena galtzen doazela ekidazuarrek.

6. Ikuspuntu ezberdinak. XIII. kapituluan Trifon zenaren erretratu bi egiten zaizkigu; bigarrenak (abadeak egiten duena) lehenengoa (serbitzariak egindakoa) deuseztatzen du.

Azken kontraste teknikoak liburuaren zehar agertzen direnen adibide baino ez dira. Duda bada, lehenengoak askoz ere funtzio argiago bat dute: mami mailako herri-mina forma aldean espresatu.

Baina, hau ere aipagarria dugu, narratzaileak kasu gutxitan izan ezik (ijituarena adibidez) ez du parterik hartzen. Hona hemen, narratzaile objetiboa izateko guriaren proba bat. Askotan narratzailea magnetofoiaren papera betetzen duela dirudi:

“magnetofoi batek hitzaldi bat hartzen duen bezala XIMIST-ek hartu eta idatzi egiten du” (HM, 121).

Bai eta gainera kontrasteak era bitan agertzen dira: edo pertsonaiak hitz eginik edo eszena kontrastatuak bata bestearen atzean jarririk. Horrela tentsio bat sortzen da. Baina tentsio hori ez da indarrezkoa, gaia tentsoa izan arren. Esposizioa heltzen da irakurlearengana baina ez zaio heltzen diskusioaren berotasuna.

#### 4. NOBELAREN KONTZEPTZIO BAT

Nobelaren desarroiloaz batera, iratxo-narratzaileak literatura eta bere nobelari buruzko eritziak ematen ditu. *Haurgintza Minetan* guztian bost-sei bider gertatzen da hori. Pintzelada antzeko zerbait dira, baina narrazio barnean beste maila batzuk diseinatzen dituzte.

Oso harrigarria gertatzen da joera hau nobelaren zehar. Eta harrigarri hitza azaltzeko hiru erantzun otuten zaizkigu:

- a) Nobelaren interpretazio mailak osotu. Nobelak ez du bakarrik ikutzen euskal mitoen mundua, benetakoko herri baten haurgintza minak, baizik eta nobela bera sortzearen momentua ere literatura gaia bihurtzen da, nobelak ikutzen dituen munduak ere zabalduz.
- b) Iratxoa zenbait pasartetan idazlearen ispilu gertatzen dela esan dugu. Literaturari buruzko eritzietan ere idazlearen eritziak komunikatzen ditu.
- c) Literaturari buruzko eritziak direla-eta, idazlea bera ere agertzen da nobelan. "Lejarreneko Mikel" idazle hori, Txomin Agirre Nobela Saria irabazi duen horixe berori da.

Horrelako tenikak (batez ere pertsonaiei begira) Cervantesek bere "Kixotean" erabili zituen. *D. Quijote* liburuaren bigarren aldean, bere pasadizuak argitaratzen dituen liburu bat agertu dela azaltzen da. Horrelako joko bat darabil honetan Mikelek.

Hiru funtzio ezberdin hauek testu ezberdinek osatzen dute. Horrela, oraingo honetan testuak banan banan

aztertuko ditugu, Mikelen pentsamolde literarioak aztertu nahian.

1. Testu batzuren zehar, Mikelen teori literarioak agertzen zaizkigu:

"Ni idazten ari naiz, idazten jo ta ke. (Funts gabeko nobela bat? Ipui barregarri bat? Olerki ta kantutxo bat? Herri baten gora beherak? Neure gorabeherak?... nobela bat idatzi nahi nuke, zorro bat bete, hain zuzen zorro bat da nobela?" (HM, 16).

Beraz, nobela zorro bat dela oso pentsamolde ezaguna da (16). Kontzeptzio hau lagungarria gertatzen zaio Mikeli. Horrela bere nobelak goian aipatu baino ez ditugun gaiak ikutu ditzake: nobela funtsgabea, barregarria, sinbolikoa, unibertsala eta pertsonala.

Beste alde, literaturaren funtzioa gizartearen barnean aztertzen da nobelaren barnean

"Hustu gaituzte, baina poeta guztiak ez dituzte hustu Ez horixe! Ba dagoz, ba dagoz, zorionez oraindino, poeta jator eta bete batzuk, herriaren amets, bizi nahi, bihotz ikara, ta asmoak, zirt edo zart, lau haizetara iragartzeko, herriaren barne lokartua esnatu ta indartzeko" (HM, 136-137).

Literaturaren indarra gizarte barnean, gerra osteko gizarte literaturan agertzen da ugari (17), baina Grezia zaharreko teorikoek (Platon eta Aristoteles) ere azpimarkatzen zuten literaturaren indarra gizartean, Neoklasikoaren asmoak ere ahaztu baga.

Kurioso da, baina gaurko egunean, Rusiako idazle disidenteek horrelako ideiak erabiltzen dituzte Literaturaren bidez Estatua aldatzeko ametsa berriro argitu da (18).

(16) Kontzeptzio oso ezaguna da "novelas rio" deitutakoetan. Esaldiaren sortzailea Baroja dugu eta Barojagandik Celarengana joana.

(17) Gogoratu Celaya.

(18) Siniavski, Andrei: "El arte es superior a la realidad" *DIWAN* 4. zb. marzo 1979. 5-10 or.

Hirugarrenez, Mikelen nobelan, ba da oso eszena arraro bat, surrealista dugun eszena, baina azken baten literaturaren kontzepzio bat ikusten uzten duen eszena: Unamuno eta Lizardiren kartajokoa. Zentzu literario batean Euskadin euskarazko eta erdarazko Literaturen arteko polemikaren ezaugarri dela esan behar. Edo zentzu zabalean hartu ezkerotan, euskara eta erdararen arteko burruka.

Baina ba dago eszena horren hirugarren interpretazio bat. Pertsonala. Mikel Zaratek aukera bat egin behar izan zuen bere bizitzan, euskaraz ala erdaraz idatzi. Lizardi eta Unamunoren artean izan zen bera ere duda-mudatan.

2. Beste alde batetik, nobela honen historia zelan erne zen, zergatik egiten den, e. b., kontatzen zaigu nobelan. Aipaturik ditugu nobelaren gaiak, heuratariko bat: nobela egitea bera.

Iratxo —narratzile hori nahiko alperra denez, apostu bat egin du; aitzaki bezala, bada, apostu bat dago

“Ez dut libururik idatzi oso alperra naizelako ta idazten erreztasunik ez dudalako. Eta nire alperkeria ta erreztasunik eza niregandik jaurtitzeko postura hori egin nuen, bultzagarri izan zekidan. Ehun basamahats ahien sorta irabazi edo galduko ditut” (HM, 52).

Literario mailan postura hori aitzaki bat besterik ez da. Baina beherago ikusiko dugunez gertaturiko baten oroimena ere ba da, alde batetik, eta bestetik Txomin Agirre Sariaren ohiartzun bat ere.

Bigarrenez, nobelaren beraren giltza ere ematen zaigu. Zer ote den bere nobela hasieran itaundu ostean, erantzuna ere ematen du:

“Mozorroak, irudiak, sinboloak irakurtzen dakianarentzat, mozorroen barruan nor eta zer dagoen ikusten ahalegintzen denarentzat, ulerterreza izango dela uste diat” (HM, 139-140).

3. Azkenez, literaturari buruzko zitek, nolabait, fikzioan errealitatea sartzeko balio dizkie.

Ikusita ditugu jadanik, Txomin Agirre Sariaren ohiartzuna dela iratxoak egin duen postura hori. Baina Mikelek bere lehen liburua (19) ere postura bategatik egin zuen. Kasu haretan saria afari bat izan zen. Kasu honetan:

“ehun mahats ahien eta hogeitau bost musker” (HM, 8).

Kolore berdeko jenoroa, eta uste dugunez, Sariak zuen kantitate berekoa: 125.000 pta.

Aipamen honen bitartez bere iturri batzuk (ahaztu bakoak izan arren) ematen dizkigu:

“—Nortzuk izan dituk maisu?”

—Idazle zaharrak eta heiria” (HM, 53).

Eta azkenez, bera agertzeko bide ere ba dira zitok:

“Aurtengo “Txomin Agirre nobela saria” irabazi duenaren nobela nabarmen hori irakurri duk?”

—Lejarreneko Mikelena?” (HM, 53).

Lejarraga zen Mikel Zarateren bigarren deitura, eta Lezamako bere baserriak Lejarrena izena du.

(19) Itzulpen bat izan zen: Pio Parchs. *Gure Meza Deuna*.

## 5. IDAZTE TEKNIKAK

### 5.1. Kontakizun mailak. 5.2. Deskripzioak. 5.3. Espekta- tibak eta laburpenak. 5.4. Sinboloak eta arketipoak.

Mundu oso hori nobelertzeko teknika ezberdinak erabili ditu Mikelek, hemen banaka batzuren azterketa zuzenduko ditugu:

#### 5.1. Kontakizun mailak

Ezaguna dugun zita bat berriro aipatu behar dugu:

“Funtsgabeko nobela bat? Ipui barregarri bat? Olerki ta kantu txorta zat? Herri baten gorabeherak? Neure gorabeherak? Benetakoak? Asmatutakoak?” (HM, 16).

Itaun sorta bat nobela bati buruz. Eta benetan horrela da: Nobela honetan gai bi bereiztu ba ditugu, askoz ere kontakizun maila gehiago direla aitortu beharko. Eskema baten bidez banandu nahi ditugu mailok.

Beraz, zortzi maila ezberdin, hiru errelitate era ezberdin. Agian, larregi dira. Ez dirudite asko mundo oso baten deskripzioa egin nahi ba dugu. Baina bai nobelaren haria ez galtzeko. Gorago esan dugunez, ba dirudi iratxo-narratzailea ez dela nahiko mundo oso horren batasuna mantentzeko.

Narratiba mailak ugaritu egin dira nobelan, munduaren konplexotasuna adierazteko. Baina nobela batasun faltaz geratu ez ahal den itauntzea ontzat ematen dugu

#### KONTAKIZUN MAILAK

	Mari	VIII Kapituhia
	Iratxo mundua	Gezalara bajea Bilbotik paseoa Biboko tximist makina Kismiren historia
	Iratxo eta literatura	Simon Meza nagusia Futbol partidua Sasi-meza
	Ekidazuko deskripzio kostunbrista	Hitz sinonimoen sariketa Akelarreak Ijitoak
	Ekidazuko deskripzio simbolista	Juan Amaia Koldo Amaiaaren senea
	Olazabarrenekoen historia	Jopu desagertu Andoni ta Koldo D. Trifon hil Txakurren burruka
	Jopuren historia	
	Ipuin eta Kanta	
MAILA MITIKOA		
MAILA ERREALISTA		
MAILA LITERARIOA		

(20). Eszenaren pilaketa bat ez ote den nobela ere pentzatzekoa da. Horregatik idazlearen lehendabiziko itauna:

“Funtsgabeko nobela bat?”

ez zaigu sobrakoa iruditzen.

Dena dela, egia da maila ugaritze horrekin, nobelan mundu zabal bat (oso bat ez ba da ere), deskribitzea lortzen duela idazleak. Hor dugu maila mitikoa eta bere esanahi sinbolikoa. Harriarotik hona bizi-bizirik datozkigun euskal kontzientziaren aztarnak dirudite, herri baten jagoleak. Herria lotan dagoenean ere, ekaitzez izartuten dute. Ez dira errikoen antzekoak, baina herriarekin bat eginda daude.

Maila errealistak ere bere garrantzia lortzen du. Nobelaren barnean hainbat eta hainbat jazoera barregarri, benetan jazorikoak sartzen dira. Adibide bakar bat ematekotan:

“... Aitaren egin ta esan duenean. Eta Errotaurreko Josepak ere Aitaren egin du, baina Aitaren berri bat esan du:

—Enel/Gaur trena/berandu samar/doa/ba” (HM, 76).

Barregarriak dira izan ere nobelaren barnean kontatzen diren horrelako firi-firiak. Zer errepresentatibitate duten ez goaz orain aztertzer. Balio estilistikoarik ba dute, herri hizkeraren adierazpideen adibide argi direnez. Nobelan arintasun funtzio bat betetzen dute, ta azkenez, Mikelek herri gauzentzat zuen maitasuna eta batzeko zuen trebetasunaren ispilu dira.

Garrantziagoa dugu maila hortako sinbolo alderdia. Herriaren gorabeherak adierazteko erabili ditu sinboloak. Eta huskeria izan zitekenaren ganetik iragana, gure herria gaur zer den eta zer pasatu duen deskribitzera heldu da.

(20) Ikusi dugunez ba dira beste batasun elementu batzuk. Espektatibak eta laburpenak, geroago ikusiko ditugu.

Maila literarioak ere bere pisua du nobelan. Nobela dena hartzen duen zorroa dela-eta, benetan denetarikoa sartu duela Mikelek bertan. Baina ez dugu uste horrekin hutsen bat egin duenik, baizik eta nobela ikuspuntutuz eta eritiziz zabaldu duela baino.

Joera hauen funtzionalitateagatik itauntzerakoan erantzun hauek onartu ditzakegu:

a) Mikelen ideia eta uste batzuk indartzeko balio izaten dute beste idazle batzuren zatiok. Kasureko, Euskal Herria hauzokoagatik husten ari dela pentsatzen ba du, Xabier Azurmendiren poema batez baliatuko da bere ideia indartzeko:

“Hustu gaituzte  
tiroz, ta fletxaz  
likorez  
putaz,  
futbolez,  
zezenez,  
bozeoz,  
Urtainez,  
likorez,  
putaz.” (HM, 135-136)

Funtzio berdinarekin:

“Lotan dagoz beste erdiak, lozorroan.  
Herria lozorroan  
lozorroan dakusgu” (HM, 164).

b) Indartuz eta batera, guk uste, gaiari buruz bigarren ikuspuntu bat lortzen da. Honek ez dut uste nobelaren edertasunik gehitzen duenik, baina beharbada, prosaren ritmoa eten egiten du, bigarren erregistro bat sartuaz. Nobelaren bigarren erregistro hori, olerkiz, kantuz eta ipuinez eginda dago.

d) Berak baturiko kontuak eta herri abestiak ere agertzen dira. Hauentzat beste eginbehar bat asmatu du idazleak.

Azken batez, pertsonaia tradizionalen giroari dagokie

herri kanta edo kontu bat esatea. Pertsonaia batzuk deskribitzeko erabili ditu kantuok. Horrela, Juan eta Esko-  
lastikaren erretratuak osatzeko kantatzen ikusten ditugu biok lehenengo kapituluan (HM, 13); era berean sorginak bigarrean (HM, 31).

e) Beste kasu batzuetan giroa deskribitzeko balio izan dizkiote kantuok Mikeli. Gabonzahar ospakizunean kantu indarge batzuk heltzen dira Olazaharrera (HM, 22) edo:

“Sanyo ederrak ez du maitasun irristsik, baina maitasun giroa sortzen ari da.

“Gazte geralako maitasun batean bizi nahi genduke” (HM, 37).

## 5.2. Deskripzioak

Ekidazu horren adierazte prosezuan, deskripzio teknikak garrantzi handia dute. Baina deskripzio-teknikari buruz aurre-aurretik zerbañt esan behar dugu.

Leku deskripzioak pertsonai deskripzioak baino urriagoak dira. Egia esan, herri horren gorabeherak bertako herrikoen iritzien bitartez ematen bait zaizkigu. Horrela, bada, hiru leku deskripzio eginik ba dira, pertsonaienak hainbat eta gehiago dira. Pertsonaien erretratu teknikak aztertuz hasiko gara, leku deskripzioekin jarraitzeko gero.

### 5.2.1. Pertsonaien deskripzioak

#### 5.2.1.A. Era xingleak

Bigarren mailako pertsonaiak deskribitzeko teknika arrunt eta xingleak erabiltzen ditu Mikelek.

Pertsonaiak akzioaren parte hartu, nahiz ez hartu, beti daramate heuren *ezizena* gainean. Pertsonaien izaeraren errasgu bat dugu *ezizena*, pertsonaia izenak berak baino hobeto deskribitzen du herri-izenak.

Adibide bat emoteko, nobelaren 39. orrialdera bialtzen dugu irakurlea, luzeegia bait da hango ezizen zerrenda osoa traskribitzea.

Bigarren teknika xinglea *ametsa* dugu. Noizbait irakurri dugu Mikelentzat mozarroak eta ametsak direla pertsonaia baten izaera jakiteko erarik onenak. Ez da eritzi zoroa, psikoanaliaren bidetik abiatzen bait da oraingo honetan.

Adibide bezala, gutxitan agertzen den pertsonaia baten erretratu: Martzel Izko.

“Nork lukean Aristoteles Onassisen dirua, basozaldien askatasuna, elefante baten bizitza, zezen baten indarra ta oilar baten ahalmena! —pentastu du astotzar lizunak” (HM, 92).

Beraz, Mikel honetan teknika tradizioaletik oso urrun dago. Pertsonai bakoitzak bere uste, amets eta esanetan *bere burua erretratatzan du, ez du narratzaileak erretratatzan.*

Teknika berdina erabiltzen du hurrengo pertsonaiekin: Enekomeko Pedro, Agarreko Mikel, Garbiñe ta D. Julian (HM, 89/94).

Hirugarren teknika bat: *pertsonaien eritziak*, eritzi ezberdinak batzean datza. Horrela, huts-hutsean, beste baga, bitan erabiltzen da nobelari:

“Elizarako diru asko ematen izan du baina, bere langileei zer ematen izan die... Antes es la obligación que la devoción, D. Trifón! Lehenengo zuzentasuna ta gero esku zabaltasuna. Zerua ez da diruz erosten, eta hemen zerua ta han zerua ez da joko segurua” (HM, 153).

Oso garrantzi gutxiko pertsonaiak direnean *errasgu batez* erretrataturik geratzen dira: Errasgu txiki hori gainera pertsonaiak berak esaten du. Adibidez:

“—Señoras, señores, muy buenas tardes! —dio telebisioak  
 —Buenas tardes! —erantzuten dio D. Julian medikuaren  
 emazteak?” (HM, 131)

bere xinplekeria azalduz.

Teknika tradizionala deitu genezaken *idazlearen deskripzioa*, baten bakarrik gertatzen da, Koldoren kasuan.

“Koldo gazteena da Olazaharko familian... Ezkaratzeko horma batean dagoen egutegiko Jesukristoren antza du Koldok, bere ile ta bizer luzearekin. Odolgorria dugu, azkarrara lanerako” (HM, 13).

### 5.2.1.B. Era Konplexuak

Pertsonaia inportanteak errasgu batez baino gehiagoz deskribitzen ditu. Hauen kasuan bere eritzia emango du idazleak baina gero, pertsonaia bizi-bizirik ikusiko dugu, eritzi hori indartuko duen eszena batean.

Narratzaileak egiten dituen deskripzioak norma, eskema bat jarraitzen dute. Honelako eskema:


1. Inpresio orokor bat. Normalean adinarekin zer ikusia duena.
2. Kanpo aldeko deskripzioa.
3. Izaeraren deskripzioa.

Ez dituzte erretratu guztiek hiru berezitasun horiek, baina denak oso trazu gutxitan egindakoak dira. Gainera, deskripzio hauen ostean pertsonaiari buruz, zerbait gehiago kontatuko zaigu, era konplexuak deitu ditugun eskemak jarraituz.

#### a) Deskripzioa/flash back

Deskripzioa egin ondoren atzera egiten du idazleak, pertsonaiaren gertakizunen bat edo bere historia kontatzeko. Hiru pertsonaiekin egiten du hori: Juan, Gregorio, eta D. Trifón (HM. 17. 45. 40. 60). Juanekin bitan jarrai-

### PERTSONAIA DESKRIPZIOEN ESKEMA



tzen du deskripzio teknika hau. Lehendabizikoan deskripzioa narratzaileak egin arren, bigarrenean beste pertsonaia batek egiten du.

Eskema honek bere aldakuntzak ere ba ditu: flas back bat ala bi egon diteke.

#### b) Deskripzioa/amets bat

Amaiaren kasua dugu hau. Amaia nolakoa dugun deskribitu ondoren, bere amets batean (interpretazio simbolikoa duen amets batean) bere izaerari buruz informazio gehiago ematen digu: bere semeagatik kezkatu agertzen dela.

#### d) Deskripzioa/esaera

Eskolastikaren deskripzioak eskema hau jarraitzen du. Narratzaileak egindako irudia irakurri ostean, Eskolastikak bere esa-mesetan jarraitzen du. Esan-mesok mundu tradizional baten kokatzen dute. Esan-mesok bere izaeraren ezaugarriak dira.

#### e) Ezizena/flash back/esaera/beste pertsonaien eritziak

Lau teknika ezberdin pertsonaia bat deskribitzeko. Joan egingo ote zaio eskua idazleari? Agian. Pertsonaia hau ez bait da akzioan garrantzizko bat: Simon Berritsu bigarren mailako pertsonaia dugu izatez.

Baina nobelaren ardatzean, funtzionaltasun bat erantsi zaio, zeregin beharrezko bat hartu du nobelaren barne munduan, bigarren mailako pertsonaia bati ez dagokion garrantzia.

Azken momentuan nobelan gauza asko, eta ekintza asko nahastaten dira: txakurren hilketa; D. Trifonen heriotza; bildurra herrian... ekintzen erritmoa ugaritu egiten da. Iratxoak izaki majikoa izan arren, ezin du azkenean leku guztietan egon. Eta irakurlea zelan denetaz enteratuko?

### PERTSONAIA DESKRIPZIOEN ESKEMA

Idazlearen deskripzioa + flash back + flash back

Aldakuntza: pertsonaia deskripzio + flash back bi  
Aldakuntza: pertsonaia deskripzio + flash back bat  
JUAN \* GREGORIO \* D. TRIFON

Idazlearen deskripzioa + ametsa

AMAILA

Idazlearen deskripzioa + pertsonaiaren esana

ESKOLASTIKA

Idazlearen deskripzioa + flash back + pertsonaiaren esanak

SIMON BERRITSU

ERA KONPLEXUAK



Bada, bigarren mailako akzio “marjinal batentzat” (eta “marjinal” hitza komila artean joan behar du, Olazaharrekoen historia bait da histori “marjinal” hori, nobela guztian zehar iraun duen historia, eta gainera nobela barmeko batasun hari eta ardatz bezala erabilitakoa) bigarren mailako *narratzaile berri bat* aukeratzuz: Simon Berritsu. Honen papera argi dago nobelan: iratxoak ezin duena kontatu, kontatu beharko du. Baina jadanik narrataile hau ez da literato bat izango, iratxoa zen bezala, berritsu bat baino ez dan gizon bat izango da oraingotan.

### 5.2.2. Leku deskripzioak

Leku deskripzioak lau dira nobela honetan. Botxoa-ko, bi; Ekidazukoa, Gezalakoa. Gainera era “inpresionista” (HM, 83) batez egindako egunsenti batena.

Toki deskripzioak ez dute eskema bakar bat jarraitzen, baina, desaroilo antzeko bat ba dute:

1. Gaietiko inpresio bat ematen du, lehendabiziz idazleak (Botxoako txanpana indartsuagoa da, farolak argitsuagoak. Gezala zazpikia da).
2. Kaleak eta etxeak edo detailetxoren bat aipatzen du: Botxoan Eguberri Zuhaitza, Gezalan etxeak Ekidazun, plazaren deskripzioak.
3. Bertan bizi den jendearen aipamen bat egiten du amaitzeko.

Ezberdinak dira lekuak. Baina badute zerbait batera. Horregatik tonolari begiratzuz, hiru tipotan banandu ditugu:

a) Leku deskripzio humoretsuak: gaine-gaietik egindakoak, herriaren karakteristikarik ezagunenak karikatuzatuz. Gezalako deskripzioa (HM, 55) eta Botxoari egunez egindakoa (HM, 121). Klabe humoristiko baten egin-

da daude. Kritika ahaztu baga, baina karikaturizazio joera nabarmena da bietan.

“Ekidazuarrek *Zazpiki* esaten diote Gezalari... Eta ba dakizu txikien bedarlatziak baino ederragoak, osasuntsuagoak, eta majoagoak izaten dira haundikien zazpiak” (HM, 55).

b) Xamurtasunez osatutako deskripzioak. Ekidazukoa eta Botxoa gauez. Ekidazukoa dugu lauretatik konplexuena. Iratxoak eleizatik begiratzen du herria. Lau planu bereizten ditu bere ikuspegian: Eleiza, Plaza, D. Trifonen granjea, iratxoaren etxea. Baina azken hiru planoak lotzeko elementu klabe bat, loturazko elementu bat erabiltzen du: erreka. Elementu horren bitartez begiralearen ikuspegia hurbiletik urrunera zuzentzen da.

d) Deskripzio “inpresionista”: Egunsentiaren deskripzioarekin tipo aparte bat egiten dugu, zentzu hertsean ez bait dugu leku deskripzioa, eta beste aldetik, izenlagun hori idazleak berak jarri duelako: “inpresionista”. Horrelako deskripzio bat, geroago: *Ipuin antzeko* liburuan berriro erabili du.

Teknika ezberdin bi erabiltzen ditu izadiaren deskripzioan: elementuak gizantzatu (kasu honetan eguzkia) eta xamurtasun tonoa erabili (“Maitekiro musukatzen du bere ama lurra” HM, 84).

### 5.3. Espektatibak eta laburpenak

Nobelaren ardatz bat bezala Olazaharrekoen historiak jokutzen du. Egia esan, ez dirudi idazleak garrantzi handiegirik ematen dionik, azkenean zer gertatzen zaien ez du argitzen eta. Baina horrelako amaiera zentzun bako horrek ez du eskutatzen historia horrek nobelaren barmean izan duen pisua.

Geroago eta argiago gertatzen den gauza bat da: nobela interesez jarraitzen ba da, Olazaharrekoeci esker da.

Baina hirugarren kapitulotik aurrera (HM, 22), Olazaharrekoen berriak noiz behinka baino ez dira ematen. Zentzu berdinean, Amaia desagertuz batera, konturatzen da iratxoa Marik Amaia jagoteko agindua eman ziola.

“Non ote da Amaia?... Goizean gure Marik ondo zaintzeko Amaia esan dit baina, oraintxe egin duk egitekoa” (HM, 160).

Esaldi horrek ematen du argi argi Amaia gandik iratxoak duen arduraren neurria.

Idazleak baztertu egiten du kontakizun hau, baina berau izan da nobelaren bultzatzaile.

Irakurlearen interesa lotzeko, Mikel Zaratek kapitulu amaieran Olazaharrekoiei buruzko itaun batzuk jartzen ditu, irakurlea ez dadin heuretaz ahaztu. Itaunen tokitze hori ere garrantzizkoa dugu, horrela irakurleak hurrengo kapitulura jotzen duelako batera esfortzu bagea.

Adibideak asko dira: I kapituluan zergatik bilatzen duten Koldo eta zer jazoten zaion Juani dira jarritako lehen itaun biak. Itaunok III. kapituluan erantzuten dira. IV. kapituluan zer pasatu den Jopurekin. VI.-nean non ete dagon Andoni, VII.-nean espektatiba luzatu egiten da.

Espektatibok birtute handi bat dute: kapituluaren amaieran irakurlearen interesak biztutzea.

Baina, ostera, ez dugu uste ondo soluzionatu direnik: arrazoi bigatik:

1. Nolabait iratxoari, eta irakurleari iratxoaren bitartez, inposatu egiten zaio espektatiba. Ez dator hariarekin batera. Agian, salbuespenak dira Juanekin sortutako espektatiba: Koldo bila etorri dira poliziak, Koldo lotu dutela enteratzen da eta bihotzekoak-edo jotzen du. Baina

(22) Markatu dezagun hiru kapitulu honen luzaera: 50 orr., ia nobelaren % 30-a. Nahiz eta hirurak Olazaharreko familiari dedikatua ez izan, oso pisu handia dute nobelaren barnean.

beste kasu guztietan, espektatibaren kausa atzeratuz (eta argi dago nobelaren interesa sortu egiten dela horrela) iratxoari derrepente, beste bagea, beste pertsonai batek sortzen dio espektatiba.

Bera ez da enteratu, beste batzuk dakarkiete berria:

“—Agertu ahal duk Jopu?

—Ez oraindino ez.

—Eta Andoni?

—Inork ere ez zekit ezer. Urte egin dela dirudik.

—Eta gure D. Trifonek zer zio.

—Lapurrak eskatutako dirua emateko konformé omen zegok” (HM, 94).

Horra hor interesa sortzeko pasarte bat. Baina interesa ez da ekintzatik bertatik sortu, pertsonai baten esanetatik baino. Ez da ekintzatik jaio, hitzetik baino.

2. Bestalde, egia esan, historia hau iratxoak ez duenez hurbiletik jarraitzen, irakurlea, eta bide batez, leku guztietan egon behar lukeen narratzailea enteratzeko (23), idazleak laburpen batzuk egiten ditu nobelaren zehar. Hortarako, bigarren narratzaile bat sortzen du: Simon Berritsu, eta honen eskutik jarraitzen ditugu Olazaharrekoen pasarteak.

“(Iratxoak) Norantz joango naiz orain? Simonengana? Ea ezer dakian. Inork jakitekotan bai...!

—D. Trifonen gorpua Gezalara eramane dute...

Ba ahal dakizu Amaiaarena?... Amaia gaitik ari dira orain etxerik etxe... Baina alde egin du handik Amaiak” (HM, 160-162).

Narratzaileak baino gehiago dakien pertsonai bat egotea nobelan ez da gauza harrigarria nobela moder-

(23) Joera honek narratzaile orojakiletik urrundu egiten du iratxoa.

noan, baina bai nobelaren hasieran narratzaile orojakile bat planteatu bada.

#### 5.4. Sinboloak eta arketipoak

“Mozorroak, irudiak, sinboloak irakurtzen dakianarentzat, mozorroen barnean nor edo zer dagoen ikusten ahalegintzen denarentzat, ulerterreza izango dela uste diat” (HM, 139-140).

Bai, askotan esan dugu Mikelen teknikarik bereziena sinboloak erabiltzean izan dela, eta horrela izan da, izan ere. Baina, nobela honeri buruz ari geranez, bereizketa argi bat egin beharretan gaudela uste dugu.

Mikel sinbolista agertzekotan bere bigarren prosa lanean agertzen da. Hemen sinboloak erabili erabilten ditu, baina askoz ere gehiago arketipoak (24).

Sinboloak kontzeptu batzuren adierazgarri dira, eta arketipoak giza talde baten eredu. Nobela honetan, helburua zein den jakinik gainera, askoz ere inportantzi gehiago dute arketipoek sinboloek baino. Pertsonai deskripzioen zehaztasunak ere froga bat legez agertzen zaizkigu.

##### a) Sinboloak

Dena dela, sinbolismo bidea jorratzen hasi zitzaigun Mikel. Batez ere, Ekidazu dugu nobela honen sinbolizazio helduena. Herri horren gorabeherak unibertsalizatu egiten ditu sinbolizazio horrek.

Beste sinbolizazioen oinarria politikoa dugu. Nobela 1973. urtean argitaratzen da. Euskal Herriko arazoez abertzale ikuspuntutik mintzatzea ez zen orduan ohitura. Zentsurak gogor jokatzeko du denpora honetan. Sinboliza-

zioa, edo arazoa mozorratzea zen irtenbidea. Horrela jokatzeko dute nobela honetan ekintza guztiak.

Ekidazu, Euskadi da. D. Trifon ahalmen zapaltzailearen pertsonifikazioa. Txifa izena *fatxitik* dator. Serbitzariak oso serbitzari leialak ditugu, politiko leial trebeak. Andoni eta Koldoren burruka gure herriko talde hartuak eraman duen burrukarekin paraleloa dugu. Jopu izenak ere oso iturri argiak ditu: *hijo puta*, hain zuzen. Bestalde, esanahiak ba dauka karga sinboliko bat.

Zentzu sinboliko bat darama ere Amaiaren eta Antoniren semeak. Amaiaren ametsen seme hori euskara dela dirudi (HM, 21) eta horrela, euskara legez, herri horren ardatz bat izango dela biharko egunean azpimarkatzen da. Bibliako ohiartzuna duen amaren ihes egite bategatik liberatuko da heriotzatik baina, eta iturri berdineko antza duen haurraren persekuzio bat hasiko dute D. Trifonen serbitzariak.

##### b) Arketipoak

Askoz ere ugariagoak dira. Hor dugu D. Gregorio, arribista huts baten irudia. D. Trifon bera bezalaxe. Eskolastika eta Juan antzinako bizikera jator baten errepresentanteak. Ekidazuko jentea, gizarte kontsumista baten ereduak; Martzel Izko: lizunkeriarena; Pedro Errotako: xinglekeriarena.

(24) Horrela, D. Gregorio, D. Trifon...

## 6. JOKERA ESTILISTIKOAK

### 6.1. Narrazioaren argitasuna. 6.2. Traskripzioaren trebetasuna

Mikel Zarateren estiloaren ezaugarriak laburtu behar-ko ba genituzke duda bada, bik bere muina komunikatuko ziguten:

1. Narrazioaren argitasuna.
2. Traskripzioaren trebetasuna.

Ezaugarriok, beste mila ezaugarri txikiz osatu dira. Eta askoz ere garrantzizkoagoak ditugu heurok, laburpen batek ematen duen argitasuna baino.

#### 6.1. Narrazioaren argitasuna

Enunziatu honen definizioa hauxe liteke: Mikelen mezua hartzeko irakurleak ez du oztoporik aurkitzen, hizkuntza aldetik; mezu literarioa garbitasun beterik iraganatzen da liburutik irakurlearengana.

Baiezatzte hori, irakurtzen hasten direnen esperientzian oinarrituta dago, eta nire irakasle urteetan konprobatua. Mikelen liburuaren didaktismoa oso ezaguna da, eta bere testu liburuak didaktismorako zuen joeraren froga bat baino ez dira. Didaktismo ber-bera datza bere estiloaren ulerterreztasunean.

Behin eta berriro azpimarkatu da Mikelek irakurleen-gandik oso hurbil egiten dituela bere lanak. Baina goazen argitasun horren oinarriak diren teknikak ezagutzera:

#### 1. Joskera:

Mikelen joskera esaldi ximpleek osatzen dute. Menperatuak ere ba daude, baina askoz ere urriagoak dira.

Ondorioa hemetik hurbilean dugu: esaldi ximpleak eta laburrak erabilia testua ulerterrezago egiten da. Baina joera horrekin, prolema bat sortu daiteke: tonu berdintsu bat agertzea nobelaren zehar. Hori ez da gertatu nobela honetan.

Eta ez da agertu esaldi ximpletan egiten diren aldakuntzagatik. Esaldi mota berdina gehienetan: esaldi ximplea. Baina erritmoa aberastuteko esaldiaren barnean aldakuntzak egiten dira. Baita ere esaldi ximpleok erabilten dituen lotura ezberdinekatik.

Hartu dezagun adibide bat.

“Aparkatzean, aurreko autoa jo du Pedro Marik, eta haren barruan bat eginda zegoen bikotea banatu egin da. Koldo ta ez dira konturatu baina, Paulin Enekonekoa izan da mutila, neska.. batek ba daki” (HM, 42).

Testu guztian, esaldi menperatu bi agertzen dira (erlatiboa, eta denborazko nominalizatu bat). Beste guztiak esaldi nagusiak. Bien loturarako:

- Koordinazioa,
- elkar-ondokotasuna,
- eta adbersatibak.

Beste aldetik nagusi berdingoetan galdegaia aldatu egiten du.

Paulin Enekonekoa { jo du Pedro Marik  
izan da

Beste joko batekin nahastuta gainera: baiezko ta ezezko esaldien kontrasteaz:

Koldo ta ez dira konturatu

Paulin Enekonekoa izan da

Testu horren azterketaren atean argitu zaizkigun teknikak dira Mikelen joskeraren oinarri. Esaldi ximple ta laburrak, baina ezberdinak.

Esaldi menperatuak ere erabiltzen dituela uka ezinezkoa da. Baina azpimarkatu dezagun nominalizaziorantz duen joera: "aparkatzean" erabili du, "aparkatu duenean"-aren ordeaz.

Erritmoa bizitu du, eta beste kasu batzutan, aditzaren aberastasun larregirik erabili ezaz, agian, mezua argitzea ere bai. Mezua nominalizazioaren bitartez, errezago helitzen da irakurlearengana.

## 2. Izenak

Mezua argi heldu dadin bigarren teknika izenei dago-kie, sustantiboak. Sustantiboak dira eta, mezu baten alde kontzeptuala daramatenak. Heurak dira mezu baten esanahi gehienaren eramaile. Horregatik, ulerterrezak izatea klabea da testuaren argitasunerako. Izena ulertzeak mezu gehiena ulertzea suposatzen du.

Euskal Literaturan Axularrengandik darabilgu hauzi berdina. Ezaguna da euskaldun guztiak bere testua ulertu dezaten Axularrek hartu zuen bidea: izenak erreskadan jarri, sinonimo txorta bat osotu, horrela hiru lau sinonimo artean, bat ezaguna egingo zitzaion irakurleari. Bide berdintsu bat hartu zuten XIX. mendearen hasierako Bizkaiko idazle erlijiosoek. Baina hauek sinonimoen artean "edo" batzuk jartzen zituzten, esaldiaren erritmoa apurturik. Hori zen aldakuntza.

Mikelek ere Axularren teknika onartu du, sinonimoen pilaketa bere estiloaren ezaugarriak erabiliena dugu, duda bago:

"jakina: eltxoak, euliak eta halako mamorro txikiak arrapatzen ditu armiarma sareak, baina mando, euli, listor erlabio ta holakorik ez" (HM, 61).

Horren antzeko izen pilaketak ugari dira nobela honetan. Baina denak ez dituzte teknika berdinak jarraitzen. Normalean pilaketek "koma" baten bitartez lotzen dituzte pilaketaren zati bakoitza. Eta hauxe izaten dugu joerarik erabiliena. Honela Bizkaiko idazle zaharren joeratik urrundu zaigu Mikel, "edo" esaldian desagertuz, erritmo gehiago bilatzeko.

Baina, beste kasu batzutan pilaketak zentzu bat izaten du esaldian tentsio bat bilatuz:

"—Montekristo" bat ekarzu-eskatzen dio Santi indianoak bere emazte zaharrari.

—"Montezier" bat ekarzu-eskatzen dio Martzel Izkok bere emazte zaharrari.

—Trâeme un "voltigeur" —Don Julian medikuak emazteari" (HM, 131).

Kasu honetan, zigarro marka hoiek mailaka datozkigu, pertsonai bakoitzaren errasgu psikologiko bat emanik.

Nobela irakurtzen duenak oso argi izango du hurrengo hau: pilaketak ez dira izenenak bakarrik izaten, esaldi berdintsu paraleloak, hitz hotsak, eta zenbait elementu berdinen pilaketak askotan agertzen dira lanaren zehar. Adibide legez, hitz-hotsen pilaketa paralelo bat jarriko dugu:

"—Et, et, et...!"

—Ep, ep, ep...!"

—Op, op, op...!" (HM, 112).

## 3. Zehaztasunak

Argitasuna ematea ere bereziki egiten da zenbait pasartetan. Baiezko esaldi borobil bat eman ostean, beste zehaztasun bat jartzen du argiagotzeko geratu dadin testoa.

Horrelako progresio semantikoen adibideren bat jarriko dugu bertan:

"Koldo gazteena da Olazaharreko familian, etxeke seina, kutuna" (HM, 13).

Azken epiteto biek Koldoren irudia bete egiten dute. Horrelako progresio hurrengoko ezaugarriarekin, zer ikusi handia du.

#### 4. Izenlagunen matizazioa

Adjetiboen, izenlagunen matizazioa izango zen bide berdinetik doan beste idaz-tankera bat:

“Zahar egin da Juan ere; gaixorik dabil, ganera... Izan ere, erne bizkor egotekoa dugu Juan” (HM, 17).

#### 5. Joskera mailako zehaztasunak

Zehaztasunetik hurbil ditugun zehaztasunak ditugu esaldi edo joskera mailako hauek. Izen sintagma mailan agertu baga, oraingo zehaztasunok esaldi guztia argituko dute. Progresio semantikoak dira, baina esaldi osoaren esanahia argitzen da hauetan, ez esaldi barneko hitz bakar bat:

“Eta inork ere ez omen daki laster jaiotzeko duen haur horren aita edo sortzailea nor den. Jakina, Amaiak berak ba daki” (HM, 19).

Azken ohar horiek sobran daudela nabari-nabaria dugu, jakin ez ba lu, zer ote dugu Amaia hori? Baina kasu honetan hain motel agertzen den joera honek, beste batzutan joko zabalago bat ematen dio idazleari, batez ere humorearen bideetatik abiatzerakoan:

“Paiaso batzuk ikusi nahi lituzke Kosmek. Kelemente malabaristak. Klaudiok ohea, ia lo dago eta” (HM, 18).

Ez zen beharrezko azken esaldia, beharrezko bihurtu zaigu, aurreko objektu birekin egiten den kontrasteagatik. Baina humorea sortu ez dugu funtzio bakarra. Hurrengo orrialdean aberastasun estilistiko baterako erabiltzen du: atsotitzak zitatzeko:

“Amaia izorra zegoela entzun zutenean; baina gutxi joan ziren Olazaharrera honi laguntzera; jakina: inoren ardura pago adarrean” (HM, 19).

#### 6. Izen paralelismoa

Izen sinonimoen erabileratik at, baino izen pilaketarekin zerikusia duena dugu ezaugarri hau: izen paralelismoa. Beraz, azken kritiko estrukturalistentzat (25), hauxe da poetikaren espresabiderik oinarritzkoena. Paralelismoak ez dira batzutan izen pilaketatik asko bereizten (binaka ematen dira oraingo honetan), baina beste kasuetan esaldizko paralelismoak dira, testua horrela espresabide aldetik aberastuz:

“Ekidazuarrak, ordea, txutxumutxuka, eztabaidaka, pozik batzuk, poztasun maltzurrez, tristerik beste batzuk, tristetasun saminez. Lehendarrak eta oraindarrak, eskuintarrak eta ezkertarrak, atzelariak eta aurrelariak, zuriak eta gorriak, aberatsak eta pobreak, zaharrak eta gazteak, haundiak eta txikiak” (HM, 19).

Goiko adibide hau lehendabiziko kasukoa izango zen, eta bigarrenekoaren eredutzat hona hemen hiru eritzi paraleloak:

“—Para deducir la verdad exacta de lo que dice Simón, hay que extraer la raíz cuadrada y, a veces, la cúbica...

—Hau ta hori ta bestea, eta abar, eta abar, eta abar... sutan erretzeko abarrak dira Simonen abarrik gehienak.

—Hori ere gaixoa duk eta...! Egia esateko eginahalak egin arren, gezurra esan behar” (HM, 79).

Eta bigarren adibide baten:

“—Aurrera! Hala Jainkoa!

—Afa!

—Jau!

—Atzera! Halajaina!” (HM, 111).

(25) Levin, R.: *Estructuras lingüísticas de la poesía*. Cátedra. Madrid. 1977.

## 5.2. Traskripzioaren trebetasuna

Bigarren ezaugarri hartu daikegu oraingo hau. Baina aurrerakoa baino askoz ere konplexuagoa, agian. Traskripzioan trebetasuna duela Mikelek diogu, baina zer traskribitzen du?

Mikelek nobela honetan herri literaturak beragan duen eragina aitortu du. Gaur eguneko herri hizkuntza jasoten jakin duen idazlea ere ba dugu ordea, Mikel. Herri hizkera baten traskribitzaile dugu.

Joera hau, nobelaren elkarrizketetan agertzen da, batez ere. Pertsonaiak askatasun osoaz mintzatzen direnean, herri ispilu bihurtzen zaio irakurleari haien hitz jarioa.

Idaztankeraren bigarren ezaugarri hau osotzeko, herriaren espresabide asko eta asko erabili ditu. Saiotxo honen helburua herriak Mikelengan utzitako espresabideen azterketa da:

### 1. Pertsonaia bakoitzak bere hizkera

Mikel Zaratek aparteko sensibilitate bat izan zuen, bere inguruan esaten zena batzeko. Bere metodoen berri ere ba dugu bere libururen baten (26). Baina argi dago urteetan jarraitutako ohitura hoiak pertsonaien hizkuntza osotzeko balio izan diela. Pertsonaiak deskribitzeko, heuren hizkeraz baliatzen da, eta pertsonaia bakoitzeko errasgu linguistikoak oinarritutakoak gertatzen dira irakurleak pertsonaiaren izaera ezagutu dezan.

Hizkera herrikoi hori jasoaz batera, pertsonaia mailan kreaio lan bat egiten du Mikelek. Kreaio lan horrek nobela honetan sarritan du karikaturarantza joera. Baina

(26) Zarate, Mikel: *Influencias del euskera...* liburaren hitzaurrean.

karikaturak azkenean ez dira pertsonaiaren hizketatik hartutako zerbaiten manipulazioa baino.

Puntu hau aztertu dugu, pertsonaiei buruz mintzatzekoan, batez ere era ximpleen arteko pertsonaiak aztertu ditugunean. Hemen hiru maila berezi nahi gintuzke hizkera maila bera ikuspuntutzat harturik:

a) Lehenengo maila, hizkera errasgu batekin definituta geratzen diren bigarren mailako pertsonaiak osotzen dute. Aipatu genuen D. Julian medikuaren emaztearen ximpletasuna, telebisiolari erantzuten dionean. Ez da nobela guztian adibide bakarra. Horrelako asko dira, batez ere IX. kapituluaren. Beti funtzio berdinekin erabilia: humorea sortzeko helburuarekin. Gehienak oso esaldi txikiak dira, eta karikaturak era askotakoak izanik era linguistikoak ere plurala da. Adibide legez, hitz joko ulergaitz bat eta erdarazko ziri bat jarriko ditugu:

“Nik ba dakit dakidana ba dakidala: ezer ez dakidala, baina zuek ez dakizue ez dakizuen ez dakizuela: ezer ere ez dakizuela.

—Aiko, Sokrates! Ez genekien bizirik zegoenik.

—Ya le decía yo a Usted, Madre, que aquí ibamos a tener *follón* —moja batek beste bati.

—Pero qué palabrotas dices, hija! —moja amak moja alabari” (HM, 109-110).

b) Bigarren maila baten, “gazteak” ditugu. Horrela. Kako artean eta “gazteak” orokartasunez harturik. Nobelaren barnean, gazteak benetako hitzaldiak ematen dituzte. Heurok dira akelarre berrietan parte hartzaileak, euskara berriaren defendetzaileak. Pasarteotan aurkitu ditugu gazte horren euskararen ezaugarriak.

—Izen abstraktoak erabiltzeko joera.

—Intelektualismo berri baten hitzen erabilera.

—Izen sintagmatan oinarritutako pasarteak.

—Joskera aldetik, aberastasun gutxikoak: esaldi ximple eta paraleloak erabiliaz.

—Parafraseorantz tendentzia.

—Kontzeptuen errepetizioa.

—Kontzeptu aldetik topiko bihurtu diren ideiak erabiltzea.

—Bukatzeko, erretorikarantza joera nabaritzen zaie testuei, dogmatikoak balira bezala.

Bego pasarte hau adibide bezala:

“—Adiskideok: Marioneta batzuk bezala erabiltzen gaituzte. Ez ahal zarete konturatu? Begira: obedientzia, apaltasuna, eroapena, otoitza, lana, lana, lana eskatzen edo esijitzen digute, eta, horren orde, geroko bizitza zoriontsua, zerua, zerua, zerua eskaitzen digute” (HM, 33).

d) Jadanik, ezaguna dugu Simon Berritsu. Honen hitz jarioa topikoa bihurtzen da nobelan bertan. Hauxe dugu hirugarren hizkera maila, edo, hirugarren hizkera tipoa. Beraz, hitz jario teknika erabiltzen du pertsonai honek. Batetik bestera pasatuaz, gaiak nahastatuz. Baina hizkuntza mailan azpimarkatzekoa dugu harriduren erabilera, galdera erretorikoena, hiru puntuena, “omen” partikularena. Testuak inpresio hauek sortzen ditu: espresabidearen erreztasuna, alde batetik, konparazio batzutan apoiatuz; gai nahasketa bestetik, eta erritmo inpresioa, azkenez, esaldi laburrakatik.

## 2. Herri espresabideak

Traskripzioak ba du bigarren maila bat ere, herri espresabideak jasoaz. Mikelek ez ditu bakarrik ahozko literatura tradizionalaren joerak jaso. Gaur eguneko jazoerak ere batu ditu. Nobela hau egiterakoan bere ondoan bizi zirenak, ba dakite Mikeli heuren kontatuta-

koa zein neurritan bihurtu den nobela gai, zein neurritan errealitateak bultzatu duen Mikelen nobelistika (27).

Honelako jazoerak batutakoan, heuren espresabideekin batera batzen ditu, jakina. Egia esan, gaur egunean erabiltzen diren espresabideok ez dute aldakuntza handirik herri literatura tradizionalak erabiltzen dituenetatik.

Agian, nolabaiteko bereizkuntzarik egitekotan erabiltako espresabidearen antzinakotasunari begira egin beharko. Baina guk ez dugu bereizkuntzarik egingo eta aintzinako herri literaturaren eta gaurko jazoeraren espresabide batzuk ikertuko ditugu, Mikelen estiloaren azterketa honetan:

1. Errealitatearen eragina: eta ez dugu puntu hau nobelaren kontzeptzioaren ikuspuntutik hartuko, jadanik puntu hori azaldu dugulako. Ostera, detaile txiki bezala agertzen diren ekintzei buruz tratatuko dugu.

Argi dago, nobelak maila baten bere inguruan gertatzen diren hainbat datu batzen dituela. Aberats gertatzen dira, batez ere, telebisio ondoan egiten diren giro biren deskripzioak, pertsonai ezberdinen egoerak eta eritziak baturik.

Baliogarriak dira baita ere, testuaren zehar agertzen diren pintzelada txikiak. Humorea sortu eta pertsonaiak deskribitzeko, jadanik dakigunez, erabiltzen diren eritzi eta esaerak.

Adibide lege, jarri ditzagun, trena arrankakerakoan, emakume anonimo hark egiten duen aitearen berria, sinonimen sariketan ostean batzen diren txiste antzeko eta eritzi guztiak, eta azkenez, aipatu dezagun gurarian oinarritutako eritzi hau:

“Nork lukean Aristoteles Onassisen dirua, baso-zaldien askatasuna, elefante baten bizitza, zezen baten indarra ta oilar baten ahalmena” (HM, 92).

(27) Seminario lagunak honen lekuko.



Esaldia esajerazioa bihurtuta dago, baina ezin dugu ukatu testuak imajinazio mailan duen indarra.

2. Mikelek herri literaturari dion maitasuna ageri ageria dugu nobelaren zehar. Euskal mito eta ipuinak (Kixmi, Mikelats), errefrauak (HM, 67, 81), bertsoak eta abar, herri literaturaren ezaugarri azalenekoenak ditugu. Sakonean, literatura erabiltzen dituen narrazio teknikaren kontzeptzio bat ere ba datza. Baina bego hori geroagorako.

3. Teknika horren parekoa dugu leku-denboraren etendura, euskal olerki herrikoietan hain erabilia dena (28). Kontuan hartzekoa da baina, teknika berdina azken urteotako nobelan oso erabilia da.

Leku denbora etendura hauek ez dira oso osoak izaten, beti egoten da alde biak batzen dituen hariren bat.

Era biko batasun teknikak erabiltzen dira:

a) Inguru berdin baten pertsonaia ezberdinen joerak. Ekaitza denean (HM, 25) adibidez, Olazarrekoelek telebisioa itzaltzen dute, eta kandela bedekatu bat biztu; hauzoko Tomasek kartak botatzen ditu, eta Don Julianek ez du ezer egingo. Teknika berdina telebisioaren aurrean partidua hasteko dagoenean (HM, 131).

b) Lotura beste batzutan konkretuagoa izaten da eta leku batetik bestera garamatza:

“Trenaren txistu hotsa entzun da Don Jose zaharrak sermoia bukatzean, Aitearen egin ta esan duenean” (HM, 76).

Horrela iratxoak estaziora joateko aukera du, txistu hotsaren aitzakiaz.

4. Sasi hizkuntza, sorgin hizkera ere oso erabilia da nobelan. Balio estilistiko garrantzitsu bat ematen dio gai-

(28) *Brodutzen ari nintzen* poema gogoratu baino ez dago.

nera. Don Trifonen serbitzairak baliatzen dira beti hizkuntza honetaz, ulertuezinak bihurtuaz herriko jendearentzat. Beste hizkuntza bat darabilte eta ez dut uste sinbolizazio hau argitu behar izango dugunik, oso argi bait dago.

5. Ezizena ere teknika oso herrikoa dugu. Azterketa sakonik ez dugu egingo, baina esan dezagun, gehien baten idazlearen deskripzioaren konfirmazio bat, baiez-tatze bat baino ez direla izaten; indargarriak dira, baina normalean ez dute pertsonaiari buruz berririk ematen. Fisiko aldetik ba doaz batzuk, pertsonaiaren gogoaren deskribitzaile direnak ere ba dira.

6. Hurrengo teknika oso klabea dugula uste dut. Izadia deskribitu behar duenean espresabide bat oinarritzko bihurtzen du: izadiaren pertsonifikazio da izadi deskripzioetan gehien erabilitako espresabidea. Izadiko elementuek giza-antza harturik oso tonu afektibo bat lortzen dute:

“Eguzkia) laino artetik, arte murriztu eta ziztrinen barna, zeharka dator; etorri da. Eta maitekiro musukatzen du bere ama lurra, ta kolore berriz jantzi” (HM, 84).

Horrela deskripzioaren azpian izadi baten ikuskizun idealizatu bat egongo da, zihur asko. Baina ezin ditugu uka horrelako deskripzioak barnean daramazkiten sujerentziak.

Joera honek antropomorfismoarekin duen zerikusia ere klabea bihurtzen dela uste dugu, Mikelek duen herri literaturaren influentziari buruz hitz egiten dugunean.

7. Herri espresabide honen ezaugarri ere ba ditugu maila apalago batean, oso zehatzak diren hurrengo hiru ezaugarriok.

—Klitxe linguistikoen erabilera:

“—Ba zera..., ni ohean egon naiz, eta... Gure Paulin... Ba, zera... Koldo zuena ta” (HM, 26).

—Izen sintagmen amaierak luzatzea:

“Gure denboran a...” (HM, 13).

—Hitz-hots eta hitz jokoak ugari.

Ahozko hizkera batera urreratzen laguntzen diote honelako espresabideek, hain zuzen.

## 7. ITURRIAK

### 7.1. Erdal idazleenak. 7.2. Euskal idazleak.

Mikel Zaratek nobela honetan dituen iturriak aztertzeke edo nolabait, iruditzeko, ba dugu nobelan bertan esaldi giltz bat:

“—Nortzuk izan dituk maisu?

—Idazle zaharrak eta herria” (HM, 53).

Ez dugu, ez zehaztasun handirik erantzun horretan, baina behintzat bide bi markatuta ditugu bere lanaren aztertzaileek.

Aurreko orrietan zehar herri literaturak eta herriak berak Mikelengan zituzten influentziak aztertu ditugu. Bego hemen, bada Lezama aldean jasotako hainbat esaldiren konstatazioa. Entzundakoak dauden bezala sartzen ditu bere nobelan.

Momentu honetan gaitz izango zen denen aipamen bat egitea, bestalde Lezaman ikerketa bat egin beharko genuelako. Baina konstatu ditzagun: Juanen irteerak (HM, 17, 18, 45-46), Gregoriok ezkontzari buruzko eritziak (“Ezkondu? Taxiak dagozan artean, zertarako autoa erosi?” HM, 41), aitearen nabarmen hura (HM, 76), eta hainbat eta hainbat hizki-mizki. Benetan, herriak bultzatu zuen Mikel idaztera, eta argi dago bere literaturan haren aztarna dela.

Idazle zaharrei egindako aipamena, baieztatzea Mike-len lanen kontestuan jarri nahi du.

Nobela hau, *Bizkaiko Euskal Idazleak* idatzi ta argitaratu ondoren egina dago. Literaturaren kondairaren

liburu honek egitura berezi bat du. Lehendabiziz, idazlez idazle, bizitza eta lanei buruzko informazioa dakar Mikelek, eta hurrengo, (Karmelo Etxenagusiak joera jarraituz, agian) idazlearen zatiren bat argitaratzen zuen, eta ez hori bakarrik, idazleen lanetatik hartutako esaldi bereziak.

Liburua prestatu orduan asko irakurriko zuen Mikelek; dena dela, argitaratu ostean, XIX. mendeko idazleak (Mogel, Aita Bartolome) asko aipatzen zituen bere kla-seetan.

Idazle onenak, agian, joserak trebe eta esakeraz beteriko estilo baten kontzeptzioa sortzeko aginduko zioten, bada. Baina ez dugu esaldi konkreturik aurkitu ahal izan.

Geroago aztertuko dugunez, ba dira euskal idazleen influentziak. Erdal idazleenak, baina, argiago agertzen dira, kontzeptzio aldetik, behintzat.

Amaitzeko, datu bat emango dugu: *Haurgintza mine-tan* gaur egun ezagutzen dugun eran, beste nobela baten refundizio bat edo azken bertzio bat dugu. Aurre-bertzio hori ez dugu ezagutzen. Jakin dakigu beste txapelketa literario batera bialdu zuela, baina ez zioten saririk eman eta, dirudienez, berriztu egin zuen.

Esan dugunez, ez dugu aurre-nobela hori ezagutzeko erarik izan eta ezin dugu aurre bertzio horretako aldakuntzarik aztertu.

Iturrien azterketa, bada, arlo bitara murriztuko da, erdal ta euskal idazleen influentzietara, hain zuzen.

### 7.1. Erdal idazleak

Iturriak direla-eta, Mikelek bere nobelan giltz bat eman zigun; erdal idazleen influentzi arloan ere berdin berdin jokatu du:

“Apostu bat egin dut eta nobela bat idatzi nahi nuke zorro bat bete. Hain zuzen ere, zorro bat da nobela, edozer gauza edozein erataria hartzen duen zorroa” (HM, 16).

Eta esaldiak nahi ta nahi ez iturri bat du: Baroja. Baina esaldiaren jabea donostiarra ba dugu, berau ez dugu Cervantesengandik datorkigun nobela kontzeptzioaren laburpen on baten asmatzailea baino, beraz, nobela zorro bat dela esatea, nobela orokorraren espresaera bat baino ez da. Esaldiaren azpian, nobela orokorraren kontzeptzioa dugu.

Baina kontzeptzio hori historian atzerantza bialdu ba dugu, esan beharra dago Cela idazlea ere, Barojaren bideetatik abiatzen dela.

Eta benetan hiru idazle ospetsuen aztarnak ditugu nobela honetan:

Lehendabiziz hartu dezagun zaharrena: Cervantes. Mikelen kontzeptzio literarioa zela eta, zerbait esan genuen, baina esaldia berriro aipatuko dugu:

“!—Aurtengo “Txomin Agirre Nobela saria” irabazi duenaren nobela nabarmen hori irakurri duk?”

—Lejarreneko Mikelena?

—Bai.

—Ez, oraindino ez” (HM, 53).

Benetako nobela fikzioa bihurtzen du pasarte horretan. Kixotearen bigarren aldean, pertsonaiaren abenturak argitaratu direla irakurri dezakegu; eta lehen partean abadeak-eta D. Kixoteren liburutegia arakatzen dutenean, Cervantes-en lan bat aipatzen dute. Jokoaren iturria argi dagoala uste dut.

Ilunago izango zen Cervantes-en herri joera Mikelen herri joerakin konparatzea. Mikelek herri literatura jasoteko zuen berezko eta aparteko trebetasun ezaguturik.

Errezagoa da, agian, olerkiak, eta kantak Kixotearen antzera nobelan sartu duela pentsatzea. Bide berdinetik

joango zen Mikelatsen ipuina. Kixotean ba dira "caballeras" generotik apartatzen diren nobela laburrak. Mikelatsen ipuina ere egituratik aparte dago, beste jenero baten saio bat ba litz bezala.

Datuok, bada, Cervantes-en influentzia argi agertzen dute Mikelengan (29).

Barojaren influentzia, goian aipatu dugun esaldian, eta esaldi hori salbu, ez da, gure ustez, argi ikusten. Bai, bai dira kontzeptzio berdinak izanik, estruktura aldetik zenbait berdintasun.

Saio usain bat ba du, bai, Mikelenak. Iratxoaren azken orrialdeetako egonezina donostiarrak erabiltzen zuen ekintzen teknika gogoratzen digute. Dena dela, influentzi nahiko lainotsu dago.

Gauza berbera gertatzen da Celaren influentzia zehaztu behar orduan. Idalze honek ere Barojaren kontzeptzioa jarraitzen bait du (30). Horregatik antza egon behar. Baina Barojarena baino argiagoa da Celarena, gure ustez. Eszena soltuak, bat ere hari baga bata bestearen atzean jartzeak (geroago ekintza behartzeko) lekudenbora etenak, kausilitate faltak momentu batzutan, narratzailearen mogimentuak, objetibo izateko gogoak, eta mundu oso bat (Madrid, Celen kasua) deskribitzeko ahaleginak, *La Colmena* nobela dakarkigute gogora.

Hari beretik jarraituz, nobela orokarraren estiloaren jarraitzaile handi bat dago Hego Ameriketako: Garcia Marquez eta bere *Cien años de soledad* nobela.

Argi baino argiago dugu Mikelek leku tratamentuan Garcia Markezen joerak jarraitzen dituela. Ez genuke

(29) Entzun dugunez, aldi baten Mikel *Kixotea* itultzeko asmoz ibili omen zen. Datua, Jesus M. Agirreri zor diogu.

(30) Baroja eta Celaren arteko erlazioa onak zirenik ezin uka, Cfr. Caro Baroja: *Los Baroja*, liburuaren egiten duen aipa mena gogoratu baino ez dago 372. or. Taurus 2. argitalpena.

esango leku deskripzioetan, leku kontzeptzioan baizik. Macondok eta Ekidazuk ba daukate zerikusirik: munduaren sinboloak izatea leku konkretu baten ezaugarriak ahaztu baga (31).

## 7.2. Euskal idazleak

Goiago aipatu dugu: liburu hau idatzi aurretik, Mikelek Bizkaiko Euskal Literatura irakurri zuen *Bizkaiko Euskal Idazleak* liburua idazteko. Duda baga, idazleok bere marka utziko zuten. Baina momentu hauetan ezin dezakegu testu paralelorik aurkeztu.

Gain girotik influentzi nagusi batzuk zehaztu ditugu lehendabiziz.

Barneko influentzien artean, aipatu ditugu joskerarena. Esakerak ere bide bera izango dute. Baina, Mikelek *Bizkaiko...* liburuan zehatz egindako hautapenetan humorea darioenek kopuru polita betetzen dute. Idazle zaharrek egiten zuten antzera humorea erabiltzen du narrazioan tartekatuz (32). Humoretsua izan zen Mikel: idazle zaharregandik ez zuen gauza berri legez hartuko. Baina agian, hor ikasi zuen humorearen funtzioa.

Berrero ere idazkera batetan hiru uhinekin urak batu dira: bere izaera, herritik jasotako influentzia, eta idazle zaharregandik hartutakoa.

Beste teknika batek, gutxienez, aita ezagun bat du: Txomin Agirre. Batez ere, pertsonaiaren deskripzioaren teknika bat ondarrutarrak erabili zuen arinago, eta Mikelek bere *Euskal Literatura I* liburuan aztertu zuen.

Bertan, T. Agirreren teknika hori eskolastikaren tentsamoldeen joera bat zela esaten zuen Mikelek. Teknikok

(31) Idazleok Jakin 11.-ean aipatzen ziran, Mikelen iturri legez.

(32) Juanen irteerak ditugu adibiderik argienak.

Agirrek hainbat pasartetan erabili zituen. Lehendabiziz, eritzi orokor bat eman, geroago adibide bat edo gertaera bat kontatzeko (*Kresala*-n ezizenei buruzko pasarte eza-gunean). Ber-bera egin du Mikelek Juanen erretratua deskribatzerakoan. Eritzia eman ostean, pertsonaia eszena txiki baten ikusten dugu, eritzi hori sendotzen.

Anjel Lertxundiren *Ajea du Urturik* (33) liburua datorkigu gogora Mikelen *Haurgintza Minetan* liburua-  
ren iturriak aztertzen gabiltzela. Giro bereko nobelak, influentzi berdinak (García Marquez) eta sinbolo joera berdinetik abiatzen direnak.

(33) Anjel Lertxundi: *Ajea du Urturik*. Etor 1971. Nobela honek 7.zb. du Etor Sailean eta Mikelenak 21. Urte bete arinago idatziz.

## 8. AZKEN ERITZIA

### 8.1. Akatsak. 8.2. Baloreak. 8.3. Haurgintza minetan: Utopiarantza lehen pausoa.

Azkenez, lanaren balorazioa eman nahi genuke. Nobelaren aldeko baloreak eta akatsak, gaine-gainetiko laburpen batez.

Eta azken irudi honetan, uste dugu, lanak ezaugarri klabe bat duela: anbiziotsu izatea. Bere neurrientzat larregi da idazleak egin nahi izan duena.

Ezaugarri hori da, gure ustez, nobelaren motorra, eta berak eragin ditu nobelaren alde onak eta txarrak. Gitxi ikutu nahi horretan nobelak hainbat gai interesgarri ikutzen ditu, teknika ezberdinez. Baina beste alde batetik, ba dirudi idazleak ezin izan duela hamaika detailatxo hoiekin, ikuspegi bat lortu, batasun arazoa ez duelako gure ustez, ondo borobildu.

### 8.1. Akatsak

Hementxe datza nobelaren alderik ahulena. Batasun artifizial horrek, agian, indartu egin ditu sekuentziak. Deskripzio eta historia laburrek (Simon, Akelarre, batzarrak, hitz sariketa) daramate nobela barnean interesaren pisua. Eta nobelak aurrera egiten badu edo irakurleak aurrera jarraitu, gorago aipatu dugunez, ez da iratxoaren historia jarraitzen dugulako, Olazaharrenekoen familiari buruzko pistak nobelaren zehar agertzen direlako baino.

Beste aldetik, eta hau ere akats artean, azpimarkatu

behar dugu nobelaren sortzen den tentsio falta. Frogatu dugunez, teknikarik erabiliena kontrastea da. Kontrastearen bidez, burrukak sortuko zirela pentsatzeko bide ginen. Baina, burrukak eta tentsioak egon ba dira nobelaren barnean; nobelaren klimaxeraino (Txifa txakurrik arrabiaturik, Olazaharrera dijoazenean) ez da benetako burrukarik ematen. Dialektikoak bai, baina ez nobelaren agertzen diren taldeetatik espero genuena.

Adibide batzuk emango ditugu:

1. Koldo eta Andoni Don Trifonekin direnean (HM, 62-63) ez dago behar den garrantasunik. Aurrez aurre daude talde biak, baina elkarrizketan, Andonik Don Trifonen ezizena erabiltzen du. Oso topifikatuak dira esaldiak, eta mehatxuak ez dute bildurrik ematen. Bigunegiak dira eszena hau deskribatzeko.
2. Akelarrean gazte taldearen barnean talde bi agertuko dira (HM, 32-35). Baina taldeen burruka lagun artekoen diskusioa dirudi. Biak datoz batera, eta eztabaidak ez du luzaro iraungo.
3. Beste burruka bat dugu Hitz Sariketa dela-eta (HM, 107-111). Baina pertsonaiak askoz ere berba gehiago egiten dute, burrukan baino. Eta burruka bera hitz-hotsez estilizatua dago, indarra galduz.
4. Agian, nobelaren zeharreko burrukarik argiena Koldok eta Andonik egiten dutena da. Eta idazleak ez dio irteera faltsu bat baino ematen. D. Trifonek bere burua hiltzen du, Andoni hilda agertzen da, Koldok ihes egiten du. Nobelaren zehar diren aurre-aurrezko planteamentu guztiak ez dira bukatzen, burruka ez da inoiz odoltzen.

Laburtuz, bada, batasun eta tentsio falta dira nobelak dituen akatsik funtsezkoenak, gure ustez. Agian, nahi izan duen guztia idazteko, neurri zabalago bat, orri gehiago, behar izan zuen Mikelek.

## 8.2. Baloreak

Baina, dena, dela (eta hau aurretiaz esan beharra dago), nobelak funtzionatzen ba du, eta funtzionatu egiten du, hiru arrazoi nagusigatik da: hizkuntza, teknikak, humorea.

Mikel Zaratek, euskara oso ondo ezagutzen zuela ez dago probatu beharrik. Bere euskarak mila tonoz ezberdin, amaika espresabide herrikoi, eta joskeran nagusitasun bat zituela argi geratu zaigu bere estiloari buruzko azterketan.

Tekniken artean, aipagarriak ditugu, azken laburpen honetan, pertsonaien deskripzioak, eta kontakizunaren mailak. Gure ustez, nobela teknika aldetik aberatsa da. Aberatsa ikutzen dituen mailetan, eta idazleak bere inguru (pertsonaiak, jazoerak, paisajeak) jasotzeko duen trebetasunean. Behar bada, hementxe datza nobelaren aldeko punturik argiena: idazleak bere kontakizunean gaiez gai garamatza eta irakurlea ez da nekatzen bidaia honetan. Hainbat jazoera, hainbat pasarte. Eta pasarte bakoi-tzak, era ezberdinez, barnean darama liluratze indarra.

Nobelaren sekuentziek salbatzen dute nobelaren interesa.

Baina ba dago interesa hausteko beste teknika bat. Gure egitura azterketan espektatibak eta laburpenak deitu ditugu. Bertantxe ikusi genuenez, Amaia eta bere semearen historiak ere amaiera faltsu bat du. Hori, ordea, alde batera utzirik, espektatiba sortze horrek nobelaren barnean irakurlearen interesa mantentzen du.

Humorea azkenez, liburuaren beste habe bat dugu. Azterketa honetan ez diogu gain begirada bat baizik emango, baina, agian ezin dugu bere funtzioa ahaztu, herri literaturarekin hain lotua bait dago, bere funtzioa alde estilistikotik begiratzen ba dugu. Baina gai aldetik begiratuz ere, oso garrantzitsua bihurtzen zaigu nobelaren barnean.

### 8.3. Haurgintza minetan: Utopiarantza lehen pausoa

“Ni isilik nago ikusten, entzuten eta idazten” (HM, 110).

Hauxe da, azkenean idazlearen posizioa: neutrala izan nahi duen ikuspegi bat, inguruaren deskripzioa, bere lehen nobela honetan.

Deskripzioa gaitzat bere lehen nobelan, eta utopia, mundu berri baten eraiketa, azkenez publikatu duen lanean (34).

Analisia da ekintza baten hasteko lehen pausoa, gero inguru horren, gizarte horren kontradizioak argitzeko, kontradizioetatik zehar jarraitzeko. *Haurgintza Minetan* / analisia dugu. Idazleak eta narratzaileak ikuspegi neutralean irauten dute azken kapituluraino

Helburu berdinekin hasten da bere *Ipuin antzeko*, parte ez hartzeko asmoekin, baina jadanik mezua askoz ere gardenago entzuten da. Liburu honetan hasi zitzaigun Mikel berak nahi lukean munduaren irudia egiten, utopia eraikitzen.

Baina utopia horren ezaugarriak hazi bezala agertzen dira *Haurgintza Minetan*, bere lehen nobelan.

## BIGARREN ALDEA IPUIN ANTZEKO ALEGI MINGOTSAK

(34) M. Zarate: *Utopiaren fantasian*. H. Altuna, Donostia, 1979.

## 9. IPUIN ANTZEKO ETA HAURGINTZA MINETAN

Sailtxo honetan lan konparatibo antzeko bat egin nahi dugu, prosa lan biak teknika arazo batzutan konparaturik.

Batasunaren prolema nolabait gaindituta geratu da ipuin liburuan. Batasuna apurtu egin da. Ez dago ekintza bakar bat, gizarte baten analisia egiteko asmo bat egon arren liburu guztiaren zehar.

Ipuin txikien txorta batetik osotu da liburua. Batzuk besteak baino luzeagoak dira, baina luzeena ez da duda bada, nobela labur baten izena hartzeko gai.

Horrelako planteamentu batek, hasieratik uzten du alde batera lan guztian batasun bat egoteko asmoa, argi dagoenez. Baina, honek ez du esan nahi lan guztian ez dagoenik tonu batu bat, helburu bat eta gizarte honen kritika egiteko nahia. Gai begirada batean, *Ipuin antzeko...* liburuak ez du desekilibrio inpresio bat ematen lan ezberdinez osaturiko lana izan arren ere.

Batasunaren prolema ez da, bada, liburu guztiaren prolema. Baina, ba dago lan honetan egitura orokor bat legez funtzionatzen duen egitura bat: nonbaitetan "es-truktura manikeoak" deitu izan den egitura:

"Alde onaren eta txarraren arteko borroka gai amaiezina dugu ahozko euskal ipuinetan, eta herri antzerkian ere, pastoraletan eta, hori dugu gai nagusia. Bikoiztasun hori forma mailan, pertsona biren arteko eszena diren ipuinetan isladatu du Mikelek...; orobat, erdi bi dituzten ipuinetan Espaini eta Euskal Herriari buruzkoetan. Hemen, nabarmentzen dugu batez ere, bikoiztasun hura." (1).

(1) KORTAZAR: *Jakin*, 11.



Baina momentu hauetan, egitura mota bi bereiztu behar ditugu: egitura bikoitz hoiien artean, kontuan izanik gainera, alegiak eta herri estetika batek, mezuaren argitasunaren menpean jartzen duela bikoiztasun hori.

- Lehendabizikoa egitura manikeoa izango zen, hau da, etika eta moral aldetik, pertsonaiak on eta txarren artean banatzen dituen ipuinen egitura.
- Eta bigarren, etika edo moral alorreko aurrez-aurreko borrokarik ez dagoenean baina, hala ere, egitura simetrikoak diranean.

Horrela bada, egitura alde bi ditugu, bakoitza bere berezitasunarekin, baina biak bide simetriko bat jarraituaz, didaktismoaren arauera.

Dena dela, berezitasun honi interesgarria deritzagu. Alde batetik, “manikeo” hitzak, teknika mailan duen desprezio usainez kendurik agertzen da, eta bestetik, ipuin hauek egitura mailan duen aberastasuna azpimarkatzen digu.

Egiturak direla-eta ba dago Mikel Zarateren liburu honetan, *Hurgintza Minetan* liburuarekin konparatu ezker, berritasun bezala agertzen diren hainbat puntu.

Alde batetik, narrazioa murriztu egin da. Hau da, *Hurgintza Minetan* dala-ta, azpimarkatu genuen ekintza eta akzioen narrazioa zela liburuko puntu ahulneteriko bat (2), eta punturik interesgarrienak zirela deskripzioak (pertsonaia deskripzioaren teknika aberatsa, batez ere, aipatzekoa dugu) eta transkripzioak (elkarrizketen transkripzioak).

Baita argi geratu zitzaigun, Mikel Zaraterengan simbolizazioa elementu klabe bat bezala jokatzen hasten zela.

(2) Gogoratu iratxoak Gezalatik ihes egiten duenean.

Narratzaileak, beste alde batetik, aberasgarria gertatu arren zenbait momentutan, ez zuen bere eginbeharra osoki betetzen, eta beste kasu batzutan, galduta bezala agertzen zen, erdi narratzaile moderno eta erdi tradizioanal. Tentsio batean aurkitu genuen espresabide hori: orojakile bat behar zuen idazleak eta, bestetik, gaurko nobela bat nahi zuen egin, teknika moderno bat bilakatu nahiz.

Azken baten: *Ipuin antzeko alegi mingotsak* liburuan egin duena, *Hurgintza minetan*-go akatsak zuzendu ta baloreak indartu izan da.

Mikel Zarate bera ere konturatu zela uste dugu. Hitzaurrean honelako hitzak jartzen ditu:

“Berrogei urteren bueltan eta berrogei egunean egin ditut ipuin antzeko berrogei alegi mozturitu mingotsok; bizitarik erdia (Egia balitz!) egin ondoren egin ditut, alegilari ospetsuen antzera, alegilari ospetsua izan ez arren” (3).

Bere heldutasunaren frutua dugu *Ipuin antzeko*, eta, agian, Mikel Zarateren libururik borobilena, eta ederrena.

Lehendabiziz, alde batera utzi du narratzailea. Edo behintzat, ez du narratzaile pertsonairik asmatu. Gehien baten, narratzaile espresabide honetan, narratzaile mota klasikoa darabil. Eta klasiko konsideratzen dugun ikuspuntua konbentzio honi lotuta dago: narratzailea disimularekin agertzen da, ez balitz bezala. Flaubert-ek egiten zuen bezala. Horrela kontakizunean narratzaileak ez dagoala ematen du. Cfr. figura hori, espresabide hori ipuin laburretan: “Menditza eta Menditxo”, “Baikor eta Ezkor”, hainbaten, ipuintxo hauetan ikusten bait da narratzailearen ikuspuntu klasiko hau. Baina era berdinez jokatzen du Mikelek ipuin nagusietan.

Narratzaileak inguruan ikusten eta entzuten duena deskribitzen du. Narratzailea objetiboa dugu, baina oro-

(3) Mikel ZARATE: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*. Leopoldo Zugaza. Durango. 1975. 9 or.

jakile izan behar duenean, orojakile bihurtzen da, bat ere erreparo baga.

Ipuinek espontaneitatez irabazten dute. Ez dago hemen irudi faltsurik, izaki mitologikorik aurkitu beharrik; narratzailea gaiaren menpean dago, eta gaiari begira eginda dago.

Adibide bat eman dezagun:

Narratzailea "Idatz eta Mintz" ipuinan aztertu baino ez dugu egin. Lehendabiziz, ipuinaren hasieran, narratzailea, pertsonaien kanpotik idazten du: txoriek diotena transkribituz:

"-Ei!!! Erranbidek bikiak izan ditu" (IAAM, 19).

Irakurleak narratzailearen beste daki kontakizunari buruz. Eta narratzailea (azpimarkatu dezagun anbiguedadetik ihes egiteko, narratzailea eta idazlea izanez, irudi ezberdin bi direla nobela batean, eta guk hemen narratzailea aztertzen gaudela) irakurlearekin batera enteratzen da pertsonai batzuren bitartez.

Baina narrazioa aurrera doanean, narratzailea orojakile bihurtzen zaigu:

"Erranbidek berak ere ez eban nai aiek banatzerik baiña... ez eban nai baiña... Ameseta asko egin eban Mintzek: "Bakarrik egoan gela argitsu baten. Eta gela argitsua izan arren, ez eban ia ezer ikusten. Itsutu egin eta zan ba? Ez ekian non egoan" (IAAM, 26).

Zita luzatu egin dugu azalpen baten bitartez, baina narratzaile orojakilearen irudia ondo aztertzeke egin dugu. Bere ikuspuntua barnekoa da, pertsonaiaren barne-  
tik egiten du hitz, ez dago kanpotik zer amestu duen jakiteko posibilitaderik. Pertsonaien barnean sartu behar izan du, orojakile bihurtu da. Kontura gaitezen kako artean hasten dela ametsa, transkripzio literal bat balitz bezala, baina egia esan, narrazioa dugu, aditzaren hirugarren pertsonak salatzen duenez.

Ikuspuntuaren prolema honen azken adibide bat ematerakoan, begiratu dezagun zita hau. Objektiboa da ikuspe-

gi aldetik, baina objetibotasun hori sentimentua munduratzeko bide dugu. Beraz, narratzaile klasikoaren adibiderik argiena:

"Goizaldean agertu zan astaita. Bide bazterrean ilda aurkitu ebela ta, ekidazuar batzuk ekarren, illotz. Iturri bi bihurtu jakozan bere begi ederrak astamari. Eta erdi zoraturik eta erdimiñetan arrantzaka asi zan (IAAM, 64).

Narratzaile objektibo horrek bigarren ezaugarri bat erabiltzera eramanez ipuinak. Pertsonaiek mintzatzerara. *Haurgintza minetan* baino askoz ere gehiago mintzatzerara. Ekintzen narrazioa lehendabiziko lerroetan mugatuta geratzen da. "Zer gertatuko den" itaunak sentidua zuen lehen nobelan, azken baten Olazaharrenekoen historiak balio handi bat zuelako lanaren barnean. Kasu honetan amaierak garrantzia du (nola ez?) baina narrazioa pertsonaia mugitzen diren arlo, muga bat baino ez da. Pertsonaia esanahiak du orain inportantzia.

Horrela dramatizazioarantza joera nabarmen bat lortzen da ipuinetan.

*Haurgintza minetan* liburuari buruz, esan genuen: burrukak ez ziren benetakoak, dialektikoak ziren. Gauza berbera gertatzen da *Ipuin antzeko...* liburuan. Burrukak gehien baten dialektikoak dira, baina hemen odola (Astaitaren kasuan) ere ba dago. Dena dela, *Ipuin antzeko...*ren elkarrizketek berezitasun bat dute. Askoz ere sinesgarriagoak egiten dira. Erretorikatik, eta karikaturatik aldendu egin zaigu Mikel. Xinpletasun gozo batez idazten ditu elkarrizketak.

Teknika honek badauka zerikusirik pertsonaien deskripzio teknikekin. *Haurgintza minetan* lanean ikusi genuenez, idazleak bere eritzia eman ondoren, pertsonaia elkarrizketan ari da, narratzailearen eritzia horrela indartuz.

Teknika guzti horren adibide den ipuin bat ba dugu: *Tutulu* (IAAM, 173-176). Adibidea: deskripzioa teknika-  
ren atea, baita ere dramatizazio teknikarena.

Hirugarren ezaugarri bat ere ageri ageria dugu, eta dramatizazioarekin zer ikusirik duena: Eszenen ugartzea. *Haurgintza minetan* liburuaren azterketan ondorio batera heldu ginen: gai aldetik, herri deskripzio mailan ziren eszenak askoz ere baliogarriagoak zirela ekintzak baino.

Bigarren prosa liburu honetan, eszenak gehitu egin dira. Ipuinak eszena bakar bat dira, eta luzeetan ugari agertzen dira.

Laugarren ezaugarritzat, intuizioa dugu. Hau da, herri baten ezaugarritzat jo ditzakegun ezaugarriak jaso eta estilizazioz traskribitu ditu Mikelek.

“Poema laburretan intuizioaren tentsioak poema osoan irauten du, ez bait dute hutsunerik edo atal dinamika gabarik... poema tikiotan intuizioak, esanahiak, formak baino indar handiagoa du” (4).

Poemari buruzko baieztapen hori ipuinetara ere berdinean aplikatu dezakegu. Didaktismoa da alegien helburua, eta didaktismo hori ipuinetan, nobelan bain hobeto mamitzen da. Ipuin txikiotan esanahia zuzen doa, berri egingo zaigun amaiera batera.

Bostgarrenez, sinbolizazioaren eragin indartsua azpimarkatuko genuke. *Haurgintza minetan* liburuan sinboloak eta arketipoak bereiztu genituen. Arketipoen desagertzea (“Txirorik txiroena” liteke, agian, arketipo baten erabiltze bakarra liburuan) liburu honen onerako jo du.

Sinboloak, beti, askoz ere sujerenteagoak dira. Esanahia interpretazio gaia bihurtzen da horrela, eta hori ezin dezakegu egin arketipoekin. Joera honek liburuaren esanahiaren aberastasunaren alde jokutzen du.

Eta, bukatzeko, gai aldetik egin den sakontze saioa aipatu nahi genuke. Gaiak jadanik, ez dira herri honenak

(4) *Jakin*, 11. 65 or.

bakarrik, herri honetan gertatu arren. Sinbolizazioak asko laguntzen dio gaiak unibersalizatzeko. Baina ba dira beste konponente batzuk ere: “Aberetasuna eta Aberekeria” (IAAM, 45) ipuinak giza izaeraren prolematika bat azaldu nahi du. Horrelako joera sakonik ez zen nobela luzean agertzen.

Sakontze horren adibide argi bat emango dugu. *Haurgintza minetan* nobelan euskararen prolema lexiko arazo mailan (Hitz sinonimoen sariketa) eta ortografia arazo mailan (Amaiaren ametsa) agertzen zen azaldua.

*Ipuin antzeko* liburuan *Idatz eta Mintz* dugu, euskarari buruzko ipuina, eta hemen arazoaren sena jotzen da: aldakuntza linguistikoaren ondorioak, idazti eta ahozko hizkuntzaren arteko jauzia eta hizkuntzaren izana eta etorkizuna. Argi, arazoa sakonagoa da.

Beste adibide interesgarri bat ere ba dagoela uste dugu. *Haurgintza minetan* nobelan arazo politiko eta Estatuaren zapalkuntza Jopu txakurraren sekuestroan eta txifa txakurren borrokan agertzen zen. *Ipuin antzeko...*-k ere ba dauka arlo horrezaz ipuin bat: *Ekidazuko Astasendia*. Baina nobelan karikatura zena (Andoni eta D. Trifonen arteko elkarrizketa) hemen poesia, eta argitasun faltak eman lezaken zihurtasunez jantzirik agertzen da. Kontu ze moduz kontaktzen duen astaitaren erahilketa. Estatu baten indarkeria ez da inoiz hainbeste fintasunez euskal Literaturan azaldu:

“Gautu baino lehen egin eban alde astaitak batzarretik. Baina gautu ta gero ere ez zan agertu astategian.

Astama zain egoan.

Goizaldean agertu zan astaita. Bide baztarrean ilda aurkitu ebela ta, ekidazuar batzuk ekarren, illotz” (IAAM, 63-64).

Hauk ditugu, bada, ondorio bezala, teknika aldetik prosa liburu bien artean aurkitu ditugun berezitasun aipagarrienak.

## 10. GAIAK

### 10.1. Gai politikoa. 10.2. Giza izaera. 10.3. Hitzaren zikloa. 10.4. Gai filosofikoak.

Gaien zerrenda marka batek ez du zerrenda bezala ezertarako balio izango, bere-berean beste baga. Baina beharrezko iruditzen zaigu, hainbaten gaien bitartez Mikel Zarateren erizpide nagusiak aurkituko ditugulako, zihur asko. Eta askotan, klabe nagusiok beste bide bat zabalduko digutelako.

Nire ustez, gai nagusiak honexek dira:

- GAI POLITIKOAK: Ipuin nagusien eta gehien erabiltzen den gai mota. Beraz, orohar, gai honek gaur egun politika mailan bizi ditugun arazo nabarmentok ikutzen ditu.
- HUMANIZAZIO/DESHUMANIZAZOA: Agian, apaiz izateak ere gai honetan parte handia izango du, baina gai aldetik, mezu honek gizon irudi bat sortu nahi du, edo behintzat gizon/izadi lotzen duen katea eten baga iraun dezan bilatzen du Mikelek. Beraz, hemen planteatzen den bezala, Hiria/Izadia arteko lotura ez apurtzea bilatuko luke.
- HIZKUNTZA ETA LITERATURA ARAZOAK: Idazle legez, Mikel Zarateren bizitza bera aztertzen eta azaltzen duen gaia. Beraz, gaiaren bitartez, bere "Literatura-teoria"-z jabetuko gara.
- HERRI-JAKINTZA: Zehaztasun faltako zorro handi batean sartzen ditugu hurrengoko ipuinok.

Hain zuzen, herri filosofia praktikor bat erakusten dute gaiok. Ipuin laburrenak dira, eta adar bitan banandu dezakegu:

- Herri literaturatik hartutako gaiak.
- Mikelen pentsamolde eta irudiak.

Baina, dena dela, argi dago lau ziklo nagusiok ez dutela gaine-gainetiko ikuspegi bat baino ematen, eta horrela bada, zehaztasun gehiagoz ikutu beharko ditugu lau ziklook.

### 10.1. Gai politikoa

Gai hau osotzen duten ipuinok honexek dira: 2, 4, 9, 21, 31/5, 8, 24/11, 17/18/23. Ez da ipuin gehien ditun zikloa, baina luzeeraz argi dago, ipuinon esangura garrantzizkoa dela liburuan zehar. Heuren luzeera handienetarikoa dugu.

Gai politikoez, kontutan hartzen dute herri legez dugun egoera, egoera politikoa, jakina. Beraz, gai orokorrak tratatzen ditu, ahal eta jente kopuru handiena onartu ditzan. Herri hontan mezu politikoak ematen direnean, beti aurkituko dugu arrisku bat. Hau da: jente erdiari ez gustatzea mezu hori. Mezua Euskal Herriari dagokio eta Euskal Herri guztiko jentearengana heltzea bilatzen da. Horregatik, bada, eta kriterio pedagogiko bat jarraituz, gai politiko horietan arazoren muinera jotzen da, beste baga. Oso argia dena azpimarkatu. Eta ezberdintsunen gai dena baztertu. Horrela, bada, gai politiko honek arazo nagusiak ikutuko ditu. Beraz, gai nagusi honen barnean beste sub-gai batzuk-edo kontutan hartzeak dira.

a) *Zapalkuntza nazionala*: liburu guztian gehien ikutzen den gaia dugu. Bost bider aipatua: *Bestelan ondo, Arrastaka, Ekidazuko astasendia, Serbitzarien serbitzari* eta *Erle ta Miru*.

Argi dago 2., 4., 5. ipuinek, herri honek sufritu duen biolentziari buruzko gai bat ekartzen digula. Zapalkuntza nazionala dugu horretan gai bakarra. Beraz, edozein abertzalek izenpetu ahal duen proposamena. Beste ipuin biak askoz ere zabalagoak dira esanahi aldetik. *Arrastaka* ipuinak ba du horrelako mezu politiko bat, baina ekinaren beharra sentitzen da baita ere ipuin horretan.

*Bestelan ondo* ipuinak argi uzten du zapalkuntzaren arazo hori; lehen edizioa konsultatzen ba da askoz ere argiago. Autoa lehen edizio horretan "ori ta gorri" dugu, bigarren edizioan kentzen den aipamena, saria ematen zuen kuxtaren indarrez, Mikelek esaten zuenez.

*Serbitzarien serbitzari* ipuina berriro erabili da *Bizipenen bultzadaz* poema liburuan. Gaiak berriro ere, bere anbiguotasunean interpretazio bideak zabalik uzten ditu. Gaiaren oinarria Seminarioan gertatutako anekdota bat da. Erretoreak esaten oi zuena da liburuaren gaia; ez larritu "los superiores estamos en ello". Oinarri honek *Bizipenen Bultzadaz* poema liburuan erabili den interpretazioa baieztatzen du, baina zapalkuntzarena ere posiblea da.

*Ekidazuko astasendia*-n berriro zapalkuntza argi argiro agertzen da, sinboloak pixka bat aztertzen ba dira. Beraz, Estatuaren bortzakeria erabiltzen da gai bezala, inbasioa elementu bezala, eta geroago, *Utopiaren fantasian* liburuak erabiltzen den esaldi bat: "Gurea da Ekidazu".

b) *Batasunaren beharra* gogor azpimarkatzen da politika ziklo honetan. Era bitan egin beharko dugu, edo ez ba dugu egiten, zorigaitza gertatuko zaigu. Horrela:

*Eskoikale, ezkerkale, erdikale*, eta *Robot bi* ipuinek ba daukate tesis honekin zerikusirik. Lehendabizikoan, izenetatik bakarrik agertzen da joko hori. *Robot bi* ipuina askoz ere ipuin markatuago eta ezagunago bat da. *Beste gari mota bat* ipuinak interpretazio bikoitza du: batasun

politikoa, edo batasun linguistikoa, baina batasun behar linguistikoa hori berpizte nazionalaren barnean sartu du Mikelek.

Nazio arazoak duen bigarren irtenbidea *lana* dugu. Askatasun guraria behin eta berriro agertzen da ipuin klabe bitan: *Arrankarien biurritasuna* eta *Ekidazuko astasendia*-n, zuzenki. *Ekidazuko astasendia*-n egoera eta gaia beste bidetik daramazki idazleak. Baina matxinda oso argia da ipuin horretan ere. Baina, *Arrastaka* eta *Arrankarien biurritasun* ipuinek, beste bide bat zabalitzen dute. Hain zuzen, batasuna eta lana. Lana, humila kasu baten, eta bestean, egoera normala eta kontsumistaren kontra doana horregatik *Arrankarien biurritasuna* dugu saio hontako ipuinik markatuena.

d) *Indarraren erreflexioa* oso garrantzitsua da liburu honetan, gorago ikusi dugunez. Estatuaren indarkeria oso tratatua dago *Ekidazuko astasendia*-n, bera dugu gaia. Beste ipuin bitan beste eratako indarkeri bi agertzen dira; militarra: *Sariketa nagusia*; eta ekonomikoa: *Zaldibi*. Dena dela, gure ustez, gaiok sakonegiak ziran horrelako ipuin labur bitan kontatzeko. Egia esan karikaturak dirudite. Oso azalekoak, benetakoak izateko.

e) Azkenez beste poematxo bat aipatu beharrean gaude. Eta hemen bai dugula *arrano* jauna zentzu politiko batean tratatua. *Txoriak arrano jaunari* ipuintxoan argi ta nabari dugu tonoa ironikoa.

## 10.2. Giza-izaera

Bigarren zikloa giza-izaera bati dagokio, eta azken baten dirudienez, giza-irudi bati. Beraz, liburu honetan humanismoaren adierazpide bezala, ipuin hau jarri dezakegu: *Aberetasuna eta aberekeria*, giza-sexua aztertzen duen ipuina. Beste guztiak, deshumanizazioa salatzen dute, deshumanizazio horiek hainbat alderditik begiratua:

- Kutsadura: erreka hiletan.
- Bizilekuen masifikazioa.
- Jantzera eta moden kritika.

Hain zuzen, ideologia mailan, gai hauek Mikel Zarteri hain maitagarri egiten zitzaion kontrajarpenaren ezaugarri dira. Izadi/hiria, edo hobe naturala/mekanikoa. Kontrajarpena, aberetasun/aberekeria ipuinaren estrukturan ikusi dezakegu, baita ere *Tximino ta Tximina*, ipuinaren bukaeran: bere izaera zaharra ahoz turik irtetzen dute “Corte Inglés” hortatik abere biak.

Izadia/Hiria kontrajarpena behin eta berriro, agertzen den gaia dugu. *Higidura Berdez* horrela egitaerata dago, Argi izan beharko dugu gai horiek gerra-osteko industrializazioarekin zerikusia dutela.

Hain zuzen, gaia ez dela gai literario hutsa bakarrik, ezpada ere errealtatearen ezaguera dela; eta, agian, influentzi nagusi bi ditu: alde batetik, literatura sozialaren eragina (nahiz eta oso matizatu egon figuratibismo eta sinbolismoaren eraginez) eta, bestetik, bere literaturan baserriak-eta daukaten eragina azpimarkatzen duela. Nire ustetan, Mikel Zartek oso ikuspegi liluratu zuen baserri izadiaren baloreez. Nahiko modernista, eta agian, gure gerraurreko poesiagatik oso ikutua.

### 10.3. Hitzaren zikloa

Hirugarren ziklo hau, hitzaren zikloa deitu dezakegu, hain zuzen, gaia ez da bakarrik linguistikoa, literarioa ere ba da; ez du bakarrik teoria linguistikoa orokorra egiten, baizik-eta, ipuinen baten (*Egiederko alegi*-n, Platonen hainbat ohiartzun duen ipuinean) teoria literario bat ere agertzen du, eta beste baten (*Tutulu*) lanaren balioa aztertzen du.

Teoria linguistikoari begira, *Beste gari mota bat* ipuinak batasunaren aldeko agertzen zaigu, batasun hori, linguistiko edo politiko ulertzen dela. Baina gai honetaz, ipuinik inportanteena *Idatz eta Mintz* dugu, eta hain zuzen, ipuin hau oso *anbigua* (nahi izan ezkeren interpretazio asko onartzen duen ipuina) denez, argi dago batasuna eta dialektalismoak arazo biak disparadero berdinean jartzen dituela.

Beste aldetik, teoria literarioa begiratzerakoan, *Egiederko alegi* oso alegi klabea dugu. Mezua, zer esanik ere ez, berriro ere orokorra dugu: herri literaturaren garrantzia. Baina ipuin honetan zerbait arraro ez? Sermoi ere, herri literatura ote? Hain zuzen, aukera hori egiteko arrazoi bi otu zaizkit:

- Idazlearen bizitza.
- Arrazoi literarioa: Erretorikaren eragin bezala, Erretorikaren legeen garrantzia markatu.

### 10.4. Gai filosofikoak

Laugarren zikloa gai filosofikoak betetzen dute. Gaiok, hiru iturri dituzte. Alde batetik, Mikelek berak asmatutakoak: bai prosaz, bai bertsoz. Ezaugarriak: txikiak dira, oso laburrak; intuizio baten espresabide. Poemetan, intuizioa humoretsua dugu, ironikoa, absurdo-rantzako joerarekin: Baikor eta Ezkor: bi mozkor. Txiorik txiroena.

Prosazkoak ere ezaugarri nagusitzat paradoxaren erabilera dute:

*Ni ez naz zu*

*Menditzar eta Menditxo*

*Trena eta Autoa*

*Arrastaka.*

Bigarren iturri bat, alegi klasikoak dira: Fedro, e. a. Alegiok, besteok baino luzetxoagoak dira, eta paradoxa erabili arren beste alegi batzuren euskalduntzea dirudite. Horrela: *Txorikumatxoa, Arratoiboda, Sai eta Otso, Tre-na ta autoa.*

Hirugarren iturria, herriaren errefracuak eta euskal literatoak dira. Honela, ba dira beste hiru Euskal Herriko literaturan oinarrituak. Hain zuzen:

*On egiñaren pagua*

*Ekinaren iruzurra*

*Esi arren*

Moralejarik argiena dituen ipuinek osatzen dute ziklo hau.

## 11. IPUIN ANTZEKO ALEGI MINGOTSAK: EGITURAK

Baten baino gehiagotan ikusi dezakegu orriotan zehar, *Ipuin Antzeko* liburuak duen klasiko joera. Nola-bait, alegi generoa aukeratzeak estruktura klasikorantza joatea bultzatu du idazlea.

Baina jadanik, ohartu denez, alegiotan kontaketa klasiko bat jarraitzen da. Hiru nukleotan banandu dezakegu gehien erabiltzen duen kontaketa klasikoa:

— Aurkezpena.

— Korapiloa.

— Amaiera.

“Mikelen kontaketak ez dira konplikatua izan ohi. Haria hasi eta zuzen-zuzen doa bukatu arte. Ez da zaila linealtasun horretan estruktura klasikoa nabaritzea: “aurkezpena, korapiloa, amaiera” delako estruktura, alegia.

Horrelako estruktura linealek desarroilo egoki baterako aukera eskeintzen dute Mikelen intuizioak, hainbeste aipatutako intuizioak urratsez urrats luzatzeko. Kontaketa narrazio laburrok dirudite Mikelen intuizioentzat desarroilorik naturalena” (5).

Estruktura klasiko hori erabiliena da izan ere, ipuino-tan, egon arren, beste mota batzuk, laster ikusiko dugunez. Cfr. bada, orain Egitura ESKEMAK (6).

(5) *Jakin*, 11, 58-59.

(6) Eskemok irakurtzeko: (A) Aurkezpena, (B) Korapiloa, eta (C) Amaiera. (+) ikurrak linealtasuna adierazten du, eta (↔) ikurrak elementuen kontrastea. Letraren bat kursiban agertzeak elementu hori besteak baino progresio luzeago bat duela esan nahi du. Hiru puntutxoek (...) elementuen errepetizioa. Eta azkenez, beste estrukturak ize-nez baliaturik sailkatuko ditugu.

EGITURA ESKEMAK

1



{ Baikor eta Ezkor  
Pozordu eta Minordu

2



{ Arrastaka  
Ni ez naz zu  
Txorikumatxoa  
Beste gari mota bat  
Arratoi boda  
Ezi arren  
Sai eta Otso




{ Robotak basamortuan  
Erle ta miru

3




{ Serbitzaileen serbitzari  
Egiederko alegi  
Tutulu  
Sariketa Nagusia

4



{ Zaldibi  
Uraren illeta

5



{ Bestelan ondo  
On eginaren pagua  
Trena ta autoa

6



{ Arrankarien biurritasuna



7

A + B + C...

Tximino eta tximina  
Aberastasuna eta Aberekeria

8

JARRAIPENA

Inauteri

9

FIGURATIBISMOA

Inurri pillaketa  
Kaioan

10

BERTSOAK

Txirorik txiroena  
Airano jaunari

11

SIMETRIA  
KONPLEXUAIdatz eta Mintz  
Ekidazuko Astasendia

## 1. A + B

Lehendabiziko estruktura honetan, ipuinik ximpleenak batu ditugu: Hau da, ia amaierarik ere ez dutenak. Tituluek ere (*Baikor eta Ezkor*, *Pozordu eta Minordu*) kontraktotasun hori markatzen dute. Ipuinok ia definizio bat baino ez dira:

“Baikor eta Ezkor  
bi mozkor” (IAAM, 43).

Bata (*Baikor eta Ezkor*) bertso eraz eginda dago, eta beraz, 10. tipoa sartu dezakegu. Baina kontraktotasunaren adibiderik argienetarikotzat dugu.

*Pozordu eta Minordu* ipuinak ba dauka amaiera antzeko bat, baina oso txikia, eta alde honetatik 2. estruktura eratakoen antzekoa dugu. Ezberdintasuna, agian, amaiera ez dela benetako amaiera baten datza, hirugarren instantzia bat konsultatzen da, eta ezer ez da erabakitzen:

“—Esan, esan ia, gizonei” (IAAM, 151).


Ez dugu beraz, amaiera borobil bat. Oraindikan galdera zabalik geratzen da.

## 2. A + B + C

Bigarren estruktura hau, liburuan gehien erabilitako eskema mota dugu, azken baten pentsatu behar dugu hurrengo eskemak honen aldakuntzak baino ez direla.

Jadanik dakigunez, eskemarik klasikoena dugu: Aurkezpena/Korapiloa/Amaiera. Nahiz eta eskema oso sinplifikatua izan, guk uste, balio du ipuinontzat.

Adibide legez: *Txorikumatxoa...* ipuina jarriko dugu.



Eskema honetan, kontakizunak, zuzen-zuzen jarraitzen du haria bat ere oztopo bagea.

Batzutan lehenengo egituraren antza dauka: Kontrastea erabiltzen du aurkezpena eta korapiloaren artean. Teknika hau *Arrastaka* ipuinan erabili da:

kontrastea

**ARRANOA ARRO      MARRASKILOA HUMIL**

Adibiderik markatuena *Basamortuko robotak* dugu (IAAM, 49). Lehendabiziko robota ankamotza da, eta bestea itsua. Ez dira batuko, heuren gorrotoak jarraitu egingo du ipuina bukatu arte:

“Azkenean ugerrak jan ebazan. Erdoitu egin ziran. Ezerez-tu” (IAAM, 50).

### 3. A + B + C

Eskema tipo honetan lehen elementua luzatu egiten da. Lau ipuin jarri ditugu eskema honen barnean, eta

banan banan ikusiko ditugu, lehen elementuan ematen den berezitasuna aztertzeko.

*Serbitzarien serbitzari* (IAAM, 107) ipuinean bildotsen protesta deskripzio eta parlamentu batez luzatzen da.

*Egiederko alegi* (IAAM, 137) kasuan jenero nagusien eta txikien arteko burrukaz; *Tutulu* (IAAM, 173) ipuinean pertsonaiaren aurkezpena “flash back” biren bitartez. Eta “Sariketa Nagusian” (IAAM, 89) karrera aurreko komentarioz eta karrera beraz. Korapiloa, azken ipuin honetan, Izkilu mahaikoengana doanean hasten da, gure ustez, horrela aurkezpena nahiko luze gertatzen da.

### 4. A + B + C

Aldakuntza bat baizik ez dugu eskema hau. Eta hemen ere banan banaka aztertuko ditugu kasu biak.

### ZALDIBI

A ZALDIBI

KALERIK KALE.

B ZALDIBI ←→ MERCEDES

SEAT TXIKI      TANKE

C ZALDIBIREN IHESA.

Zaldibiren kasuan korapiloa konplexotu egin da, Seat Txiki eta Tankeren parte hartzeaz.

*Uraren illeta*-k kasu konplexuago bat aurkezten du. Azken baten, urak “flash back” bat egiten duelako korapiloan, eta amaieran narratzaileak beste olerki bat sartzen duelako, berea ez den olerki bat, amaiera luzatuz.

## 5. A + B + C + D


Eskema hau ere ez dugu besteon aldakuntza bat baik. Eta hurrengoko eskemarekin duen bereizkuntza 6. atalan ikusiko dugu.

Laugarren elementu bat(D) jarri diogu 5. eskema honi. Eta ipuin bakoitzari arrazoi ezberdinekatik.

Lehendabiziko ipuinari, *Bestelan ondo* (IAAM, 15), azken momentuko olerkiak ipuinaren klabea ematen duelako (7) eta horrela beste amaiera bat jartzen diolako idazleak. "On eginaren pagua" (IAAM, 75) berriro aipatzen delako ipuinaren hasieran deskribitutako telebisio aurreko giroa.

*Trena eta autoa* ipuinak kasu paralelo bat jarraitzen du, eta ipuin honetan A B A B eskema jartzea hobeto liteke, agian.

Trenak eta autoak elkarrizketa bat dute:




Ikusten dugunez oso estruktura paraleloa dugu.

(7) Liburu honen lehenengo argitarazioa Etorren egin zen batuaz: ez zuen hainbeste ipuin, batzuk aldakuntza nabariak ditue. Beste batzuk, txikiak, ipuin honek bezala. Baina ipuin honen aldakuntzak arrazoi politikoei jarri dituzte.

## 6. A B C D. PROGRESIOA

Egitura mota honetan ez da paralelismorik ematen, ez dago "flash back" teknikarik. Hemen kontakizunak jarraitu egiten du baina momentu batean /C/ mailan hain zuzen, bigarren konflikto bat aurkezten da, eta amaiera zirudiena ez da amaiera izango:




Beraz, 5. eskemarekin duen aldakuntza nabaria dela uste dugu. Hemen, azken baten, pertsonai batzuentzat amaiera denean, beste bakar batentzat, benetako amaiera zoriontsu batera daraman bidea izango da besteen amaiera.

## 7. A B C...

Eskema hau jarraitzen duten ipuinek (*Tximino eta Tximina* IAAM, 129, eta *Aberetasuna eta Aberekeria* IAAM, 45) eskema paralelo baten oinarritzen dira. Eskema hori behin eta berriro errepikatzen da, eta *Aberetasuna eta Aberekeria* da guretzat adibiderik argiena. Atzizki bien arteko kontraesanetan oinarritzen da ipuina. Eta gainera aldrebesturik, paradoxa bat eraikirik: aberetasuna abereek azaltzen dute eta aberekeria gizonek.

Estruktura aldetik, pasarte bakoitzak jauzi egiten du gizonengandik abereengana.



Eta estruktura hori ipuina bukatu arte.

“Tximino eta Tximina” ipuinak beste bukaera bat du. Hemen zikloak ba du amaiera argi bat. Denda nagusi horretatik irtetzen dutenean zikloa bukatu egiten da.

## 8. JARRAIPENA

*Iñauteri* (IAAM, 157) dugu izenburu horrenpean jarri dugun ipuin bakarra. Ba dirudi idazleak helburu bakar bat izan duela, bere amets zahar bat lortu nahiaz: magnetofoi bat balitz bezala pertsonai batzuren elkarrizketa eta hitz jarioa hartu, beste barik. Pertsonaiek dira ipuina egiten dutenek, narratzileak parte txiki bat ere hartu barik.

Ipuinaren batasuna giroan eta gaian dago: inauteri bat adierazi. Gehien baten, elkarrizketa txiki batzuk osatzen dute ipuina, eta bata bukatzen denean hurrengoa hasten da. Pertsonaiak ere letra eta zenbaki batzuren ostean mozorratzen dira. Elkarrizketa jarraitzeko, letrak eta zenbakiak klabeak izaten dira, logika baten menpean baitdaude:

“M, 222: Zelakoa gura dozu?

N, 111: Zelakoa...?

M, 222: Iru eratakoak dagoz: omeleta, tortillea, arrautzopilla. Omeleta frantzesak da, tortillea, espainiolar eta arrautzopilla euskalduna” (IAAM, 160).

Ipuin honetan txiste txikiak, pentsamentu filosofikoak, matematika arloko formulak, eta hainbat elementu ezberdin (kantu, errefrau e. a.) batzen dira zentzurik ez duen hitz jario batean.

## 9. FIGURATIBISMOA

Arlo honetan Mikelek ultraismoaren joera jarraituz egindako poemak. Irudi bat eraiki nahi du tipografiaren bitartez, hona hemen jokoaren azken oinarria.

*Kaiolan jaiotako txoria* (IAAM, 135) dugu adibiderik argiena eta Mikelek egindako irudi-poemarik konplexuena.

## 10. BERTSOAK

Ba dakigu, jakin, goiko izenburu hori ez dugula egitura bat, literatura genero bat baizik. Molde honetan, bada, olerki genero bat erabiltzen duten ipuinak batu ditugu. Edo hobe, olerkigintza, generotzat hartu dutenak, kontuan izanik *Ipuin antzeko...* liburua prosaz eginda dagoela.

Egitura aldetik, dena dela, azpimarkatu ditzagun teknika edo joera nagusi bi: azkenerako uztea idazleak tentsioaren argitasuna, eta argitasun hori era bitaz agertzea:

– Azkenerako paradoxa ximple bat utzirik: Baikor eta Ezkor: “Bi mozkor” esate baterako; edo “Txironik txiroenak dirua baizik ez eukan”.

– Ala, paradoxa hori ironia bihurturik: *Txoriak arrano jaunari* (IAAM, 95). Bai, zeren, azkenean alegi hau ezin da perspektiba politikoa hartu bagarik, interpretatu.

## 11. SIMETRIA KONPLEXUAK

Azken izenburu honetan, ipuin bi batzen ditugu. Egitura aldetik liburu guztian aberatsenak eta konplexuenak dira, duda bagarik. Gai aldetik ere, garrantzitsuak, eta estilistika aldetik liburuan direnen artean ederrenak, agian.

Horregatik uste dugu komenigarria dela ipuin biak *Idatz eta Mintz* (IAAM, 19) eta *Ekidazuko astasendia* (IAAM, 51) egituraz zehatz mehatz aztertzea.

### 11.a) Idatz eta Mintz

Ipuin honetan bederatzi zati ikusten ditugu. Harrigarria ba dirudi ere, bederatziek irudi simetriko bat osotzen dute.

1. IZADIAREN DESKRIPZIOA. Txoriak berria ematen. Bikoitz bi jaio dira. IZADIA ZORIONTSU DAGO.
2. ERRANBIDEREN ETXEA. POZTASUNA. TELEBISTA, IRRATIA.
3. IDATZ ETA MINTZ PERTSONAIEN AURKEZPENEA.
4. EMAGINAREN ESANA: Ez banandu inoiz.
5. DUDA: banandu/ez banandu.
6. ERABAKIA: BANANDU / EMAGINAREN ESANA.
7. AMETSA. ZER DIRAN ORAIN / zer ziran banandu aurretik.
8. ERRANBIDERI ZORIONAK. TELEBISTA. IRRATIA.
9. MUSEOA / IZADIA.

Ikusten dugunez, egitura honek simetria argi uzten du, baina beste aldetik, gaiaren klimaxa aurrera doa, kontrasteen bidez gaia eta pertsonaien heriotzera.

### 11.b) Ekidazuko astasendia

*Idatz eta Mintz* euskararen prolematika, ikuspegi kulturalaren aurkezpena ba zen *Ipuin antzeko...* liburuan, *Ekidazuko astasendia* ipuinak ia politikoa darabil. Hemen ere egitura huts-hutsean emango dugu. Ez dugu uste, ondorioak argitzerik merezi duenik. *Ipuin antzeko-* liburuan joera klasikoak eta simetriarako joera demostratuta gertatu da. Beste aldetik, ikusten dugunez, Mikel Zaraterentzat gogokoak dira kontraste teknikak oraindikan.

Goazen bada, egitura desaroilatzera.

A = EGOERA ZORIONTSUA.

B = PIZTIEN MENPEAN. ZAPALKUNTZA.

A1 = ASTOKUMEEN IRAULTZA.

B1 = PIZTIEN ERANTZUNA.

C = ERPATITZA: Estatuaren zapalkuntzaren hasiera.

D = AZERIAREN HITZALDIA.

E = AZERIA ETA ASTAITA.

D1 = LEOIAREN HITZALDIA.

E1 = HILDA AGERTU ASTAITA.

F = SEME BERRI BAT. ITXAROPENA. IRAULTZAREN JARRAIPENA (?).

Interesgarria deritzogu ipuin honi. Alde batetik, joko simetrikoa doblatu egin duelako. Alde bakoitzean, simetria bat dago. Amaiera ezberdin bi diren artean.

Agian, kuriosoena egituraren diseinua dugu. Alde bakoitzean simetria bat baina simetriak ezberdinak:

A	B	A1	B1	C
D	E	D1	E1	F

Lehen aldean kontrasteak indar gehiago du, bigarrean, paralelismoak.

## 12. TEKNIKAK

### 12.1. Sinbolizazioa. 12.2. Elkarrizketa. 12.3. Kontaketa teknikak.

Teknika hitza erabiltzerakoan, zera adierazi nahi dugu: kontatzeko era. *Ipuin antzeko alegi mingotsak* liburuan erabiltzen diren "era"-k, zeri handia daukate liburuaren helburu nagusiarekin. Hain zuzen, didaktismoarekin. Definizioz dira didaktikoak Alegiak. Eta horrela jokatuko du Mikel Zaratek.

Baina teknika arloa azaltzerakoan, hiru arlo bereiztu nahi nituzke:

1. Sinbolizazioa.
2. Elkarrizketa.
3. Kontaketa teknikak.

Lehenengoz Mikel Zarateren ezaugarri, gure ustez, nagusienak aztertu nahi ditugu. Ondoren, edozein kontaketa beti agertzen diran: ikuspuntu, kronologia, iraupena; metodologia estrukturalista jarraituz.

#### 12.1. Sinbolizazioa

Nahiz eta, Mikel Zarateren literatura sinbolista dela esan izen hau ez datorke oso ondo egokitua, literatura sinbolista beste zerbait delako; XIXgn. mendean hasi eta, Europan zehar (eta Euskal Herrian Lauaxeta izango litzateke ohiartzunik argiena) zabaldu zen mogimendu poe-

tikoa; horregatik, sinbolizazio hitza erabiliko dugu Mikel Zarateren sinbolizazio eta alegoria joera izendatzeko.

Metodologia mailan lerrokada hau jarraituko dugu: hasieran sinboloen sistematizazioa egin eta gero balio literarioak aztertu.

Mikel Zarate sinbolozalea dugu, duda gabe, eta bere prosa lanetan argi eta garbi agertzen zaigun ezaugarri nabaria da. Sinboloak beharrezkoak dirudite alegiak idazteko momentuan. Horrela, bada, Mikelek generoaren mugak onartu ditu, baina ez mugok zerbait zabalduz.

Azpimarratu beharra dago sinboloen esaera politikoa. Eta ez lanaren alde politiko (zibikoa, hobe) gorestekoa. Ez. Irakurlearengan honek lortzen duen ohiartzunagatik baino. Hainbaten esan dugunez, mezuok orokorrak dira, irakurlego zabal batek onartzekoak.

Honek alegi generoaren helburuen aurrean jartzen gaitu. Hain zuzen, *literaturaren eragina* arazoaren aurrean. Literatura didaktiko guztiek literaturak gizartearen alde jokatu behar duela pentsatu dute. Baina, ideia hau Neoklasizismoarekin batera XVIII. mendean zabalitzen den ideia dugu. Egia esan, forma desberdinak hartuaz etorri zaigu proposamen hori.

Eragina *moral*a izan behar zuela uste zuten Neoklasizistek. Giza-izakiaren alde moralak, birtuteak aldatu gizartearen onerako.

Literatura didaktiko edo eragilearen bigarren alde literatura soziala dugu. Ondo dakigunez, *sozial* hitza, *sozialista* hitzaren eufemismoa baino ez dugu. Eta korrontea hobe izendatzen dugu *errealismo sozialistaren literatura* deiturarekin. Espainako gerra ostean zabaldua eta gure artean, batez ere (baino ez bakarrik) Arestik hedatua. Literatura honek ere, Gizartea aldatu nahi du, baina zentzu *politikoa* izan behar du literaturak, militantea, eta sozialismoa lortzeko tresna bihurtu.

Mikel Zaraterengana itzuliaz lehenengoaren aldeago dagoela aitortu behar. Ez dela bigarrena bezain zehatza. Baina lehenengoarekin ba daukala desberdintasunik ere. Ez da bakarrik moralak bere jokera, baina ez da argi ere sozialista. Agian, kulturalista deitu genezaioke bere literaturaren eraginari.

Baina literaturara bueltatuz, guzti honek ondorio argi bitara garamatza:

1. Mikelek Euskal Literaturaren Historian izan diren alegiarrien artean ikusten du bere burua: Mogeekin hasi eta nahiko luzea da Euskal Herrian alegiak idatzi dituztenen izen zerrenda. Mikel Zaraterenganako biren maisutasuna azpimarratu nahi nuke: Mogel eta Lauaxeta, nahiz eta bigarrenaren alegiak asko eta oso ezagunak izan ez, *Euzkadi* aldizkarian argitaratu baizituen, gerra aurretxoan.

2. Mikel Zaratek alegi generoa aldatu egin nahi du.

Bigarren hau sinboloen helburu estilistikoa aztertuz ikusi dezakegu. Hasi gaitezen:

*Ipuin antzeko...* liburuan agertzen diren pertsonaia alegorikoak honexek ditugu (8):

– *Izadia*: lore (2), ibai (13, 19), mendiak (16).

– *Abereak*: marraskilu (4), arrano (4, 18), uso (9, 35), astoa (9, 35), Leoi (9). Azeri (9, 29), txori (12, 18, 27), beia (12), katua (12, 26, 29), otso (14, 29, 31), ardia (4, 21, 34), txakur (21), inurri (22), arrankaria (23), tximino (25), arratoi (26), erle (31), sai (33), Papagai.

– *Mekanikoak*: Robotak (8), Kotxeak eta kotxe marrikak (11, 17, 14), gabarra (13), Tanke (11, 17), Traktor (17).

(8) Zenbakia, liburuan agertzen den ipuinaren ordenari dagokio, ez orrialdeari. Ikus: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*. Leopoldo Zugaza. Durango 1975-ko argitalpenaren aurkibidea.

– *Alegoriak, Izen abstraktoak*: Idatz, Mintz, Erranbide (3), kalea (5), Baikor, Ezkor (6), Egieder (28), Pozordu, Minordu (30).

– *Arketipoak*: Don Juan (10).

– *Espazio sinbolikoak*: Zezenlarru, Ekidazu, Kaleuri, Abereta, Piztiaga, Laisterbide, Basarteko Jauregi.

Zerrenda honen irakurketa nahiko interesgarria dela uste dugu. Zerrendak berak jadanik, lehenago izendatzen genuen tradizio/berritasun arteko burruka erakusten du.

Izadia eta abere izenak dira tradizioz datorkiguzan sinboloak. Kasu honetan tradizioaren pisua nahiko argi agertzen zaigu. Baina ba dago hor Euskal Herriko aberrengandik interes bat, ba dago pertsonaiak Euskal Herri-ratzeko saioa; hurbilak gerta daitezene-edo.

Dena dela, interesgarriagoa bihurtzen zaigu berria dena. Izen mekanikoez originaltasuna ematen diete alegiei. Agian, daturik originalena berau dugu. Irakurlearen mundukoak direlako, eta narratarioarengana hor egin den urbilketagatik. Horrela irakurleari (estilo arloan, astiroago ikusiko dugu puntu hau), kinu bat egiten zaio. Fikzioa eta errealtatea hurbilduaz, irakurketa prozesua erreztu egiten zaio, narratarioaren elementuak narrazioan jarriaz, interesa sortu arazteko.

Izen abstraktuek alegoriarako joera indartzen dute. Kasu honetan berritasuna, batez ere teknikoa dugu. Alegiaren joera, definizioz sinbolikoa da. Adibidez: azeriak, zuhurtasuna adierazten du. Mikel Zaretekin egin duena zera izan da: alegoria pertsonaien bitartez atondu beharrean, alegoriaren bitartez sortu, hitz abstraktoen jokoez.

Teknika ximpleak erabiltzen ditu: anagramak (Ekidazu), hitz konposaketa (kaleuri), sintagma (Egi-eder); baina kasu guztietan izenok maiuskulen bitartez adierazten dute bere izaera sinbolikoa.

Arketipoen kasuan ez dago zer komentatu handirik. Esan dezagun behintzat *Haurgintza minetan* nobelan ugariagoak zirela. Murrizketak, nik uste, on egin dio bigarren liburu honi.

Leku izenetan oster, nobelaren konstante batzuk nabaritzen dira. Ekidazu (Euzkadi-ren anagrama) dugu leku sinboliko nagusia. Baina *Ipuin antzeko...* bilduman hartzen du bere izaeraren ezaugarriarik mamintsuena. Dirudienez, *Ekidazuko astasendia* ipuina dugu Ekidazu definitzeko ipuinik hoberena.

Ekidazu ez dago Zezenlarrutik (“Piel de toro”: itzulpena argia da) urrun. Ba dago izadiaren ikuspegi idealizatu, agian aurrerako literaturaren eraginez, Txomin Agireren eragina zuzenago. Ba dauka ruralismo kutsua: “locus amoenus” topikoa erabiltzen da Ekidazu deskribatzerakoan.

Baina, liburu honetan, kalea, hiria, eta tentsioa ere Ekidazutarrak dira. Ekidazu garbi, ideala nahi luke Mikel Zaretekin, baina zikinkeria eta burruka ere Ekidazun ba direla ez du ukatzen.

## 12.2. Elkarrizketak

Demaiguzan ohartxo bi elkarrizketen eratzeari eta funtzioari buruz.

Argi izan behar; elkarrizketok herri hizkerara hurbilketak suposatzen dute. Egia da jendea ez dela hizketan aritzen Mikelek idazten duen moduan, eta euskal narratibak prolemak izan ditu hizkera hori traskribitzeko. Mikel Zaretekin saiatu egiten da ahozko hizkeraren traskripzioak matizazioaren indarra izan dezan elkarrizketetan. Esaldi soilaren presentzia, ateraldiak eta klitxeak: “Zer ba?”, errepikapenak, “ba” hitzak sortzen dituen espektatibak eta loturak, ondo erabiltzen zekizkian Mikel Zaretekin.



Funtzio aldetik, elkarrizketak *temati* agertzen dira. Beraz, gai aldetiko manikeismo eta burrukaren adibide eta irudi dira. Gaiari lotuak. Horregatik, beharbada, hainbat zaindu behar hizkeraren bizitasuna: gaian zegoelako mezua.

Hain zuzen, egitura aldetik ere ikusi dugu, ipuinek pertsonai edo talde biren burrukak azaltzen ditue. Aurrez aurre agertzen dira kontaktaren barna. Eta elkarrizketek dialektikaren formularik egokiena dirudite.

Eta hortxe dago elkarrizketak dituen arriskuak: itaun erretorikoz, esaldi laburrez, esklamazioz, esaerez, topikoz erretorika hutsa bihurtzea.

### 12.3. Kontaketa teknika

Kontaketa dela eta, nik gauza bakar bat esango nuke. Narraziook ba dute helburu pedagogikoa: euskaldunak euskaraz irakurtzen jarri nahi ditu Mikel Zarak. Ideia hau hainbaten errepikatu dugu. Baina oinarrizko ideia iruditzen zaigu: gai eta elementuak ideia nagusi horren morroi direla frogatu dugulako.

Beno ba, teknika ere ideia horren menpean jarri du. Kontaketa lineala da, nahiko klasikoa: "Mikelen kontaketa ez dira konplikatuak izan ohi. Haria hasi, eta zuzen doa bukatu artean. Ez da gaitza, linealtasun horretan estruktura klasikoa nabaritzea: "aurkezpena, korapiloa, amaiera" delako estruktura, alegia".

Kontaketa klasiko eta erreza, hitz bitan esateko, irakurleak errez jarraitzeko, eta bere helburu didaktikoa oztopo (aurrerakuntza tekniko), gabe lortzeko.

Esaten dugun guzti hau oso nabarmen agertzen zaigu kronologia, kausalitate eta iraupen arloetan.

Kronologia dugu teknikarik organizatuena, klasikoa. Ez dago denbora jauzi haundirik. Gerta liteke flash back-en bat agertzea, edo normalago izaten den aurreantzeko jauzi bat, baina abisua izango du beti irakurleak.

Kausalitatean ere horrelako zerbait gertatzen da: lehendabizi azaltzen dira kausak eta geroago ondorioak.

Iraupena dela-eta, ez dago ipuinetan, denboraren aztarna zehatzik. Ekintzak denbora baten jasotzen dira, noski. Baina ez dago marka zehatzik. Esaten da, bai zein *arotan* gertatzen den ekintza: udaberriean, udazkenean. Eta ba dira, baita ere, beste denborari buruzko datu orokorrago batzuk: gero, ondoren. Baina iraupen aldetik ez dago joko tekniko haundirik, ipuin luze gehienetan denboraren laburpena (hitz tekniko *kenketa* deitzen dena) erabiltzen da. Hau da, gertatutako guzti-guztia ez da paperean ezartzen; ekintza nagusiak aukeratzen dira, eta ipuina, gertatutako denboraren laburpena da. Ipuin laburretan, baina, isokronia espresabidea erabili da: denbora bera irautzen dute ekintzek eta fikziozko traskribapenek.

Iraupen (eta orohar, denboraren) tratamendu honek:

- Sinboloen erabilera indartzen du.
- Eta espazioaren garrantzia azpimarratzen du.

Baina, Mikel Zarate benetan klasiko agertzen den arloan, ikuspuntu teknikaren erabileran da. Mikel Zarak nahiko teknika flaubertianoa erabili du, Flaubertena, edo Cervantesena. Klasikoena.

Narratzaile hau heterodiegetikoa da: ekintzatik kanpo dagoena, pertsonaia bat ez dena. Baina, eta hemen datza klasikotasuna, hurbila da. Ez da zine-kamara hotza. Kanpotik, baina hurbiletik jarraitzen du ekintza; ekintzaren parte izan gabe, testigu balitz bezala kontatzen du. Neutroa ez dena, baina orojakilea ere ez dena.

Narratzaile, ikuspuntu teknika honetan erakusten du Mikel Zaratek inon baino hobeki agian, bere literatura kontzeptzioan bilatzen duen oreka zentzua.

## 13. ESTILOA

### 13.1. Zehatza-aberatsa. 13.2. Klasiko-erretorikoa. 13.3. Itxuraren hedapena. 13.4. Irakurlea gogoan.

Estiloaren arazoa aurrerago ikusi ditugun arazoekin lotuta dago. Batasun eta teknika arazoekin, hain zuzen. Batasunaren oinarri dugu estiloa, idaztanka berdina erabili bait da ipuinetan. Eta teknika klasikoak bultzatuz, estiloa ere klasikoa dugu.

Alde batera utziko ditugu estilo honen alde linguistikoak, gramatikalak, batua/bizkaieraren arteko egoera, e. a. (9). Ez gara, Mikelen hizkuntzari buruzko jokarak aztertzen ari. Hizkerari buruzkoak ditugu gaitzat. Estiloa, azken batean, hizkuntza baten erabilera zehatz eta pertsonala bait dugu.

Ba dago, halaz ere, alde batera utzi ezin dugun bigarren arazo bat: ulerkotasunarena. Aipatua dugunez, Mikel Zaratek irakurlea oso kontutan hartzen du idazteko uneetan. Edozein idazlek bezala. Baina kasu honetan, irakurle goaren arazoa ez da ximplea. Mikel Zaratek irakurle goa zabalena, ahal denik eta zabalena, nahi izan duela. Eta ez bakarrik zabalena, inoiz euskaraz irakurri ez duena, horixe ere euskaldundu, eta alfabetatu izan nahi du.

(9) M. Zarateren hizkera literarioen eritziei buruz ikusi:  
ZARATE, M.: Bergarako batzarra.  
ZARATE, M.: "Zuretzat Ritxar". *Deia*.  
ZUGAZAGA, Lontxo: "Mikel Zarate eta euskera: baturako bideak". *Euskeraren Iker Atalak*. Labayru. Bilbao. 1982. 129-151.

Gane genetik komentatzen ari garen arazook garrantzia dute, gaiak aukeratzekotan, gaien tratamendu humoretsuan, eta, zer esanik ere ez, estiloan. Eta hauxe dugu, ba, guri orain arduratzen zaiguna.

Hasi gaitzen lana jorratuz. Mikel Zaratek *Ipuin antzeko alegi mingotsak*-liburuan darabilen estiloa lau datu bitartez deskribitu dezakegu:

- Zehatza-Aberatsa
- Klasiko-Erretorikoa
- Anplifikatua: forma aldetiko hedapenez osotua
- Dei funtzioz baliatua.

Lau ezaugarri nagusiok ez dute larregi esaten azaltzen ez ba ditugu. Eta garauz-garau ez ba ditugu zuritzen.

### 13.1. Zehatza-aberatsa

Ezaugarri hau, bere generaltasunagatik, oso zaila izaten da definitzeko. Ezaugarria, dena dela, hiztegiarekin lotzen dugu. Beraz, estilo honek, idazkera, idaztankera honek darabilen hiztegia aberatsa eta zehatza dela adierazten dugu.

Hiztegi aldetik aberatsa dela esateak, hitz desberdin asko erabilten direla, eta gauza bakoitzari bere izena ematen zaiola adierazten badu ere, oso esanahi murrizta dugu.

Hori baino zerbait gehiago ba da.

Zerbait horrek ba du zerikusia orain agertzen zaizkigun hiru ezaugarriekin: deskripzioen joera, arlo semantiko zehatz eta, halan edo holan deitzearren, Axularren teknika deituko dugun sinonimiakin.

Deskribitzeko orduan, Mikel Zaratek *detailismoa* erabiltzen du. Ba dago inpresio nagusia, baina inpresio nagusi

si hori detaile txikiekin osotzen da. Hor ba dira inpresioaren joeraren aztarnak. Liburu osoan den adibiderik ederrenetarikoa jarriko dugu hemen: *Arrankariaren biurrikeria* ipuinaren hasiera (10):

“Basoaren andiko aldean, oso nagi egoan eguna, erdi lotan. Eta erdi lotan, basoko erreka baten ondoko illuna urratzen asi zen, astiro-astiro gogo aundirik gabe, garrasika.”

Deskripzio horretan agertzen da zer den detailismoarekin esan nahi duguna: elementu asko eta desberdinen pilaketa. Dinamismoa lortua izan da: giro aldakuntzez, eta izadiko izakien aipamenez. Dena sartu nahi izan da, dena dago agertu beharrean. Dena dago bizirik.

Hortik dator sinestesien erabilera: kolore, usain, mogimentu eta argiaren agerpena. Ba du deskripzio horrek lerro zehatz batzuk: erreka/erreka inguruak/txoriak eskemaren inguruan mogitzen bait du Mikel Zaratek narrazioa. Narratzaileak, bada, leku desberdinetatik kontatzen du. Aldaketok dinamismoa jartzen dute deskripzioan. Dударik gabe, deskripzioa liburuan daudenen artean “politena” da. Beharbada, ez ederrena. Luzeegi gertatzen da eta preziozismoak marierismo joera utzi du lanean.

Zehaztasunaren arazoa (hiztegi arloan jarraituaz) beste ezaugarri batzuetan ere agertzen zaigu: izenlagunen erabileran eta hiztegi aldetiko zuzentasunean.

Izenlagunei buruzko ikerketa sakon bat egiterik ez dugu helburu. Orohar, izenlagunen erabilera ugaria eta zaindua bada ere, izpi txiki bi azpimarratu ditzakegu:

- Alde batetik, epitetoen erabilera.
- Bestetik, pertsonaia deskribatzeko unean, izenlagunak erabili baino erabiliagoak izaten dira.

(10) ZARATE, M.: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*. II3gn. orr.

Zehaztasunarekin jarraituz, egokitasunaren prolema aipatu dezagun. Hiztegi aldetik, Mikel Zaretek batez ere izadiari buruzko arloetan, hitz orokorrak eman beharrean, hitz zehatzak erabilten ditu. Horrela, duda gabe, narrazioak sinesgarritasunez irabazten du, eta irakurlearen irudimena askoz ere lotuago gelditzen da. Hitz zehatzek, irudi definitiboagoak, eta nahaste gabeko irudiak sortzen ditue.

Hiztegi alorrean gaudelarik, ezin dugu ahaztu, bukatzeko, sinonimiaren garrantzia. Arrunta izaten da hiztegia lantzen duen estilo batean; normalago estilo horrek itxura aldetiko hedapena duenean. Baina Axularren sinonimia teknikak, matizazio bat gehitzen dio sinonimiaren espre-sabideari.

Oso jakina denez, Axularrek sinonimia oso era apartekoz erabili zuen; sinonimia euskalki desberdinetako hitzez osatuaz. Horrela jokatzuz helburu soziologikoa lortu nahi zuen: testu ulerterrezagoak idatzi, testuaren irakurlego-gaia zabaldu. Baina bigarren bat ere sortu zuen: erritmoaren aldetiko jokoekin lotu behar dugun sinonimia: era desberdinetako hitzak erabiliz apurtu egiten dute, bai Axularrek eta bai Mikel Zaretek, sinonimia guztiak daukaten monorritmo itxura.

### 13.2. Klasiko + Erretorikoa

Mikel Zarate irakurriaz, bere maisuak nortzuk izan diren, edo zein irudi literario jarraitzen duen begi bistan dago. Maisuen artean T. Agirre eta erdal Quijotearen jarraitzaile ikusten dugu. Irudi literarioa hauxe dateke: aurrerapen teknikoetan gabe, joskera eta hiztegiaren aukeraketan oinarritzen den jokera literarioa bultzatu.

Zehaztasunok, azken baten, esaldia lantzen duen estilo bat definitzen dute.

Estilo honek ba dauka zerikusia, teknika aldetik erabili den aukerarekin. Hainbat eta jende gehienari heltzea izan

da helburua, kontaketa teknika murriztu egin du, eta horrela idaztankera indartzea baino ez da gelditu.

Arazoa horrela planteatuz, euskal literaturako tradizioz jotzen du eredu bila. Eta ezaugarrietara jetsiaz:

1. *Joskera*: nahiko joskera errenazentista aukeratzen da: paralelismo eta bimenbrazioetan oinarritua. Adibidez:

“Geroago eta zurbilago egin zan Idatz, eta gogortu. Geroago eta ubelago, ostera, Mintz, ubelago eta bigunago” (IAAM, 30).

Nahiz eta esaldi bateko hitzek beste esaldian bere ordezkoa izan, paralelismoaren paralelismoz joera manieristarantza abiatu zaigu idazlea, esaldi ezprogresiboetarantz, teknikan baino gehiago itxura landuaz, eta irakurlearengan sorpresa baino gehiago ikusmen baretsuaren gozamina sortuaz, ze joskeraren oinarririk garrantzitsuen kontzeptzio simetrikogeo-geometrikogori dugu.

2. *Haurgintza Minetan* liburuan agertzen ziren beste ezaugarriok: ikuspuntuaren erabilera flaubertianoa, mundu oso baten ausnartze nahia, idealismo eta ruralismo joerak, hemen ere argi-argiak ditugu. Apur bat ahulduagoak agertzen zaizkigu elementuok, baino hortxe dira.

3. Erretorikaren aztarnak frogatzeko, bere bizitzara jo beharrean gaude. Abadegaien heziketa, latinaren eza-guera, iganderoko predika... Guzti honek ematen dio estiloari logikaren indarra. Eta puntu hau larria dugu: estiloa mami eta itxuraren arteko oreka bezala planteatzen du Mikel Zaretek. Baina praktikoki itxurak gehiago egiten dio mamiari. Horregatik, orekak irauntzeko mami aldetiko, gai aldetiko originaltasun bat behar du. Bestela ez dago orekarik, eta mezua geroago eta ximelago agertuko litzateke. Agian, horixe gertatzen ari da *Utopiaren fantasian* liburuan. Baina horrelakorik ez dago *Ipuin antzeko alegi mingotsak* ipuinetan. Gaiak berriak dira, ezezaguna da, nolabait, gaiaren tratamendu sinbolikoa, eta oztopo haundirik gabe ulertzen dute irakurleek.

### 13.3. Itxuraren hedapena

Estilo honek, mami aldetik baino balio gehiago du itxura aldetik. Itxurak, idazteko erak deitzen du atenzioa. Eta deia, erabiltzen diren espresabideen ugaritasun, desberdintasunean datza.

Lehenago aipatu dugunez, esaldi pila bat ezprogresiboak dira. Kontzeptuak zera adierazi nahi du: itxurak aurrera egiten duen artean, mamiak ez duela egiten. Nola-bait mezua geldi dago esaldi gehiago den artean, eta honelako esaldi bat adibidetzat aipa dezakegu:

“Au barri pozgarria! Au poz barria” (IAAM, 19)

Honelako planteamentu batean espresioeko espresabideak (hitzarekin lotuagoak, hain zuzen) pentsamentuzko espresabideak baino garrantzizkoagoak izanik ere, ez da beste matizazio hau begi bistatik kendu behar: Mikel Zarateren testuak ez direla hitzez osoturiko hustasunak. Ba dagoela mamia. Eta testugintza honek ba du, literatura soziala izatera heldu ez arren, konpromisoarekin zerikusirik. Bien arteko muga argala izan arren, era berean argia da. Literatura sozialak konpromisu politikoa jarraitzen du bere literaturan (zehatzago, alderdi politikoa baten ikuspegia). Mikel Zarateren konpromisoa ez da hain politikoa. Kulturalagoa da. Marxismo arazoarekin baino, Nazional arazoarekin lotuagoa, nahiz eta esaldi hau nahiko zaborretsua izan. Baina konpromisua izaki, Mikel Zarateren prosak baditu, eta hau ukazina dugu, era bietako espresabideak: pentsamentu, eta espresioak; bigarren hauek, lehenagokoak baino ugari eta argiagoak izan arren.

Estilo honen espresabide nagusiak izendatzen joango gara urrengo lerroketan. Baina, espresabide zerrenda, bera ez da helburua; helburu barik, bide izango dugu, Mikel Zarateren estiloa agertzeko bidea.

### 3.1. Polisindetona

Juntagailu, eta bereziki, “eta” loturaren ugaritasunari deitzen zaio polisindetona. Era bitara erabilten du espresabide hau. Alde batetik “eta” bereiztu behar dugu, eta bestetik, beste loturak.

“Eta”ren kasuan, errepikazioa nabaria izanik, testuan erritmo bizia lortzen du. Argi dugu horixe dela ahozko espresabidearen oinarritakoren bat. Esaldiek eta pentsakizunak nolabaiteko jarrera berezi, eta bizitasuna hartzen dituzte, pentsakizunaren lotura lineala, ximplea azpimar-katuz.

Beste loturen kasuan, gure idazleak ugari erabiltzen ditu. Matizazioa argiago agertzen delarik. Hizkuntzaren jabetasuna agertzen den bezala, lotura eta aditz nominalizatuz egiten dira esaldi menperatuak.

“Eta” loturaren linealtasuna eta beste juntagailuen matizazioa ez dira kontraesan bezala ikusi behar, orekaren bilakaera bezala baino. Tono desberdinen (linealtasun, konplexotasun) arteko oreka bezala.

### 3.2. Sinonimia

Adierazkizun bat adierazle batzuk aitatuaz izendatzen dugunean gertatzen zaigu sinonimia.

Hiztegi aldetiko jakinduriaren ispilu ba dugu ere, sinonimiak beti tonoz geldia ezartzen dio esaldiari.

### 3.3. Epitetoak

Berez izenari egokituz eta berez beharrezkoa ez den izenlagunaren erabilera dugu epitetoa. Adibideak ugariak dira, eta bat aipatzearren, hauxe aipatuko dugu:

“Uraren murmur isil gozo batzuk” (IAAM, 113).

### 3.4. Anafora

Bertso edo esaldiaren hasieran errepikatzen den hitza: Begira 29gn orrialdean zenbat bidar errepikatzen den “Ez, ez da ezer” esaldia.

### 3.5. Reduplikazioa

Aposizioz errepikatzen den hitza: “Asarre edo adixkide, soinkideak, soinkide” (IAAM, 23).

Orain artean aztertu eta definitu ditugun sei espresabideon helburu partzialak bakoitzaren sailan aztertu ditugu. Baina ba dugu ordua, orohar, estilo baten deskribapen bezala kontsideratzeko.

Horrela, espresabideok ikusirik, Mikel Zarateren estiloa hizkuntzaren ezaguntzan oinarritutakoa, eta adierazle aldera etzundutakoa dela esan beharrean aurkitzen gara.

Gure lehenengoko ezaugarriak ditugu, baina jarraitu dezagun:

### 3.6. Aliterazioa

Soinu eta hotsen errepikazioez efektu musikala sortzeari deitzen diogu aliterazioa.

“Zabar zamarra bai baina, oso argia, alaia eta errikoia zan Mintz.” (IAAM, 22).

### 3.7. Hots hitzak

Izadiaren soinu errealean antza daukaten adierazle sinboloei deitzen diegu hots hitz.

Mikel Zarateren erabileran ezaugarri bi azpimarkatzeko bide dugu. Alde batetik, izadiak bere “poetikan” (literaturaren kontzeptuan) eta ideologian daukan garrantzia. Bestetik, hots hitzak eta aliterazioak musikaltasunaren egoera agertzen dute testuan. Eta hirugarrenez, herri literaturaren (orain arte, larregi azpimarkatu ez dugun ezaugarria) eragina agertzen digute. Adibiderik argiena “Idatz eta Mintz”-en hasiera dugu.

### 3.8. Paranomasia

Hots baten ezberdintzen diren hitz berdintsu bi elkarren ondoan erabiltzean datza paronomasia espresabidearen muina.

Adibide bezala: “Ezkerkale”/“Eskoikale”.

Honelako jokook ere helburu ezaguna izaten dute: humorea sortaraztea (beste ezaugarri bat Mikel Zarateren estiloan). Bigarrena ere ezaguna da: aliterazioaren antzeko efektu bat sortzen dute, esaldiaren musikalitatea azpimarkatuz. Eta hirugarrenez, ba du kontzeptuarekin jokatzeko ari den estiloaren ezaugarria (dixolarien oromena).

Hiru ezaugarrien azterketaren ostean, zera esateko unea dugu: Mikel Zarateren testuek sinestesia oso zaindu dutela. Kasu honetan, oso argi agertu zaigu musikaltasuna. Eta duda gabe esan behar dugu testuaren musikaltasuna estiloaren oinarri bat dela.

Herri literaturaren garrantzia asmatzen hasiak gara. *Haurgintza Minetan* agertutakoa berrikusten dugu *Ipuin antzeko alegi mingotsak* liburuan.

Eta azkenez, humorismo eta kontzeptu jokoentzako tendentzia aurkitu dugu. Tendentzi hori argiagoa eta sendoagoa bihurtuz doa hurrengoko espresabideak aztertzen ditugunean.

### 3.9. Deribazioak

Erro berdinetik datozen atzizki desberdineko hitzak erabiltea dugu. Joko eta matizazio grina adierazten du espresabide honek.

### 3.10. Polipote

Forma gramatikal desberdinetan hitz berdinen erabilpidea dugu espresabide hau. "Maitaleak maitatua maitekiro maitatuz" (IAAM, 48).

Ikusten dugunez, espresabide biok hitz joko ximplearen aldakerak dira. Baina hemen ez da garrantzitsua espresabideok zein formaren barnean kokatzen diren jakitea, zein modutan erasten den estilo hau jakitea baino.

Eta oraintxe dugu gorago esandakoaren baieztapena. Gorago adierazi genuenez Mikel Zarateren testugintza ez da forma hutsa. Ba dago kontzeptuekin joko. Ba dira, frogatzera goazenez, pentsamentuzko espresabideak, eta, kontzeptismorantzako joera.

### 3.11. Alegoriak

Alegoriaren definizioa hau da: metafora jarraitua. Baina definizioaren azpian dagoena, beste hau ere ba da: gauza zehatzen bitartez kontzeptuen sinbolizazioa egitea.

*Ipuin antzeko alegi mingotsak* liburua, alegi bilduma, alegoria mugetan mugitzen da, nahiz eta abstrakzio jokoak beti bide berdinetik abiatu, eta sinbolo mundua herstua izan (horrelaxe nahi izan delako, beste arrazoien artean).

### 3.12. Errefrauek

Kontzeptu mundua adieraziz, errefrauek Mikel Zarateren herri zaletasuna agertzen dute.

Adibideak ugariak izaki, *Egiederko alegia*, ipuina adibide bezala jarri dezakegu, bertan errefraua bera alegorizatzen zaigulako.

Hurrengo doazen espresabideok, kontzeptismo arlotik urrundu eta humorearen bideetatik abiatzen dira.

### 3.13. Esaerak

Adierazkizun bat espresatzeko erabiltzen den esaldi fixua. Kontzeptu joko eta humorismoaren arteko zubi bezala onartu dezakegu. Beraz, esakeraren funtzio berezia testuaren adornoa badugu, ba dira gure artean ateraldi eta esakera humoretsuak ere.

### 3.14. Aipamenak

Gauza ala pertsona ezagunari egiten zaion perifrasi (zentzu jakina hitzez estaltzea): Zezenlarri Espainaren orde.

### 3.15. Ironia

Esan nahi dena eta esaten denaren arteko joko. Bartzutan, esan nahi denaren kontrakoa adierazten da benetan esaten dugunaz.

"—Bestelan ondo baiña..., ez?"

—Bai auto jauna! Bestelan oso ondo". (IAAM, 17).

Bukatu dezagun espresabide andana honekin, atal honetan aurkitu ditugun ezaugarrien laburpentxoak eginaz: Mikel Zarateren estiloak kontu handiz hartzen du testuaren adierazle arloa, elipsisa gutxi erabiltzen du, eta gainera, aditz-sintagmak baino, izen-sintagmak askoz ere luze ta ugariagoak dira. Horregatik adierazle aldetik *hedatua* dela esaten dugu.

Bigarrenez, testuak oso kontutan izan du musikaltasuna. Erritmoa eta eufonia lortuak izan dira hotsen errepikazioen bitartez. Hirugarrenez herri hizkerari hurbilketak egin zaio estilo honetan. Ba dago hitz jokoaren bidez agertu zaigun kontzeptismo apur bat, eta humorismoa ere ez da ahaztuzekoa.

Eta azkenez, azpimarra ditzagun Mikel Zarateren hizkuntzaren jakintza, eta estilo aldetiko ezaugarria. Metonimia eta sinekdokeak agertu arren, metaforak ez direla hainbat agertzen.

Ondorio bezala, beude adierazle aldetiko zabalpen nabaria, eta Mikel Zaratek erretorikari zor dion guztia.

#### 13.4. Dei Funtzioa

Mereziko luke Mikel Zarateren lanak Sozioliteratura aldetik aztertzea. Ezin diogu gaur lan horri erantzunik eman. Baina ohartxo labur batzuk komenigarriak izango direlakoan gaude.

Lan literario batek baditu irakurlea bereganatzeko hainbat teknika. Ezagunena eta erabiliena dei funtzioaren aplikapena dugu; argiago, bigarren pertsona gramatikalarren erabilpena.

Ez da hau Mikel Zaratek erabilten duena. Jakina, bigarren pertsona erabilten du, zelan ez? Baina bigarren pertsona, pertsonaiek heuren arteko diskurtsoan erabilten dute. Eta ez idazle/irakurlegai prozesuan.

Baina ba dira irakurleari egindako kinuak. Irakurlea bereganatzeko erabilitako kinuak. Deigarri bihurtzen du testua Mikelek.

Mikel Zarateren teknika finagoa da. Alde batez, ideologikoa dugu. Gaurko irakurle euskaldun batek (abstrakzioa, abstrakzio dela), bertantxe ditu berak ere maite dituen ideiak: euskaldunen batasuna: nolabaiteko askatasuna; maitasunaren behar izan eta edertasuna; konsumismoaren aurkako indarrak; telebista arrotzen kontrakoak. Ideia nagusietan danok gaude ados. Edo beste era batez esateko, *Ipuin antzeko alegi mingotsak* liburuan “askok” pentsatzen dutena aurkituko dugu. Beraz identifikazio prozesu bat eraman nahi du aurrera Mikel.

“Askok” pentsatzen dutena, baina era polit batez esana. “Polita” zer zen aurrerako puntuetan aztertu dugu. Baina, ba dira, beste aldetik, forma ingurutik irakurleari dei egiten dioten elementuek: hitz berriak, slogan eta anagramen erabilera, adibidez.



## 14. BIBLIOGRAFIA

### 1. Mikel Zarateren lanen bibliografia

1. Mikel ZARATE: *Haurgintza Minetan*. Etor. Donostia. 1973.
2. Mikel ZARATE: *Ipuin antzeko alegin mingotsak*. Leopoldo Zugaza. Durango. 1975.
3. Mikel ZARATE: *Bizipenen bultzadaz*. Leopoldo Zugaza. Durango. 1978.
4. Mikel ZARATE: *Etorriaren zorabioz*. Argitaratu gabea.
5. Mikel ZARATE: *Influencias del vascuence en la lengua castellana*. LGEV. Bilbo. 1976.

### 2. Mikel Zarateri buruz erabili ditugun artikulak

1. AREJITA, Adolfo: "Ipuin antzeko eriotz mingotsa" DEIA, 79-4-11. 37. or.
2. AMATIÑO: "Mikel Zarate edo Utopiaren razionalismoa". DEIA. 79-7-27. 16. or.
3. HARANBURU ALTUNA: "Utopia bat" *Utopiaren fantasian* hitzaurrea. Kriselu. Donosti. 1979. 7-10 or.
4. KORTAZAR: "Mikel Zarateren Bizipenen bultzadaz" JAKIN. 9.1979. 140-145 or.
5. KORTAZAR: "Mikel Zarateren literaturgintza" JAKIN. 11. 1979. 48-87 orr.

6. MANTEROLA: "Mikel Zarateren biografia eta bibliografia" JAKIN. 11. 44-47 or.

### 3. Azterketa estilistikoa egiteko erabili dugun bibliografia

1. BARTHES, Roland: "Introducción al análisis estructural de los relatos" COMUNICACIONES, nº 8. Buenos Aires. 9-44 or.
2. CARO BAROJA: *Los Baroja*. Taurus. Madrid. 2 arg. 1979.
3. DIAZ BORQUE: *Comentario de textos literarios*. Playor. Madrid, 1978.
4. GRUPO DE LIEJA: *Rétorique Générale*. Seuil. Paris 1970.
5. LEVIN: *Estructuras lingüísticas de la poesía*. Cátedra. Madrid. 1977.
6. MARTIN: *Crítica estilística*. Gredos. Madrid. 1973.
7. SINIAVSKI: "El arte es superior a la realidad" DIWAN n.º 4. Barcelona. 5-10 or.
8. TODOROV: "Las categorías del relato literario" COMUNICACIONES. N.º 8. Buenos Aires. 155-192 or.

MONTORI, 1979, Iraila.  
MUNDAKA, 1979, Urria.

AURKIBIDEA

0. SARRERA .....	9
------------------	---

### HAURGINTZA MINETAN

1. GAIA .....	17
1.1. Iratxo narratzailearen maila .....	18
1.2. Herrinormalaren maila .....	20
1.3. Balorazioa .....	24
2. ARAZO BATZUEN IKERKETA AURRETIK..	28
2.1. Ikuspegia .....	28
2.2. Denbora .....	30
2.3. Espazioa .....	31
2.4. Erlazio Teknikak .....	33
2.5. Nobelaren batasunaren arazoa .....	33
3. EGITURA DISEINUA .....	34
3.1. Deskripzioa/Akzioa .....	42
3.2. Kapituluaren egitura .....	42
3.3. Egitura konplexuak .....	42
3.4. Ekintza paraleloa .....	43
3.5. Kontrasteak .....	44

4. NOBELAREN KONTZEPTZIO BAT .....	48
5. IDAZTE TEKNIKAK .....	52
5.1. Kontakizun mailak .....	52
5.2. Deskripzioak .....	56
5.3. Espektatibak eta laburpenak .....	63
5.4. Sinboloak eta arketipoak .....	66
6. JOKERA ESTILISTIKOAK .....	68
6.1. Narrazioaren argitasuna .....	68
6.2. Traskripzioaren trebetasuna .....	74
7. ITURRIAK .....	81
7.1. Erdal idazleak .....	82
7.2. Euskal idazleak .....	85
8. AZKEN ERITZIA .....	87
8.1. Akatsak .....	87
8.2. Baloreak .....	89
8.3. Hurgintza minetan: Utopiarantza lehen pau- soa .....	90

#### IPUIN ANTZEKO ALEGI MINGOTSAK

9. IPUIN ANTZEKO ETA HAURGINTZA MI- NETAN .....	93
10. GAIK .....	100
10.1. Gai politikoa .....	101

10.2. Giza-izaera .....	103
10.3. Hitzaren zikloa .....	104
10.4. Gai filosofikoak .....	105
11. IPUIN ANTZEKO ALEGI MINGOTSAK. EGI- TURAK .....	107
12. TEKNIKAK .....	121
12.1. Sinbolizazioa .....	121
12.2. Elkarrizketak .....	125
12.3. Kontaketa teknika .....	126
13. ESTILOA .....	129
13.1. Zehatza-aberatsa .....	130
13.2. Klasiko Erretorikoa .....	132
13.3. Itxuraren hedapena .....	134
13.4. Dei Funtzioa .....	140
14. BIBLIOGRAFIA .....	142

<b>LABAYRU-IRASTEGIA</b>
BIBLIOTEKA - JERIO
Sarr. 2496/83
Gaia. Aukal literat.
Tokia. M/257-4